




2009



PISA: IRAKURMENA

I. Markoa eta itemen analisia



15 urteko Ikasleen Nazioarteko
Ebaluaziorako Proiektua





ISEI-IVEIk argitaratuta:

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a
48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04
Info@isei-ivei.net
www.isei-ivei.net

2011ko abendua

Txostengileak:

Dokumentu hau Alfonso Cañok eta Francisco Lunak egin dute, Eduardo Ubietaren aholkularitza teknikoa izanik. Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko (ISEI-IVEI) zuzendaritza-taldeak dokumentua gainbegiratu eta onetsi du.

Halaber, PISA proiektuaren garapenean parte hartu duten teknikarien laguntza eta lankidetzak eskertu behar da, dokumentua sortze aldera beren lana funtsezkoa izan baita: Raimundo Rubio, José Ramón Ugarriza, Amaia Arregi, Carmen Núñez, Cristina Elorza, Inmaculada Tambo, Alicia Sainz, Arrate Egaña eta Mikel Urkijo.

AURKIBIDEA

Aurkibidea	2
Aurkezpena	4
1. Irakurmenaren markoa PISAn	6
1.1. Irakurmenaren definizioa	8
1.2. PISA 2009an irakurtzeko gaitasuna neurtzeko modua	9
1.2.1. Testuen formatua	10
1.2.2. Egoera edo testuingurua	12
1.2.3. Prozesu edo konpetentzia kognitiboak	12
1.3. Irakurmenaren mailak	14
2. PISA proiektuaren irakurmeneko itemen adibideak	19
2.1. Irakurmeneko itemak. PISA 2009	21
• HORTZAK GARBITZEN	22
• TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA	28
• GLOBOA	36
• ODOLA EMATEA	43
• ZEKENA ETA HAREN URREA	46
• ANTZERKIA DA KONTUA	51
• TELELANA	57
2.2. Irakurmeneko itemak. PISA 2008 (proba pilotua)	61
• MACONDO	62
• LIBURUTEGIAREN PLANOA	70
• IKASLEEN IRITZIAK	76
• SUPERMERKATUKO OHARRAK	85
• MOTOZIKLETA	94
• ERAIKIN ALTUAK	98
• DEMOKRAZIA ATENASEN	104
• HELMUGA: BUENOS AIRES	113
• AFRIKAKO IBILALDI HANDIA	120
• METROTRANSIT	127
2.3. Irakurmeneko itemak. PISA 2000 eta 2003	134
• ERLEAK	135
• GUSTU TXARREKOA	141
• EPAILE ZUZENA	144
• IKARATZAILEAK	154
• UDAL LIBURUTEGIAK	158
• BERMEA	160
• TXAD LAKUA	165
• GRIPEA	171
• GRAFFITIAK	181
• BIZTANLE AKTIBOAK	189
• PLAN INTERNATIONAL	196
• POLIZIAKO ZIENTZIALARIEN ARMAK	202
• ZAPATILAK	207
• OPARIA	213
• AMANDA ETA DUKESA	228
• LANGILEAK	236
• ARAU BERRIAK	240

AURKEZPENA

2000ean PISA nazioarteko ebaluazioa martxan jarri zenetik, 2009an azken azterketa gauzatu zenera arte, ebaluazio hori mundu osorako hezkuntza prozesuak neurtzeko erreferentzia bihurtu da. PISA eredu 15 urteko ikasleen gaitasunak –ez curriculum edukiak– neurtzen ditu. Horrela, ikasleen errendimendua neurtzeko kontzeptua bera ere eraldatu du era esanguratsuan, baita irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuekin lotzen diren aldagaien neurketa ere.

Gaur egun, gure curriculumak ere ikasleek oinarritzko gaitasunak garatzea aldarrikatzen du. Ikuspegi hori bat dator nazioarte mailan zabaldu den joerarekin eta Europako Batasuna bera espreski bere herrialdekideen artean sustatzen ari den ereduarekin. Bestalde, gure egungo curriculumak gaitasunen neurketan oinarritutako ebaluazio diagnostikoak bultzatzen ditu.

PISA proiektuak 15 urteko ikasleen errendimendua ebaluatzen du *irakurmen*, *matematika* eta *zientziari* dagokienez. PISA hiru urtean behin aplikatu da eta, emaitzekin batera, erabiltzen dituen probetako zati batzuk argitaratzen ditu.

Ezbairik gabe, PISA azterketaren aspektu berritzaileenetako bat da ikasleen kompetentzia-mailak neurtzeko itemen formatua eta ezaugarriak bereziak izatea. Hain zuzen ere, itemak ikasleentzat hurbilak diren egoera eta testuinguruetan oinarritzen dira. Horrela, itemetan planteatzen zaizkien arazoak konpontzeko gai izan behar dute, hezkuntza esparruan eta, beren ohiko bizimoduan ere, ikasi dutenaz eta lortu duten ezagutzaz baliatuz.

Horregatik, euskal irakasleen eskuetan jarri dugu argitalpen hau; izan ere, bertan PISAk gaur arte argitaratu dituen irakurmenari buruzko item guztiak bildu ditugu. 2005ean ISEI-IVEIk beste dokumentu bat argitaratu zuen, une ordura arte liberatu ziren itemak ezagutarazteko (<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/irakurmenekolitemak2.pdf>). Baina irakasleek item horiek errazago kontsulta eta ezagut ditzaten, interesgarria iruditzen zaigu item libre guztiak dokumentu honetan biltzea.

Dokumentu honen hasieran ebaluazioaren markoa aurkeztu dugu eta, jarraian ELGA-OECDk liberatu dituen itemak. Itemak zenbait azpiataletan antolatu ditugu.

- Lehengo bi multzoetan batez ere 2009ko *irakurmeneko* proban (horietako batzuk aurreko urteetako probetan ere erabiliak) eta 2008ko proba pilotuan erabili ziren item liberatuak sartu ditugu. Bi item-multzoen artean diferentzia nabarmen bat dago; 2008ko proba pilotuan erabili ziren *ulermeneko* item liberatuei buruz ez dago puntuaziorik eta, beraz, ezin dira zailtasun eskala batean kokatu.
- Azken item-multzoak 2000 eta 2003ko aplikazioetan erabili ziren *irakurmeneko* item liberatuak biltzen ditu, ISEI-IVEIren aipatutako argitalpenean aurkeztu genituen eran.

Ebaluazio proba desberdinetan erabili ziren item guztiei buruz informazio lagungarria eskaintzen da: haien ezaugarriak, zuzenketarako gida eta emaitzak. Hala ere, itemenen

erabilera praktikoa errazteko asmoz, ISEI-IVEIk beste argitalpen bat ere jarri du irakasleen eskura (www.isei-ivei.net/eusk/argital/itemliberatuak/irakurmena2011/irakurmena_PISA2009itemak.pdf) itemak soilik biltzen dira, argitalpen honetan eranstean diren gainerako informazioak kenduta; horrela, nahi izanez gero, kopiatu eta ikasleekin oso erraz erabil litezke.

Uste dugu dokumentu hau mesedegarria izango dela irakasleentzat euren irakaskuntza-jardueran. Halaber, ELGA-OECDko PISA nazioarteko azterlanetan erabiltzen diren tresnak hobeto ezagutzeko.

1.

IRAKURMENAREN MARKOA PISAN



1.1. IRAKURMENAREN DEFINIZIOA PISAN?

Kultura gehienetan irakurketa ikasgela baitan eta kanpoan gertatu ohi diren ikasketen oinarri gisa ulertu ohi da. Hain zuzen ere, ikasleen artean irakurketa ulergarriaren garapena sortzea da hezkuntza-sistemaren oinarri nagusietako bat. Ikasketa horren gainean joango dira eraikitzen gero eta abstraktuagoak eta konplexuagoak diren beste ezagutza batzuk. Beraz, irakurketa gerora ikasi ahal izateko oinarritzko tresna pribilegiatua dela esan dezakegu. Bestalde, aitortu dezakegu irakurtzen ikastea ez dela eskolatzearen lehen urteetan hasten eta amaitzen, abilezien eta estrategien multzoa dela baizik. Abilezia eta estrategia horiek, harremanak ditugun beste pertsona batzuekin elkarrekintzan eta hainbat testuingurutan, bizitza osoan eraikitzen eta garatzen dira.

PISA proiektuaren baitan, irakurketako konpetentzia gisa hartu ohi da hau:

Helburu pertsonalak erdiesteko, aukerak eta ezagutzak garatzeko, eta gizartean parte hartzeko xedearekin irakurleak testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko eta aztertzeko duen gaitasuna da (OECD, 2009b).

Definizio horrek irakurketako konpetentzia gaitasun bat eskuratzeko prozesu gisa ulertu izan duen ideia tradizionala gainditzen du. Ikuspuntu horretatik abiatuta, uste da ebaluazioan eskolako bizitzan, bizitza sozial edo publikoan eta laneko edo lanbideko bizitzan pertsona batek izan ohi dituen egoerak adieraziko dituzten testu mota guztiak bildu beharko liratekeela.

Planteamendu teoriko horrek PISAk 2000. urtetik egindako ebaluazio guztietan iraun du. Baina denbora horretan guztian irakurketako prozesuaren azpiko elementuek izandako garapen teoriko-praktikoak eta teknologia berrien garapenak eraginda, PISA 2009ko ebaluazioan 2 aldaketa garrantzitsu eginda sartu behar izan dira.

- Testu elektronikoen irakurketa txertatzea. Horrekin lotuta, Euskadin proba pilotua egin zuten, baina baliabide hori ez zen kontuan hartu behin betiko proba aplikatzean.
- Irakurketarako motibazioarekin eta metakognizioarekin lotutako konstruktuek egitea.


1.2. PISA 2009AN IRAKURTZEKO GAITASUNA NEURTZEKO MODUA

Hizkuntzaren bidez, errealitatea deskribatu, kontatu eta azal dezakegu. Egin nahi dugunaren arabera, testu mota bat edo bestea erabili beharko dugu eta zenbaitetan, baita mota baten eta besteen arteko konbinazioak ere, diskurtso berean jakinarazi nahi duguna hedatzeko eta egoera ezberdinetan eta hainbat solaskiderekin esan nahi duguna ulertarazteko.

PISAn irakurketa-konpetentziaren kontzeptua 3 arloekin lotuta ebaluatzen da: irakurtzeko materialaren edo testuaren formatua, lan mota edo irakurketaren alderdiak eta testua zein egoera edo helbururekin idatzi den. PISAn irakurketako itemen bidez ebaluatzen diren hiru dimentsioak, beraz, hauek dira:

- Testuaren formatua. Testu-aukera zabala dagoela jakina da, baina haien kategorizazio idealik ez dagoenez, horrekin parekatzen da, eta horrez gain, PISA 2009 ebaluazioak testu elektronikoen irakurketaren ebaluazioa biltzen du.
- Egoera edo testuingurua; irakurketaren asmoaren arabera hainbat egoera izan daitezke: erabilera pribaturako edo erabilera publikorako izatearen arabera.
- Konpetentzia kognitiboak. Irakurketan inplikaturako konpetentziak eta buruko estrategiak dira. Buruko prozesuak ebaluatzeko zereginak 5 arloren ingurukoak izaten dira: informazioa berreskuratzea, testua ulertzea, interpretazioa garatzea, gogoeta egitea eta ebaluatzea testu jakin baten edukiari eta formari buruz.

Hurrengo grafiko honetan, PISAk irakurketa-konpetentzia neurtzean eta antolatzean kontuan hartzen dituen osagaiak daude bilduta:



ARLOAK, kognizio-konpetentzia honelakoa izatearen arabera	→ • Testuko informazioa JASOTZEA ETA BERRESKURATZEA. • Irakurritakoa BARNERATZEA ETA INTERPRETATZEA. • Formari eta edukiari buruzko GOGOETA ETA EBALUAZIOA, esperientziarekin lotuz.
EGOERA EDO ERABILERA-TESTUINGURUA	→ • PERTSONALA, interes pertsonalak asetzeko: gutunak, e-mailak, nobelak. • PUBLIKOA, testuinguru zabalagoari dagozkionak ekitaldeei, dokumentuei eta abarri buruzko informazio-testuak... • HEZKUNTZA edo trebakuntza arlokoak: testu-liburuak, ariketak... • LANEKOA / LANBIDEKOA, lan-munduarekin lotutakoak: iragarkiak, txostenak, laneko helbideak...


1.2.1. Testuaren formatua

Idatzizko materialak izan ditzakeen moduak biltzen ditu. Informazioa prozesatzeko eta hara hurbiltzeko teknikak eskatzen dituzten testuen gama zabala dago. PISA 2009k 4 sailkapen proposatzen ditu, eta aurreko edizioekin alderatuta testu elektronikoak sailkapena berritzailea da; hain zuzen ere, webguneak, autoedizioak eta mezu elektronikoak bereizten ditu:

- Testuaren bitartekoaren edo euskarriaren arabera:*
 - Inprimatutako testua.
 - Testu elektronikoa.
- Ingurune elektroniko hutsaren arabera:*
 - Egilearen ingurunea; horietan, irakurlea hartzailea da eta ezin du edukia aldatu, egileek egindako testuak baitira. Batez ere informazioa eskuratzeko erabiltzen da.
 - Mezularitza-ingurunea; horietan, irakurleak testuaren edukia gehitzeko edo aldatzeko aukera du. Informazioa eskuratzear gain, komunikatzeko modua da: postak, blogak, txatak eta abar dira.
- Testuaren formatuaren arabera:*
 - Testu jarraitua
Esaldiez osatutako testuak dira. Esaldi horiek paragrafoak osatzen dituzte eta horiek, aldi berean, neurri ezberdinetako egiturak osatzen dituzte: atalak, kapituluak edo liburuak. Horiei esker, irakurleak testuaren antolaketa ezagut dezake. Testu mota horien adibide dira kazetaritzako erreportajeak, saiakerak, nobelak, kritikak eta gutunak. Testu jarraitu elektronikoak (kritikak, blogak, albisteak...) laburrak izateko joera dute, pantailako neurriaren muga dutelako, eta irakurleentzat testu luzea ez delako erakargarria.

- Testu etena

Egitura zabalagoak osatu gabe, bata bestearen atzetik agertu ohi diren esaldiek osatzen dituzten testuak dira. Konplexutasun handiagoko edo txikiagoko zerrenda multzoek edo hainbat zerrendak osatutako konbinazioek osatzen dituzten testu gisa aurkeztu ohi dira; horiek bestelako irakurketa-hurbilketa eskatzen dute. Testu eten hauen adibide dira zerrendak, taulak, grafikoak, diagramak, iragarkiak, panelak, katalogoak...



d) *Testu motaren arabera:*

PISAren aurreko ebaluazioetan, testu tipologia hau testu jarraituaren formatuko azpisail gisa hartzen zen. PISA 2009an, testu etenek deskribapen-, narrazio-, azalpen-, argumentazio- edo irakaspen-asmoa ere badutela onartzen da. Hurrengo sailkapen hau 2009ko berrikusitako edizio honetan Werlich (1976) egilearen lanaren egokitzapena da. Testuak (etenak nahiz jarraituak) honelakoak izan daitezke:

- **Deskribapen-testuak.** Izenak dioen moduan, espazioan objektuek dituzten propietateak deskribatzean dituzte. Testu horiek ondorengo galdera honi erantzuten diote: “zer?”
- Gertaerak, ipuinak, esperientziak eta abar kontatzen dituztenak **narrazio-testuak** dira eta ordena kronologikoa funtsezkoa da horietan. Oraina ulertzeko beharrezkoa da aurretik gertatu zena jakitea eta lotura ematea. “Noiz?” edo “zein ordenatan?” galderei erantzuten diete.
- **Azalpen-testuak** errealitatea kausa-efektua, konkomitantzia eta antzeko loturen bidez azaltzen dutenak dira. Testu-liburu gehienak mota horretakoak dira eta ondorengo galdera honi erantzuten diote: “nola?”
- **Argudio-testuak;** horien bidez, besteen aurrean gure jarrera argudioen bidez bermatzeko arrazoiak ematen edo besteak konbentzitzen saiatzen gara. Horietako batzuek argumentazio zientifikoa biltzen dute. Hau izaten da galdera: “zergatik?”
- **Testu irakasgarriak;** ekintzak zuzentzeko argibideak edo urratsak ematen dituzte azalpen zehatzekin horiek jarraitu ahal izateko. Hartu beharreko portaera jakin batzuk zehazten dituzten prozedurak, arauak, legeak eta estatutuak bil ditzakete. Horiek ere “nola?” galderari erantzuten diote.

- **Transakzio-testuak.** Irakurlearekin elkarreaginarazten dituzten testuak dira. Horien adibide dira familia-albisteak partekatzeak gutunak, oporraldiak planifikatzeko posta-trukea edo ekitaldiak antolatzeak.

1.2.2. Egoera edo testuingurua

Testuen sailkapena agertzen du, egileak eman nahi dion erabilaren, testuarekin modu esplizituan edo inplizituan lotura duten beste pertsona batzuekin duen loturaren eta eduki orokorraren arabera. PISA sartutako egoerak hizkuntzen ikaskuntzari buruz Europako Kontseiluak garatutako hizkuntzen Europako testuinguruaren¹ (1996) jatorrizko sailkapenera egokituta daude; bertan, lau testuinguru mota identifikatu ziren:

- **Erabilera pertsonala** edo pribatua, interes pertsonalak, praktikoak edo adimen-interesak asetzera bideratutako testuekin lotutakoa: gutunak, nobelak eta posta elektronikoak.
- **Erabilera publikoa:** dokumentu ofizialak, ekitaldi publikoei buruzko informazio-testuak...
- **Laneko edo lanbideko erabilera:** sailkatutako iragarkiak, laneko helbideak, txostenak...
- **Hezkuntza- edo trebakuntza-erabilera:** testu-liburuak, ariketak... eta ikaskuntza interaktiboko softwarea.

Testuaren egiturak ariketaren zailtasuna areagotzen laguntzen badu ere, ikasleei ariketarekin egiteko eskatu zaienak ere zailtasun orokorrean eragina du.²

1.2.3. Prozesu edo konpetentzia kognitiboak

Aurreko ikasketak eta esperientziak oinarritzat hartuta eskuratutako estrategiak eta abileziak dira. Egikaritze zehatz batzuk egiteko eta ebaluagarriak diren errendimenduak lortzeko gaitasuna ematen dio pertsonari. Irakurtzeko gaitasunaren ebaluazioak, lehen aipatu den moduan, 5 ardatz izaten ditu:

- Informazioa berreskuratzea,
- Testua ulertzea,
- Interpretazioa garatzea,
- Formari buruzko gogoeta eta ebaluazioa eta
- Testu baten edukiari buruzko gogoeta eta ebaluazioa.

¹ Hizkuntzak ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeak Europako erreferentzia-testuinguruak. Europako Kontseilua. 2002.


² Beste PISA ebaluazio batzuetan erabili diren irakurketako item motak ezagutzeko, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) egindako argitalpena kontsulta daiteke: "PISA Proiektua. Irakurketako itemen adibideak". Ondorengo webgunean: <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

Baina 5 arloetako bakoitzaren azpieskalak egiteko nahikoa item sartu ezin izan direnez, 3 kategoriatan antolatu dira, dagozkien azpieskalekin:

- **Informazioa jasotzea eta berreskuratzea:** Testu batean informazio zati batek edo gehiagok duten kokapenari deitzen zaio. Testuaren ulermen literalarekin du lotura. Zehaztasuna, doitasuna eta zorrozatasuna eskatzen dira eskatutako informazioa topatzeko eta ateratzeko. Datuak ateratzeko ariketek informazio zehatza aukeratzearekin edo informazio sinonimoa topatzea eskatzen duten beste lan konplexuago batzuekin izan dezakete lotura.
- **Testuaren integrazioa eta interpretazioa:** Testu bateko atal batetik edo gehiagotatik abiatuta, esanahien eraikuntza eta inferentzien sortze gisa defini dezakegu.
- **Testuaren formari eta edukiari buruzko gogoeta eta ebaluazioa:** Gogoeta eta ebaluazioa testu bat esperientziarekin, ezagutzeekin eta berezko ideiekin lotzeko gaitasun gisa defini ditzakegu. Gogoeta honela egin daiteke:
 - Testuaren edukiaren gainean: testuaren edukia aurretiazko ezagutzeekin, ideiekin eta esperientziekin lotzea eskatzen du.
 - Formaren gainean: testuaren forma erabilgarritasunarekin eta egilearen asmoekin eta jarrerarekin lotzea eskatzen du.

Azken bi lan horiek, interpretazioa eta gogoeta, konplexuagoa den eta literala ez den ulermenarekin lotuta daude eta azterketak, inferentziak eta laburpena egiteko, informazioa berriz antolatzeko eta abarretarako gaitasuna eskatzen dituzte; aldiz, ulermen literalak informazioa berreskuratzeke lana eskatzen du.

Irakurketa-prozesu guztietan, lanaren zailtasun maila eskatutako informazioaren konplexutasun mailaren, testuan topa daitekeen informazio alternatibo kopuruaren, eta irakurleak beharrezko orientabide esplizituak izatearen (ala ez izatearen) arabera izan ohi da, irakurlea lan hori bideratzeko beharrezkoak diren datu edo ideietara bidera dezaten.



1.3. IRAKURMENAREN MAILAK

PISA 2009 ebaluazioak irakurketa-konpetentzia neurtu ohi du 2000. urtean ezarritako markoaren baitan, eta urte hartako ebaluazioan ere erabili zen item multzoa erabiltzen du; izan ere, konpetentzia hori arreta espezifikoko gune izan zen orduan. 2000ko ebaluazioaren emaitzak dira PISA 2003 eta PISA 2006 ebaluazioetako irakurketako eskalaren oinarriak. Ebaluazio haren batez bestekoa 500 puntukoa izan zen, eta desbideratze tipikoa 100ekoa. Beraz, PISA 2000 ebaluazioa erreferentzia-puntu izan da Irakurketako emaitza hauek neurtzeko.

2009ko Irakurketako puntuazioak konpetentziako sei mailatan aurkeztu dira, eskatutako lanen zailtasun maila ugarien arabera. Sei maila horiei beste maila baxuago bat (1b) ere gehitu zaie, deskribatutako maila baxuena, eta eskalatik kanpo beste bat dago, eta bertan lehen maila horietako puntuazioak lortzen ez dituzten ikasleak biltzen dira.

Konpetentzia mailak ezaugarri komunak dituzten lanen arabera zehaztu ohi dira (kontzeptu zein estatistika mailakoak) eta ikasle bakoitzari puntuazio espezifikoa esleitzea ahalbidetzen dute zuzen erantzun dituzten itemen arabera. Bestalde, maila bakoitzeko ikasleak zein lan mota egiteko gai diren zehazteko balio du. Konpetentzia maila berekoak diren lanek ezaugarri asko dituzte komunean; aldiz, maila altuagoetan edo baxuagoetan daudenetatik ezberdinak izan ohi dira.

Ikasleak errendimendu mailen arabera sailkatzerakoan, ikasle batek maila jakin bati lotutako jarduera gehienetan gaitasun nahikoa erakusteak, adibidez 4. mailakoetan, esan nahi du maila horri dagozkion lanak egin ditzakeela eta baita azpiko mailetakoz guztiak (1b, 1a, 2. eta 3.a); aitzitik, ez du jakingo egiten 5. eta 6. maileri dagozkien zereginak.

Hurrengo taula honetan ageri dira errendimenduko maila bakoitzarekin lotura duten lanak lehen aipatu ditugun konpetentzia kognitibo bakoitzaren arabera; horrez gain, maila bakoitzean kokatzeko beharrezkoa den puntuazioa ere ikus daiteke.

Irakurmeneko errendimendu mailen deskribapena. PISA 2009

6. maila (698 puntu baino gehiago)	Maila honetako zereginak egiteko, irakurleak askotariko inferentzia, alderaketa eta konparazio zehatzak eta zehaztuak egiten jakin behar du. Testu baten edo gehiagoren ulermen osatua eta zehaztua izan behar du, eta testu ugaritako informazioa txertatu behar du. Irakurleak ohikoak ez dituen ideiak landu behar ditu, informazioa atera eta ulertzeko kategoria abstraktuak sortu behar ditu. Gogoetarekin eta ebaluazioarekin lotutako zereginetarako hipotesia egin edo gai ezezaguna duen testu konplexu bat kritikoki ebaluatu behar izan dezake, ikuspegi eta irizpide askotarikoak kontuan hartuta, testutik harago ulermen-prozesu sofistikatuak aplikatuz. Maila honetan informazioa jasotzeari eta berreskuratzeari dagokionez, eskatutako zereginei buruzko datu gutxi daude, baina nabarmentzeko moduko baldintza da testuan oharkabeen pasatutako xehetasunen arreta selektiboa eta analisia egiteko zehaztasuna.
5. maila (626 eta 698 artean)	Maila honetako zereginetan, informazioa berreskuratzeari dagokionez, sakon errotutako informazioak topatu eta antolatu behar dira, informazio garrantzitsuari buruzko inferentziak eginez. Gogoetari dagokionez, ezagutza espezializatutik abiatuta, hipotesiak botatzea edo modu kritikoan ebaluatzea. Bi zereginetan, interpretazioa eta gogoeta egitean, edukiaren eta formaren aldetik ohikoa ez den testu bat osorik eta zehaztasunez ulertu behar da. Maila honetako zereginetan itxaropenen kontrakoak diren kontzeptuak landu behar dira.
4. maila (553 eta 626 artean)	Informazioa berreskuratzeari dagokionez, maila honetako zereginetan testuko informazio inplizituak kokatu eta ordenatu behar dira. Batzuetan, esanahi zorrotza interpretatu behar izaten da, testua osotasunean hartuta. Interpretazioko beste zeregin batzuk ulermena eta kategoriak aplikatzea dira, testuinguru ez oso ezagunean. Gogoeta arloko zereginetarako, ezagutza formalak edo publikoak erabili behar dira testu baten inguruko hipotesiak ezartzeko edo modu kritikoan ebaluatzeko. Irakurleek testu luze edo konplexuen ulermen zehatza erakutsi behar dute, testuetako edukia edo forma ezezagunak izan arren.
3. maila (480 eta 553 artean)	Irakurleak informazio jakinen arteko lotura topatzen jakin behar du, horietariko bakoitzak irizpide ugari betetzea eska dezakeela aintzat hartuta, eta zenbaitetan, hori onartuta. Interpretazioari dagokionez, testu bateko zati ugariak bateratu behar dira ideia nagusia identifikatzeko, lotura ulertzeko edo hitz edo esaldi baten esanahia ezartzeko. Alderatzeko edo kategorizatzeke ezaugarri ugari kontuan izan behar dira. Ideia nagusia ezkututzen duten garrantzirik gabeko informazioa detektatzea, baita negatiboan emandako edo esperotakoen kontrako ideiak ere. Gogoetarekin lotutako zereginetan konexioak edo alderaketak egin behar dira, azalpenak eman edo testu bateko arloren bat ebaluatu. Gogoetaren arloko zeregin batzuetan ulermen zehatza agertu behar da ohikoak edo ezagunak diren ezagutzak edo horren komunak ez diren beste batzuk oinarri gisa hartuta.
2. maila (407 eta 480 artean)	Ondoriozta daitezkeen informazio zati bat edo gehiago topatu behar dira, edo haiek topatu ahal izateko baldintza jakinak izan behar dira. Testu baten ideia nagusia ezagutzea, loturak ulertzea edo testu zati baten esanahia finkatzea informazioa ez denean nabarmenduta agertzen edo maila baxuko ondorioak atera behar direnean. Gogoetaren arloko zeregina, maila honetan, testuaren eta kanpoko ezagutzaren arteko alderaketak edo konexioak egitea da, norberaren esperientzietatik edo jarreretatik abiatuta.
1a maila (335 eta 407 artean)	Irakurleak modu esplizituan adierazitako informazio zati bat edo gehiago kokatzen badaki. Egilearen helburua edo gai nagusia ulertzen du gai ezagun bati buruzko testuan edo testuaren informazioaren eta ezagutza arrunt eta ohikoaren arteko lotura soila egiteko gai da. Irakurlea espresuki zuzentzen du zereginetako eta testuko faktore esanguratsuak aintzat har ditzan.
1b maila (262 eta 335 artean)	Azpi-maila honetan, irakurleak testu labur bateko toki aipagarri batean esplizituki zehaztutako edo testuinguru arruntean modu soilean laburtutako informazioa topa dezake narrazio batean zein zerrenda soilean. Testua, gehienetan, irakurlearentzat lagungarria da informazioa, irudiak edo ohiko ikurrak errepikatzen dituelako. Ia ez da informazio osagarririk ateratzen. Interpretazioa eskatzen duten zereginetan, irakurleak gertuko informazioen arteko lotura soilak egiteko beharra izan dezake.

Ikaslea errendimendu maila jakin batean kokatu ahal izateko, maila horri lotutako lan gehienetan behar adinako trebetasuna agertu beharko du. Maila jakin bateko ikasle guztiek maila horretako galderen erdiari gutxienez behar bezala erantzun beharko diete.

Azpieskalako errendimendu mailen deskribapena: *Informazioa jasotzea eta berreskuratzea*

6. maila (698 puntu baino gehiago)	Maila honetako informazioa mugatuta dago: item bakarra dago proban. Zereginetan, informazio independenteko sekuentzia ugariak, testu misto bateko zati ezberdinak edo sekuentzia jakin batekoak konbinatu behar dira, testuinguru ezezaguna landuta.
5. maila (626 eta 698 artean)	Irakurleak testuan esplizituki agertzen ez diren informazio zehatz ugariak kokatu eta, ziur asko, bateratu edo ordenatu beharko ditu; horietariko batzuk testuaren gorputz nagusitik kanpo egon daitezke. Zeregin horretarako testuko zein informaziok duen garrantzia ondorioztatzea. Arreta galtzea eragiten duten informazio sinesgarri edo ugarien presentzia.
4. maila (553 eta 626 artean)	Maila honetako zereginetan, testuinguru edo forma ezezaguna duen testuko irizpide ugariak bete ditzakeen informazio zehatz ugariak topatu eta, ziur asko, ordenatu edo bateratu behar ditu. Zeregin horretarako testuko zein informaziok duen garrantzia ondorioztatzea.
3. maila (480 eta 553 artean)	Irakurleak badaki informazio jakinen arteko lotura topatzen, horietariko bakoitzak irizpide ugari betetzea eska dezakeela aintzat hartuta, eta zenbaitetan, hori onartuta. Arreta galtzea eragiten duten informazio aipagarriak detektatzea.
2. maila (407 eta 480 artean)	Maila honetako zereginen artean, informazio pusketa bat edo gehiago topatu behar dira; horietariko bakoitzak irizpide ugariri erantzun diezaieke. Arreta galtzea eragiten duen informazioen bat detektatzea.
1a maila (335 eta 407 artean)	Irakurleak modu esplizituan adierazitako informazio zati independente bat edo gehiago topatzeko irizpide bakarra aintzat hartzen daki. Baliteke informazioaren helburua testuan bistakoa ez izatea, baina arreta galtzea eragiten duen informazio gutxi dago edo batere ez dago.
1b maila (262 eta 335 artean)	Informazioko pusketa erraza eta esplizitua topatzea kokapen nagusian edo testu soil batean lotura literal edo sinonimoa eginda. Lotura soilak egin ditzake gertuko informazio pusketen artean.

Azpieskalako errendimendu mailen deskribapena: *Testuaren integrazioa eta interpretazioa*

6. maila (698 puntu baino gehiago)	Maila honetako zereginetan, askotariko inferentzia, alderaketa eta konparazio zehatzak eta zehaztuak egiten jakin behar da. Testu osoaren edota atal espezifikoaren ulermen zehatza eta zehaztua erakustea. Testu bat baino gehiagotako informazioa txerta dezake. Ideia abstraktuak erabiltzen dituzte, eta distraigarriak ere badaude. Interpretazio ugarien arabera, kategoria abstraktuak sortzen ditu.
5. maila (626 eta 698 artean)	Testuaren ulermen orokorra eta zehatza erakustea eskatzen du. Hizkuntzaren ñabarduren esanahia aztertzen du. Inferentzian maila handia erabiltza, testu jakin batean sakabanatuta dauden adibideetarako irizpideak aplikatzen ditu. Testu bateko zatien arteko loturak deskribatzeko kategoriak sortzen ditu. Esperotakoen aurkakoak diren ideiekin ondo moldatzen da.
4. maila (553 eta 626 artean)	Testu batean oinarritutako inferentziak erabiltzen ditu ezagunak ez diren testuinguruetako kategoriak ulertzeko eta aplikatzeko, eta testu atal bateko esanahia aztertzen du testua bere osotasunean kontuan hartuta. Negatiboan adierazitako ideiekin eta anbiguotasunarekin behar bezala moldatzen da.
3. maila (480 eta 553 artean)	Testu bateko zati ugariak bateratzen ditu ideia nagusia identifikatzeko, lotura ulertzeko edo hitz edo esaldi baten esanahia aztertzeko. Parekatzea, alderatzea edo kategorizatzea hainbat irizpide aintzat hartuz. Ondo moldatzen da distraigarriekin.
2. maila (407 eta 480 artean)	Testu bateko ideia nagusia identifikatu, loturak ulertu, kategoria soilak osatu edo aplikatu edo testu zati baten esanahia aztertzen du informazioa ez denean nabarmenduta agertzen edo egin beharreko inferentziak txikiagoak direnean.
1a maila (335 eta 407 artean)	Gai ezagun bati buruzko testuan egileak izan duen asmoa edo gai nagusia ulertzen du informazio hori argi eta garbi zehaztuta dagoenean.
1b maila (262 eta 335 artean)	Gai ezagun bati buruzko testu labur bateko esaldia interpretatzen edo hainbat aldiz errepikatutako ideia soilak ulertzen duen edonork (seguru asko, marrazkien bidez sendotutakoa).

Azpieskalako errendimendu mailen deskribapena: *Gogoeta eta ebaluazioa*

6. maila (698 puntu baino gehiago)	Maila honetako zereginetan, gai ezezagunei buruzko testu konplexua modu kritikoan ebaluatzea edo hipotesia egitea eskatzen dute hainbat irizpide eta perspektiba aintzat hartuta eta testuaz haratago doazen interpretazio sofistikatuak eginda. Testuaren ezaugarriak ebaluatzeke kategoriak sortzea eta hartzaile jakin batzuetara egokitzea.
5. maila (626 eta 698 artean)	Irakurleak badaki testuari buruzko hipotesiak egiten ezagutza espezializatuarekin eta esperotakoan aurkakoak dituen ideiak biltzen dituzten testu luzeak eta konplexuak sakon ulertzeaz baliatuta. Modu kritikoan aztertu eta ebaluatzen ditu testuan dauden zein testuaren eta kanpoko ideien artean dauden benetako funsgabetasunak edo egon daitezkeenak.
4. maila (553 eta 626 artean)	Ezagutza formalak edo publikoak erabiltzen ditu testu baten inguruko hipotesiak ezartzeko edo modu kritikoan ebaluatzeke. Testu luzeen edo konplexuen ulerkortasun zehatza agertzen du.
3. maila (480 eta 553 artean)	Loturak edo parekatzeak egiten ditu, azalpenak ematen ditu edo testu baten ezaugarriren bat ebaluatzen du. Esperientzia eta jarrera pertsonalak erabiltza, testu ezagunekin lotutako ulermen zehatza erakusten du.
2. maila (407 eta 480 artean)	Testuaren eta aurretiazko ezagutzen arteko konparazioak edo loturak egiten ditu, edo testuaren ezaugarria azaltzen du bere esperientziaz edo jarrera pertsonaletatik abiatuta.
1a maila (335 eta 407 artean)	Testuko informazioaren eta ezagutza komunaren eta egunerokoaren artean konexio erraza egiten du.
1b maila (262 eta 335 artean)	Ez dago nahikoa datu, maila honetarako ez baitago itemik.

Hurrengo taula honetan ageri dira errendimenduko maila bakoitzarekin lotura duten lanak testuen formatuaren (jarraitua eta etena) arabera; horrez gain, maila bakoitzean kokatzeko beharrezkoa den puntuazioa ere ikus daiteke.

Testu jarraitua azpieskalako errendimendu mailen deskribapena

6. maila (698 puntu baino gehiago)	Testu soilak eta konplexuak kudeatzen ditu eta horiek luzeak, trinkoak edo esanahi inplizituak dituzten edo abstraktuak diren testu erlazionatuak izan daitezke. Testuen informazioa ideia konplexu ugariarekin eta intuizioaren aurkakoekin lotzen du.
5. maila (626 eta 698 artean)	Diskurtso-egitura bistakoa ez den edo argi eta garbi markatuta ez duten testuak negoziatzen ditu testuko zati jakin batzuek haren gaiarekin edo asmoarekin dituzten loturak bereizi ahal izateko.
4. maila (553 eta 626 artean)	Paragrafo ugarietako lotura linguistikoei edo tematikoei jarraitzeke gai da (batzuetan, diskurtsoan markagailu argirik izan gabe) informazio inplizitua topatu, interpretatu edo ebaluatu ahal izateko.
3. maila (480 eta 553 artean)	Konbentzionalismoak erabiltzen ditu testuak antolatzeke eta esplizituki edo inplizituki azaltzen diren lotura logikoez baliatzen da (kausa-efektuaren loturak, adibidez) esaldi edo paragrafoetan informazioa topatzeko, interpretatzeko edo ebaluatzeke.
2. maila (407 eta 480 artean)	Paragrafo baitako konexio logikoak eta linguistikoak erabiltzen ditu informazioa aurkitzeke edo interpretatzeko. Testu osoko informazioa edo haren zatiak laburtzen ditu egilearen helburua ondorioztatzeko.
1a maila (335 eta 407 artean)	Erredundantzia, paragrafoko goiburuak edo inpresio motak erabiltzen ditu testuko ideia nagusia identifikatzeko edo testuaren atal jakin batean esplizituki zehaztuta dagoen informazioa topatzeko.
1b maila (262 eta 335 artean)	Testu laburretako eta sintaktikoki soilak direnetako informazioa jasotzen du testuinguru ezagunean eta ahozko sarreraren edo marrazkien bidez sendotutako ideiak biltzen dituen ereduizko testuan.

Testu etena azpieskalako errendimendu mailen deskribapena

6. maila (698 puntu baino gehiago)	Eduki ezezaguneko dokumentu konplexu bateko zati desberdinetako informazioa identifikatzen eta bateratzen du. Batzuetan, azaldutakoaren kanpoko ezaugarriei balia ematen da: orri-oinak, etiketak edo beste antolatzaile batzuk. Testuaren egituraren eta haren inplikazioen inguruko gehieneko ulermena erakusten du.
5. maila (626 eta 698 artean)	Luzea eta zehaztutakoa izan daitezkeen diskurtsoan aurkeztutako informazioak edo ereduak identifikatzen ditu. Batzuetan, testuan edo handik kanpo ustekabeaz azaltzen den informazioa aipatzen du.
4. maila (553 eta 626 artean)	Testu luzea eta zehaztua aztertzen du informazio aipagarria bilatzeko eta konparatu edo bateratu daitezkeen informazioak aurkitzeko; askotan, antolatzaileen laguntza gutxiarekin edo laguntzarik gabe egiten du (etiketak edo formatu bereziak, adibidez).
3. maila (480 eta 553 artean)	Diskurtsoa segundo baten baitan, bereizitako dokumentuan edo esposizioan aztertzen du (seguru asko, formatu ezberdinetan), edo ondorioak ateratzeko gai da informazio grafikoak, ahazkoak edo numerikoak bateratuta.
2. maila (407 eta 480 artean)	Azalpen bisual baten baitan dagoen egitura ulertzen duela erakusten du (zuhaitz edo taula motako diagrama soilean, adibidez) edo grafiko eta taula bateko bi informazio konbinatzen ditu.
1a maila (335 eta 407 artean)	Bereizitako informazioetan oinarritzen da; gehienetan, diskurtso soilaren baitan egiten du: mapa soila, diagrama lineala edo barra-diagrama. Kasu horretan, informazioaren zati txikia erakusten du zuzenean eta, bertan, testuaren zatirik handiena hitz edo esaldi gutxi batzuetan soilik azaltzen da.
1b maila (262 eta 335 artean)	Ez dago nahikoa datu, maila honek 2 item soilik baititu. Testu labur bateko informazioa zerrenda soil bateko eta formatu ezaguneko egiturarekin identifikatzen du.



2.

PISA PROIEKTUAREN IRAKURMENEKO ITEMEN ADIBIDEAK

2.1. IRAKURMENEKO ITEMAK. PISA 2009

PISA 2009ko Irakurmeneko itemak, errendimendu mailaren arabera

Maila	Beheko puntuazioa	Itemak
6	698	<i>ANTZERKIA DA KONTUA</i> . 1. itema (730). ★
5	626	
4	553	<i>TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA</i> . 2. itema (604). ★ <i>GLOBOA</i> . 2a. itema (595). ◇ <i>TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA</i> . 1. itema (561). ★ <i>ANTZERKIA DA KONTUA</i> . 3. itema (556). ★
3	480	<i>ZEKENA ETA HAREN URREA</i> . 3. itema (548). ◇ <i>TELELANA</i> . 1. itema (537). ★ <i>TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA</i> . 3. itema (526). ★ <i>TELELANA</i> . 2. itema (514). ★ <i>GLOBOA</i> . 3. itema (510). ◇ <i>TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA</i> . 4. itema (488). ★
2	407	<i>ANTZERKIA DA KONTUA</i> . 2. itema (474). ★ <i>GLOBOA</i> . 2b. itema (449). ◇ <i>ODOL IRAGARKIA</i> . 1. itema (438). ◇ <i>GLOBOA</i> . 4. itema (411). ◇
1a	335	<i>HORTZAK GARBITZEN</i> . 4. itema (399). ◇ <i>ZEKENA ETA HAREN URREA</i> . 1. itema (373). ◇ <i>GLOBOA</i> . 1. itema (370). ◇ <i>ODOL IRAGARKIA</i> . 2. itema (368). ◇ <i>HORTZAK GARBITZEN</i> . 2. itema (358). ◇ <i>HORTZAK GARBITZEN</i> . 1. itema (353). ◇
1b	262	<i>ZEKENA ETA HAREN URREA</i> . 2. itema (310). ◇ <i>HORTZAK GARBITZEN</i> . 3. itema (285). ◇

Goiko taulan adierazten diren itemak bi taldetan bereizten dira: alde batetik, batzuk 2009ko ebaluazioan aplikatu ziren (★ ikurrarekin identifikatzen dira). Horiei buruz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen erantzun zuzenen ehunekoa azaltzen da item bakoitzari dagokion analisian. Beste aldetik, item batzuk proba pilotuan aplikatu ziren bakarrik (◇ ikurrarekin identifikatzen dira), baina ez ziren erabili 2009ko ebaluazioan. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen emaitzei buruz ez daude daturik.

Item bakoitzaren amaieran, parentesi artean, ELGA-OECDko itemaren batezbesteko puntuazioa adierazten da.

PISAren item liberatuak gazteleraz ikus daitezke IEko (Instituto de Evaluación) webgunean: <http://www.institutoodeevaluacion.educacion.es>


Ingeleseko jatorrizko itemak PISAko webgunean eskura daitezke: <http://www.pisa.oecd.org>. Azken honetan ordenagailuen bidez ebaluatu diren irakurketako hainbat item ere eskuragai daude, ERA (Electronic Reading Assessment) deituriko proiektuan sartzen direnak.

HORTZAK GARBITZEN

Gure hortzak zenbat eta luzaroago eta indartsuago eskuilatu, orduan eta garbiago egoten al dira hortzak?

Britainiako ikerlariek ezetz diote. Hainbat alternatibarekin proba egin ostean, hortzak garbitzeko modurik egokiena zein den ondorioztatu dute. Bi minutuz eskuilatzeak, gogorregi egin gabe, ematen du emaitzarik onena. Gogorregi garbituz gero, hortzetako esmaltea eta entziak kaltetuko dituzu eta janari hondarrak edo plakak ez dituzu askatuko.

Bente Hansenek, hortzak garbitzen aditua denak, hortzetako eskuila boligrafoa eusten dugun moduan hartzea ideia ona dela dio. *“Izkina batetik hasi eta lerro osoan aurrera egin”*, esan du. *“Ez ahaztu mingaina!”* Usain txarra eragin dezaketen bakterio mordoa izan dezake.



“Hortzak garbitzen” Norvegiako aldizkari bateko artikulua da.

Erabili goian agertzen den “Hortzak garbitzen” artikulua ondorengo galderei erantzuteko:

1. galdera: HORTZAK GARBITZEN

Zeri buruzkoa da artikulua?

- A. Hortzak garbitzeko modurik onena.
- B. Erabiltzeko hortzetako eskuila motarik onena.
- C. Hortz onak izateak duen garrantzia.
- D. Jendearen hortzak garbitzeko modu desberdinak.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua osatzea eta interpretatzea: ulerkuntza globala lortzea.
Itemaren helburua: Ideia nagusia identifikatzea deskripziozko testu labur batean.
Testuaren formatua: Jarraitua (deskripziozko testua), irudi batekin.
Testu mota: Aurkezpena.
Testuingurua: Hezkuntzakoa.
Galderaren formatua: Aukera anitzekoa.
Zailtasun-maila: 353 (1a maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Hortzak garbitzeko modurik onena.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Jarduera honetan irakurleak deskripziozko testu labur baten ideia nagusia identifikatu behar du. Gainera, testua ohiko gai baten ingurukoa da, hortzak garbitzeari buruzkoa, hain zuzen. Hizkuntza erabat idiomatikoa da (*“usain txarra”, “bakteria mordoa”*) eta paragrafo laburrek eta egitura sintaktiko ezagunek osatzen dute testua, sarrera sinpleak eta irudi batek lagunduta. Ezaugarri horiek guztiek testua oso eskuragarri bihurtzen dute.

Itema zailtasunaren 1. mailako behealdean kokatzen da, PISA irakurketaren galdera errazenen artean. Ikasleak erantzun orokor bat bilatu behar du. Erantzun zuzeneko hitzen artean (*“Hortzak garbitzeko modurik onena”*) izenburuan dituzten hitzak agertzen dira (*“Hortzak garbitzen”*). Beraz, ikasleak badaki izenburuak testuaren esanahia laburbildu ohi duela, izenburura joatearekin nahikoa izan du erantzun zuzena aurkitzeko. Testua ideia nagusia agertzen eta errepikatzen da eta, gainera, baita irudia ere lagungarria da. Horrela, testuak errazak izaten diren ezaugarri guztiak ditu.

2. galdera: HORTZAK GARBITZEN

Zer gomendatzen dute ikerlari britainiarrek?

- A. Hortzak ahal bezainbeste aldiz garbitzea.
- B. Mingaina ez garbitzen saiatzea.
- C. Hortzak gogorregi ez garbitzea.
- D. Mingaina hortzak baino maizago garbitzea.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Aurkitzea eta eskuratzeta: Informazioa lortzea.
Itemaren helburua: Elkarrekikotasun antzekoa topatzea deskripziozko testu labur batean.
Testuaren formatua: Jarraitua (deskripziozko testua), irudi batekin.
Testu mota: Aurkezpena.
Testuingurua: Hezkuntzakoa.
Galderaren formatua: Aukera anitzekoa.
Zailtasun-maila: 358 (1a maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Hortzak gogorregi ez garbitzea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Item hau 1a mailan kokatzen da, irakurleari testutik informazio zehatza lortzea eskatzen baitio (aurreko galderak bezala). Itema “aurkitu eta eskuratu” modukoa sailkatzen da; izan ere, bigarren pasartera zuzentzen dio irakurleari, bertan “*ikerkeri britaniarrek*” aurkitzen da eta. Hala ere, sintesia eta inferentzia ere exijitzen ditu bi ideia ulertzeko: bata “*ikerkeri britaniarrek*” esamoldeak informazio egokia ematen duela eta, bestea, “*ematen du emaitzarik onena*” “*gomendatzen dute*” hitzekin lotzen dela. Erantzuteko distraktorerik eraginkorra lehena da: “*Hortzak ahal bezainbeste aldiz garbitzea*”; izan ere, seguruenik alde zuzeneko erantzunak akats orokor horretan jaustea erraza da.

3. galdera: HORTZAK GARBITZEN

Zergatik garbitu beharko zenuke mingaina eskuilarekin, Bente Hansenen arabera?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Aurkitzea eta eskuratzea: Informazioa lortzea.
Itemaren helburua: Informazioa lortzea deskripziozko testu labur batean.
Testuaren formatua: Jarraitua (deskripziozko testua), irudi batekin.
Testu mota: Aurkezpena.
Testuingurua: Hezkuntzakoa.
Galderaren formatua: Erantzun laburrekoa.
Zailtasun-maila: 285 (1b maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzuna bakteriei EDO usain txarra desagerrarazteari EDO aurreko biei dagokio. Erantzunak testua parafrasea dezake edo zuzenean aipatu.

- Bakteriak deuseztatzeke.
- Zure mihiak bakteriak izan ditzake.
- Bakteriak.
- Usain txarra saihesten dezakezulako.
- Usain txarra.
- Bakteriak kentzeko eta, beraz, usain txarra ez izateko. [Biak].
- Izatez, berak milaka bakterio eduki ditzake eta horiek kiratsa sorrarazten dute. [Biak].
- Bakteriek usain txarra sor dezakete.

Punturik ez

0 kodea: Erantzuna ez da nahikoa edo zehatz gabekoa da.
 Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Eskuilatu behar duzu boligrafoa eusten duzun bezala.
- Ez eskuilatu gogorregi.
- Ez ahazteko.
- Janariaren hondarrak kentzeko.
- Plaka kentzeko.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galderak berak bi kontzeptu baditu, literalki erabil daitezkeenak, testuaren pasartea aurkitzeko: “*Bente Hansen*” eta “*mingaina*”. Gainera, “*Bente Hansen*” lehenetsuneko kokapenean agertzen da, azken paragrafoaren hasieran. Paragrafo horretan “*mingaina*” ere nabaritzen da, are klabe zehatzagoa emanez galdetzen den informazioaren leku doia aurkitu ahal izateko. Gainera, kontzeptu horiek behin baino ez dira azaltzen testuan zehar; beraz, irakurleak ez du beste informaziorik kontuan izan behar, pasarte horretan agertzen dena baino.

Zailtasun maila 1b mailan zehaztu da. Hortaz, PISA 2009 irakurketaren ebaluazioko galdera errazenetakoa da. Hala ere, inferentzia maila baxua eskatzen du, irakurleak azken esaldian “*usain*”

txarra” aurreko “mingainarekin” lotu behar duelako. Zailtasuna igo dezake beste ezaugarri bat da galderaren xedea apur bat abstraktua dela: irakurleari kausa bat identifikatzeko eskatzen zaio (“Zergatik”). Finean, 1b mailan ondo aritzen diren ikasleek erakutsi duten ulermena bat dator PISAren irakurmenaren definizioarekin.

4. galdera: HORTZAK GARBITZEN

Zergatik aipatzen du boligrafoa testuan?

- A Hortzetako eskuila nola eutsi ulertzen laguntzeko.
- B Boligrafoaren zein hortzetako eskuilaren kausan, izkina batetik hasi behar duzulako.
- C Hortzak hainbat modutan garbi ditzakezula erakusteko.
- D. Hortzak garbitzea idaztea bezain garrantzitsua izan beharko litzatekeelako.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: Testu baten formaz gogoeta egitea eta ebaluatzea.

Itemaren helburua: Analogia baten helburua identifikatzea testu labur batean.

Testuaren formatua: Jarraitua (deskripziozko testua), irudi batekin.

Testu mota: Aurkezpena.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Aukera anitzekoa.

Zailtasun-maila: 399 (1a maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Hortzetako eskuila nola eutsi ulertzen laguntzeko.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Unitate honetako azken ataza zailtasunaren 1a mailako ia goialdean kokatzen da. *Hausnartu eta ebaluatu* dagozkio, testutik urruntzea eta zati baten intentzio balioestea eskatzen baititu. Nahiz eta testua neurri batean abstraktua den, unitateko besteekin konparatuz gero, galderaren enuntziatua zein gakoa lagungarriak dira erantzuteko. Galderak “*boligrafoari*” egiten dio erreferentziak hirugarren paragrafoa abiarazten dio irakurleari. Gakoa lotzen da zuzenean testuaren zati esanguratsuarekin, hots: “*Nola hartu hortzetako eskuila?*” eta “*eskuila boligrafoa eusten dugun moduan hartzea*”, hurrenez hurren. Ataza irakurleak analogia antzematean datza, baina pentsaera analogikoa, berriz, testuan inplizitua da: “*hortzetako eskuila boligrafoa eusten dugun moduan hartzea*”. Testuaren eduki ezaguna eta laburra izateak laguntzen du azaltzen zergatik galdera hau izan den erraza, abstraktua bada ere. Galdera izan da unitatearen zailena.

TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

Arriskutsuak al dira telefono mugikorrak?

Gakoa

Telefono mugikorrek osasunerako dituzten arriskuen inguruko txosten eztabaidagarriak 90eko hamarkadaren amaieran agertu ziren.

Gakoa

Orain arte, milioika euroko inbertsioa egin dute ikerketa zientifikoetan telefono mugikorren eraginak aztertzeke.

Bai	Ez
1. Telefono mugikorrek igortzen dituzten irrati-uhinek gorputzeko ehunak bero ditzakete, ondorio kaltegarriak eraginez.	Irrati-uhinek ez dute beroaren bidez gorputzari kalte egiteko gaitasun nahikorik.
2. Telefono mugikorrek sortzen dituzten eremu magnetikoek gure gorputzeko zelulen funtzionamenduan eragina izan dezakete.	Eremu magnetikoak oso ahulak dira ; beraz, arraroa da gure gorputzeko zeluletan eragina izatea.
3. Telefono mugikorren bidezko dei luzeak egiten dituztenak nekeaz, buruko minaz eta kontzentrazio galeraz kexatzen dira, batzuetan.	Efektu horiek ez dituzte sekula ikusi laborategiko ikerketetan, eta bizimodu modernoetako beste faktore batzuen ondorio izan daitezke.
4. Telefono mugikorren erabiltzaileek 2,5 aldiz probabilitate handiagoa dute minbizia garatzeko telefonoko belarrietatik gertu dauden garuneko eremuetan.	Ikerlariak onartu dutenez, ez dago argi igoera horiek telefono mugikorren erabilerarekin loturarik duten.
5. Minbiziaren Ikerketako Nazioarteko Agentziak lotura topatu du haurtzaroko minbiziaren eta linea elektrikoen artean. Telefono mugikorrek bezalaxe, linea elektrikoen ere erradiazioak igortzen dituzte.	Linea elektrikoen sortzen duten erradiazioa ezberdina da; telefono mugikorretatik ateratzen den energia baino indartsuagoa da.
6. Telefono mugikorren antzekoak diren erradiofrekuentzia uhinek nematodo zizareen gene adierazpena aldatu dute.	Zizareak ez dira gizakiak; beraz, ez dago inolako ziurtasunik adierazteko gure garuneko zelulek modu berean erreakzionatzen dutela.

Gakoa

Telefono mugikorren erabiltzaile kopuru erraldoia kontuan izanda, osasuneko ondorio negatiborik txikienez ere osasun publikoko ondorio handiak izango lituzkete.

Gakoa

2000. urtean, Stewart txostenak (Britainiako txosten bat) ez zuen topatu telefono mugikorrek eragindako osasun arazo ezagunik, baina, batez ere gazteen artean, arreta aholkatu zuen ikerketa gehiago egin arte. 2004an egin zuten txosten berriak ondorio horiek egiaztatu zituen.

Telefono mugikorra erabiltzen baduzu...

Egin	Ez egin
Dei laburrak egin.	Ez erabili mugikorra harrera ahula denean, telefonoak indar gehiago behar baitu oinarritzko estazioarekin komunikatzeko eta, hori dela eta, irrati-uhin igorpenak gogorragoak dira.
Eraman mugikorra zure gorputzetik urrun piztuta dagoenean.	Ez erosi «XIE» ¹ balio altua duen telefono mugikorrik. Horrek esan nahi du, erradiazio gehiago igortzen duela.
Erosi «autonomia luzeko mugikorra». Eragingarriagoa da, eta indar igorpen gutxiago du.	Ez erosi erakunde independente batek probatu ez duen babeserako aparatuturik.

¹ XIE (xurgapen indize espezifiko) indize honek neurtzen du gorputzeko ehunek, mugikorra erabiltzen ari garen bitartean, zenbaterainoko erradiazio elektromagnetikoa xurgatzen duten.

Aurreko bi orrialdeetako “Telefono Mugikorren Segurtasuna” webgune batetako da.

Erabili “Telefono Mugikorren Segurtasuna” ondoko galdera hauek erantzuteko.

1. galdera: TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

Zein da **Gakoen** helburua?

- A. Telefono mugikorrak erabiltzearen arriskuak deskribatzea.
- B. Telefono mugikorren segurtasunaren inguruko eztabaidak jarraitzen duela adieraztea.
- C. Telefono mugikorrak erabiltzen dituzten pertsonak hartu beharko lituzketen arretak deskribatzea.
- D. Telefono mugikorrekin eragindako osasun arazo ezagunak ez dagoela adieraztea.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua osatzea eta interpretatzea: Ulerkuntza globala lortzea.
Itemaren helburua: Azalpenezko testu bateko zati baten (taula bat) helburua identifikatzea.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Azalpena.
Testuingurua: Publikoa.
Galderaren formatua: Aukera anitzekoa.
Zailtasun-maila: 561 (4 maila).
 Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %48,9.

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Telefono mugikorren segurtasunaren inguruko eztabaidak jarraitzen duela adieraztea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Integratu eta interpretatu dimentsioaren barruan, ulermen zabala behar den ataza bezala sailkatuta dago. Jarduera hau gaia antzematera zuzentzen da, informazioaren kategoria zehatza errepikatuz, kasu honetan “Gakoak”. Oro har, ulermen zabaleko esparruan sartzen diren atazak erraz samarrak izaten dira; testuaren ideia errepikatuetan eta nabarmenetan jartzen dute arreta.

Dena delakoa, 4. mailari dagokionez, testuaren eta atazaren ezaugarri batzuek elkarri eragiten diote zailago bihurtuz. Lau gakoek lau gai desberdinei buruz ematen dute informazioa. Lotuta daude, baina ez dute laburbiltzen bi taula nagusietako informazioa; horrela, irakurleak arreta jarri behar dio testuaren egiturako periferian agertzen denari. Gainera, anbiguitasunak, zalantzek eta elkarren kontra adierazitako ideiek ataza are zailago bihurtzen dute. A eta C aukerek gakoaren zehazkizun desberdinak islatzen dituzte, baina ideia zehatz batek ere ez du interpretazio orokorra ahalbidetzen. D aukerak, bestetik, laugarren gaketik esaldi bat ateratzen du testuingurutik kanpo. Soilik B aukeraren esaldiak gakoaren osagai heterogeneoak biltzen ditu. Erantzun hori OECD-ELGAko ikasleen %45ek aukeratu dute.

2. galdera: TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

“Zaila da frogatzea gauza batek zalantzarik gabe bestea eragin duela”.

Zein da aurreko esaldi honek 4. puntuko informazioarekiko (**Bai** eta **Ez** adierazpenak, **Arriskutsuak al dira telefono mugikorrak?** taulan agertzen direnak) duen lotura?

- A. Baiezko argudioa babesten du, baina ez du frogatzen.
- B. Baiezko argudioa frogatzen du.
- C. Ezezko argudioa babesten du, baina ez du frogatzen.
- D. Ezezko argudioa okerrekoa dela erakusten du.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testu baten edukiaren inguruan gogoeta egitea eta balioestea.

Itemaren helburua: Testutik kanpo dagoen baieztapen orokor baten eta taula bateko bi baieztapenen arteko lotura identifikatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpena.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Aukera anitzekoa.

Zailtasun-maila: 604 (4 maila).

Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %28,7.

698	6 maila
	5 maila
626	4 maila
553	3 maila
480	2 maila
407	1a maila
335	1b maila
262	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Ezezko argudioa babesten du, baina ez du frogatzen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ataza honek irakurleari eskatzen dio testutik kanpo dagoen baieztapen orokor baten eta taula bateko bi baieztapenen arteko lotura identifikatzea. *Hausnartu eta ebaluatu* dimentsioaren barruan sailkatzen da ebaluatzen duen gaitasunagatik, kanpoko puntu bati baitagokio. Horixe da maila goreneko ataza, 4. eta 5. mailen artean kokatuta izanik. Zailtasun-mailan hainbat faktorek eragiten dute; ondoan adierazten dira. Lehena, enuntziatua hitz abstraktuak erabili dira (*“Zaila da frogatzea gauza batek zailtzarrik gabe bestea eragin duela”*). Bigarrena, testuan zati nahikoa erraza dagoen arren, irakurleak jakin behar du bi tauletatik zein balio duen atazarentzat (lehena) eta zein puntutan jarri behar duen arreta (4. puntua). Hirugarrena, irakurleak taula garrantzitsuaren egitura antzeman behar du eta, ondoren, bereizi behar ditu zehaztasunez *“Ez”* duten enuntziatuetatik zeinek desafiatzen duen *“Ba”* duen enuntziatua, kasu partikular batean. Azkena, berriro maila abstraktu batean, 4. puntuko *“Ba”* eta *“Ez”* enuntziatuen arteko lotura aurkitu behar da, aukera anitzeko formatua duen ataza bateko aukeretako baten bidez. Beraz, ez da harritzekoa bakarrik OECD-ELGAko ikasleen laurdenak baino apur bat gehiagok puntuatzen lortu duela galdera honetan.

3. galdera: TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

Begiratu taulako **EZ** zutabearen agertzen den 3. puntuari. Testuinguru horretan, zein izan daiteke *“beste faktore”* horietako bat? Arrazoitu zure erantzuna.

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testu baten edukiaren inguruan gogoeta egitea eta balioestea.
Itemaren helburua: Aurretiko ezagutzez baliatzea testu baten aurkezten den informazioaren inguruan gogoeta egiteko.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Azalpena.
Testuingurua: Publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.
Zailtasun-maila: 526 (3 maila).
 Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %53,4.

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Nekearekin, buruko minekin edo kontzentrazio galerekin lotura izan dezakeen bizimodu modernoko faktoreren bat identifikatu du. Azalpena erdi begi-bistakoa izan edo bertan ager daiteke.

- Nahikoa lo ez egitea. Egiten ez baduzu, nekatuko egongo zara.
- Lanpetuegi egotea. Horrek nekarazi egiten gaitu.

- Etxeko lan gehiegik nekarazi egiten zaituzte ETA buruko mina eragiten dizute.
- Zarata (horrek buruko mina eragiten du).
- Estresa.
- Berandu arte lan egitea.
- Azterketak.
- Mundua da, benetan, zaratatsuegia.
- Jendeak ez du dagoeneko denborarik hartzen lasaitzeko.
- Jendeak ez ditu gauzen lehentasunak zehazten; horregatik gaixotzen eta marmarti bihurtzen dira.
- Ordenagailuak.
- Kutsadura.
- Telebista gehiegi ikustea.
- Drogak.
- Mikrouhin labeak.
- E-maila gehiegi bidaltzea.

Punturik ez

0 kodea: Erantzuna ez da nahikoa edo zehatz gabekoa da:

- Fatiga. [Testuko informazioa errepikatu du].
- Nekea. [Testuko informazioa errepikatu du].
- Kontzentrazio galera. [Testuko informazioa errepikatu du].
- Buruko minak. [Testuko informazioa errepikatu du].
- Bizimodua. [Nahasia].

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinetsgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Belarriko mina.
- Arrautzontziak.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Jarduera honetan irakurleak testu baten edukia *hausnartu eta ebaluatu* behar ditu. Ikasleak adibide bat adierazi behar du, berezko esperientziatik ateratakoa. Orain irakurleak jarraitu behar dituen urratsak aurreko atazakoak baino sinpleagoak dira; izan ere, 3. puntuko “Ba” zatia baino bakarrik kontuan izan behar du. Gainera, eskatzen zaiona esperientzia pertsonalekin lotuta dago zuzenean, adierazpen logiko-abstraktu batekin baino gehiago.

Ataza honetan gehienezko puntuazioa ematen zaio mota askotako erantzunei; hau da, faktore bat aipatzeagatik eta azaltzeagatik zergatik sorraraz ditzakeen nekea, burukomina eta kontzentrazioa galtzea. Ataza 3. mailako goialdean dago ia eta egoki erantzun zion OECD-ELGAko ikasleen erdiak baino apur bat gehiagok

4. galdera: TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

Begiratu ondorengo izenburua duen taulari: **Telefono mugikorra erabiltzen baduzu...**
Ondorengo zein ideiatan dago taula oinarrituta?

- A. Telefono mugikorrak erabiltzeak ez du arriskurik sortzen.
- B. Telefono mugikorrak erabiltzeak arriskuak sortzen dituen frogak daude.
- C. Telefono mugikorrak erabiltzeak arriskuak eragiten dituela edo ez dituela eragiten ez dago argi, baina komeni da kontuz ibiltzea.
- D. Telefono mugikorrak erabiltzeak arriskuak eragiten dituela edo ez dituela eragiten ez dago argi, baina ez genituzke erabili beharko ziur jakin arte.
- E. **Egin** atalean agertzen diren jarraibideak arriskua serio hartzen dutenentzat dira; **Ez egin** zatiko argibideak, aldiz, gainerako guztientzat dira.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: Interpretazio bat sortzea.
Itemaren helburua: Hipotesi bat identifikatzea azalpenezko testu batean.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Azalpena.
Testuingurua: Publikoa.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.
Zailtasun-maila: 488 (3 maila).
Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %65,5.

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Telefono mugikorrak erabiltzeak arriskuak eragiten dituela edo ez dituela eragiten ez dago argi, baina komeni da kontuz ibiltzea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.


Analisia

Item honetan esplizituki ikasleari eskatzen zaio bigarren taula aztertzeko eta bertan agertzen den suposizioa identifikatzeko. Suposizioa azken puntu gakoan nabaritzen da, ondokoa adieraziz: telefono mugikorren arriskuaz ebidentzia nahikorik ez dagoenez, kontuz erabiltzeko aholkatzen da. Puntu gakoan edukietatik atera daiteke adierazpen hori. Beraz, ikasleak ideia horretatik ondorioak deduzitu behar ditu. Beste alde batetik, irakurleak taula kontsulta dezake, besterik gabe, eta berezko ondorioa atera.

GLOBOA

Altuera errekorra aire beroko globoetan

Vijaypat Singhanian pilotu indiarrek aire beroko globoen altuera errekorra apurtu zuen 2005eko azaroaren 26an Itsasoko mailarekiko 21.000 metrora globoa hegan eraman zuen lehen pertsona izan zen.



Aurreko orrian agertzen den "Globo" testua erabiliz, erantzun ondorengo galderei:

1. galdera: GLOBOA

Zein da testu horren ideia nagusia?

- A. Singhania arriskuan egon zen globoz egin zuen bidaian.
- B. Singhaniak munduko errekor berria ezarri zuen.
- C. Singhaniak itsasoaren eta lurraren gainetik egin zuen bidaia.
- D. Singhaniaren globoa erraldoia zen.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: Interpretazio bat sortzea.

Itemaren helburua: Ideia nagusia identifikatzea deskripziozko testu grafiko batean.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Deskribapena.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

Zailtasun-maila: 370 (1a maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Singhaniak munduko errekor berria ezarri zuen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Testu ez-jarraitu honen ideia nagusia zenbait aldiz aurkezten da esplizituki, besteak beste izenburuan bertan: “*Altuera errekorra aire beroko globoetan*”. Beraz, testuan agertzen diren errepikapen horiek ataza oso erraza izaten laguntzen dute; zailtasun-maila 1a mailaren erdiaren azpitik kokatzen da.

Idea nagusia agerian badago ere, galdera “*integratu eta interpretatu*” modukoa sailkatzen da, *ulermen zabala* lortzearen azpi-kategorian hain zuzen, jarduerak testuaren informazioa esanguratsuen eta orokorrena bereiztea eskatzen duelako. Erantzuteko hirugarren aukerak –“*Singhaniak itsasoaren eta lurraren gainetik egin zuen bidaia*”– testuaren informazioa errepikatzen du, baina ideia nagusia baino gehiago zehazkizun bat adierazten du. Laugarren aukera –“*Singhaniaren globoa erraldoia zen*”– testuaren ezaugarri grafiko bati dagokio, baina, berriz, ez da ideia nagusia. Lehenengo aukera –“*Singhania arriskuan egon zen globoz egin zuen bidaian*”– espekulazio sinesgarria da, baina ez da testuaren elementu batean ere oinarritzen eta, hortaz, ezin da ideia nagusitzat kontuan hartu.

2. galdera: GLOBOA

Vijaypat Singhaniak beste bi garraio mota horietan topa dezakegun teknologia erabili zuen. Zein garraio mota?

1.
2.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Aurkitzea eta eskuratzea: Informazioa lortzea.
Itemaren helburua: Agerian dauden bi datu aurkitzea deskripziozko testu grafiko batean.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Deskribapena.
Testuingurua: Hezkuntzakoa.
Galderaren formatua: Erantzun laburrekoa.
Zailtasun-maila: Gehienezko puntuazioa 595 (4 maila).
 Puntuazio partziala 449 (2. maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: BIAK aipatzen ditu: hegazkinak ETA espazio-ontziak (edozein ordenatan). [Erantzun biak lerro berean egon daitezke].

- 1. Abioia. 2. Espazio-ontzia.
- 1. Hegazkinak. 2. Espazio-ontziak.
- 1. Aire-garraibidea. 2. Espazio-garraibidea.
- 1. Jumboak. 2. Kohete espazialak.
- 1. Erreaktoreak. 2. Koheteak.

Puntuazio partziala

1 kodea: BAKARRIK hegazkinak EDO espazio-ontziak aipatzen ditu.

- Espazio-ontzia.
- Espazio-garraibidea.
- Kohete espaziala.
- Koheteak.
- Aeroplanoa.
- Hegazkina.
- Aire-garraibidea.
- Jumboak.
- Erreaktoreak.

Punturik ez

0 kodea: Erantzuna ez da nahikoa edo zehatz gabekoa da:

- Globo gidagarriak.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Espazio-jantziak. *[Ez da garraibide mota bat]*.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Item honetan gehienezko puntuazio eman zaie bi garraibide mota zerrendatu dituzten ikasleei. Aldiz, kreditu partziala jaso dute garraibide mota bakarrekoa eman dutenek. Goian aipatzen diren puntuazio-arauek erakusten dute “*hegazkina*” eta “*espazio-garraibidea*” eratako hitzak dituzten parafraiei ere puntuazioa eman zaiela.

Puntuazio partziala 2. mailako goi erdialdean kokatzen da eta puntuazio osoa 4. eta 5. mailen arteko muga. Azken horrek adierazten du *sartzea* eta *berreskuratzea* motatako galderak zailak izan daitezkeela. Atazaren zailtasunean testuaren ezaugarri batzuek eragiten dute bereziki. Banaketa, grafiko mota desberdinekin eta era askotako tituluekin, aurkezpen ez-jarraitu mota nahikoa arrunta da, eta sarritan aldizkarietan eta testu liburuetan aurkitzen da. Hala ere, testuaren egitura ez da konbentzionala, grafiko edo taula batekin konparatzen bada, eta informazio zehatza duten testuaren zatiak aurkitzea ez da batere erraza. Izenburuek (“*ehuna*”, “*altura errekorra*”, etab.) irakurleari laguntzen diote testuan zehar nabigatzen, baina jarduerak eskatzen duen informazioa ez dago izenburu batean; hortaz, irakurleak informazio esanguratsua berez kategorizatu behar du, berak bilatu nahi duen moduan. Eskatzen den informazioa bilatuta –diagramako ezkerreko aldean kokatuta–, irakurleak antzeman behar du “*aluminiozko egitura*, *hegazkinetan bezala*” eta “*espazioko trajea*” garraibide kategoriarekin lotuta daudela. Galdera honetan puntuazioa lortze aldera, erantzuna erreferentzia egin behar dio garraibide motari edo moteei, testuaren zati bat idatzi baino. Horrela, “*espazio bidaiak*” puntuatzen du, baina “*espazioko trajeak*” ez. Testuaren informazioaren zati nabarmen batek zailtasun handiago du: ikasle batzuek “*jumbo jet*” aipatu dute erantzunetan. Nahiz eta “*aire-garraibideak*”, “*hegazkinak*” edo “*erreaktoreak*” puntuazioa duten, uste izan da “*jumbo jet*” diagramako eskuinaldeko irudiari eta izenburuari dagokiela. Beraz, erantzun horrek ez du puntuaziorik jaso; izan ere, adierazpen hori ez dago sartuta Shingania globoak erabilitako teknologiar dagokion testuan.

3. galdera: GLOBOA

Zein helbururekin sartu dute jumbo jet baten irudia testuan?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: Testu baten edukiaz gogoeta egitea eta ebaluatzea.

Itemaren helburua: Irudi baten helburua identifikatzea deskripziozko testu grafiko batean.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Deskribapena.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

Zailtasun-maila: 510 (3 maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Altuerari dagokio. Jumbo eta globoaren artean konparazioa egin dezake.

- Zein altuerara heldu zen globoa erakusteko.
- Globoa oso-oso gora heldu zela azpimarratzeko.
- Zein itzelezko errekorra lortu zuen erakusteko: Jumboek baino altuera handiagoa lortu zuen!
- Erreferentzia-puntu gisa, altuerari dagokionez.

Punturik ez

0 kodea: Erantzuna ez da nahikoa edo zehatz gabekoa da:

- Zein itzelezko errekorra lortu zuen erakusteko. [Zehatz gabekoa].
- Konparazio moduan.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Globoek zein jumboek hegan egiten dute.
- Polita geratzeko.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Testuaren ideia nagusiak Vijaypat Singhaniak lortu zuen altuera errekorra deskribatzen du. Eskuinaldeko marrazkiak, jumboa barne, harridura sortzen laguntzen du, erakutsiz lorpena izurgarrikoa dela, normalean altuera handitzat hartzen denarekin konparatzen bada: hau da, jumbo baten hegaldia. Gehienezko puntuazioa edukitzeko, ikasleak ezagutu behar du jumboaren marrazkia sartzeak duen intentzionalitatea. Horrexegatik, ataza *hausnartu eta ebaluatu* kategorian sailkatzen da, *testu baten edukia*ren *gainean hausnartu eta ebaluatu* azpi-kategorian, hain zuzen ere. Galdera apur bat zaila izan da, 3. mailako goialdean kokatzen da eta.

4. galdera: GLOBOA

Zergatik agertzen dira globoaren bi irudi?



- A. Singhaniaren globoaren neurria parekatzeko puztu aurretik eta ondoren.
- B. Singhaniaren globoaren neurria beste globo batzuekin parekatzeko.
- C. Singhaniaren globoak lurretik txikia dirudiela erakusteko.
- D. Singhaniaren globoak ia-ia beste baten aurka talka egin zuela erakusteko.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: Testu baten edukiaz gogoeta egitea eta ebaluatzea.

Itemaren helburua: Elkartuta agertzen diren irudi batzuen helburua identifikatzea deskripziozko testu grafiko batean.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Deskribapena.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

Zailtasun-maila: 411 (2 maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Singhaniaren globoaren neurria beste globo batzuekin parekatzeko.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Garrantzitsua da irakurleak antzematea testuak ez direla helbururik gabe sortuak izan, apropos baizik, eta testuaren esanguraren alde bat egileak aukeratu dituen osagaietan aurkitzen dela. Aurreko jardueran bezala, ataza hau *hausnartu eta ebaluatu* kategorian ere sailkatzen da, idazlearen asmoaz aritzen delako. Osagai grafiko batean –bi globoen irudian– zehazten da eta ikasleei eskatzen die baloratzeko zein den sartzearen arrazoia. Testuaren ideia orokorra Singhaniaren hegaldia deskribatzen eta ospatzen duela kontuan izaten bada, globoaren irudiak honakoa iragartzen omen du: “*Hau globo puska!*” eta, era berean, jumbo jetarena honakoa: “*Hau bai hegaldi altua!*”. Globo txikiagoaren epigrafeak (“*Ohiko aire beroko globoen neurria*”) argi uzten du ez dela Singhania globoa eta, hortaz, irakurle arretatsua konturatuko da A eta C aukerak sinesgaitzak direla. D aukera ez da testuan oinarritzen. 2. mailako behealdetik gertu dagoenez, ataza erraza izan da.

ODOLA EMATEA



Odola ematea ezinbestekoa da.

Ez dago gizakiaren odolaren tokia har dezakeen produkturik. Odola ematea da, beraz, modu bakarra, eta bizitzak salbatzeko ezinbestekoa.

Frantzian, urtero, 500.000 paziente aprobetxatzen da odol transfusioez.

Odola ateratzeko tresnak esterilak eta erabilera bakarrekoak dira (xiringa, hodiak, poltsak).

Ez dago inolako arriskurik odola ematean.

Odola ematea:

Dohaintzarik ezagunena da eta 45 minutu eta ordubete artean irauten du.

450 ml-ko poltsa hartu ohi da zenbait lagin txikiz gain probak eta azterketak horietan egiteko.

- Gizonezkoek urtean bost aldiz eman dezakete odola; emakumezkoek, aldiz, hiru aldiz.
- Odol emaileak 18 eta 65 urte artekoak izan daitezke.

Odol emate bakoitzaren artean, gutxienez, 8 asteko tartea egon behar da.

“Odola ematea” testua Frantziako webgune batekoa da.

Erabili “Odola ematea” artikulua ondoko galdera hauek erantzuteko:

1. galdera: ODOLA EMATEA

Azken hamabi hilabeteotan odola bi aldiz eman duen 18 urteko neska batek berriro eman nahi du. “Odola ematea” testuaren arabera, zein baldintzaren arabera egin ahalko du?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: Interpretazio bat garatzea.
Itemaren helburua: Testu labur batean harremanak sumatzea ondorio bat ateratzeko.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Argudiozkoa.
Testuingurua: Publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.
Zailtasun-maila: 438 (2 maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Azken odol ematetik denbora nahikoa igaro behar duela identifikatzen du.

- Azken aldiz odola eman zuenetik 8 aste igaro diren ala ez kontuan hartuta.
- Odola eman dezake nahikoa denbora igaro bada; bestela, ez.

Punturik ez

0 kodea: Erantzuna ez da nahikoa edo zehatz gabekoa da:

- Denbora.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Gutxieneko adina badauka eman dezake.
- Odola eman dezake, aurreen aldi gehiegi eman ez badu.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Atazak irakurleari eskatzen dio testuaren informazioa aplikatzeko kasu praktiko batean. 2. mailaren erdialdean kokatzen da. Jarduera mota hau lotzen da ohiko bizitzako testu batekin; beraz, PISAk duen helburu bati erantzuten dio, hau da, aztertu nola egin dizkieten aurre etorkizuneko erronkei derrigorrezko hezkuntzako azken maila ikasten duten gazteek.

Irakurleak lotu behar ditu galderaren enuntziatuan deskribatzen den egoera testuaren bigarren zatian agertzen diren honako lau informazioko pasarte hauekin: odola eman litezkeen adina eta sexua, zenbat aldiz uzten zaion lagun bati odola ematen eta odol-emateen tartea. Ezinbestekoa da azken informazio zatia kontuan izatea ulertzeko atazak eskatzen duena eta zein “*baldintzapetan*” emakume gazteak izan daitekeen odol-emaile. Gehienezko puntuazioa ematen zaien adibide bietan agerian dagoenez, puntuazio hori lortu zuten odol-emateen artean 8 aste iragan behar direla erantzuteagatik edo adierazpen orokorragoa azaltzeagatik, “*odola eman dezake denbora nahikoa pasatu bada, bestela ez*”, alegia.

2. galdera: ODOLA EMATEA

Testuan hau irakur dezakegu: “Odola ateratzeko tresnak esterilak eta erabilera bakarrekoak dira...”

Zergatik aipatzen du testuak informazio hori?

- A. Odola ematea segurua dela ziurtatzeko.
- B. Odola ematea ezinbestekoa dela nabarmentzeko.
- C. Gure odolaren erabilerak azaltzeko.
- D. Azterketen eta proben inguruko xehetasunak emateko.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: Testu baten edukiaz gogoeta egitea eta ebaluatzea.

Itemaren helburua: Konbentzitzeko asmoaren helburua identifikatzea iragarki bateko esaldi batean.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

Zailtasun-maila: 368 (1a maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Odola ematea segurua dela ziurtatzeko.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ikasleek jarduera honetan kreditu osoa lortzeko iragarkiak duen konbentzitzeko nahia antzeman behar dute. Ataza *hausnartu eta ebaluatu* kategorian sailkatuta dago, ikasleek kontuan izan behar dutelako azaltzen den adierazpena ematen duen baino testuinguru zabalagoa batean agertzen dela, azpian dagoen helburua ezagutze aldera, helburu hori sartzeko.

Ataza erraz samarra denez, 1a mailaren behealdean kokatzen da, agian testua laburra delako eta baita ere ohiko gaia delako. Adibide moduan agiri honetan jakinarazten diren galdera erraz horien beste ezaugarri bat da aurreiritziekin lotzen direla: Testuan ez da ezer esaten jendea odola ematera animatzearen kontrakoa denik eta egiaztatzen du odola emateak ez duela inolako arriskurik ematen. Testuak konbentzitzeko asmoa badu ere, abisuak espreski esaten du jendeari odola emateko adore ematen diola eta segurua dela bermatzen du ere. Testua “*odola ematea ezinbestekoa da*” esaldiarekin hasten da eta bigarren pasartearen errepikatzen da ideia hori (“*modu bakarra*” eta “*ezinbestekoa*”). Gero, testuak “ez dagoela inolako arriskurik” aipatzen du, jarduera honi dagokion testuaren sekzioaren ostean, hain juxtu; hala ere, bi pasartearen arteko lotura (ebidentzia: ondorioa) logikoa ondorioztatu beharra dago.

ZEKENA ETA HAREN URREA

Esoporen kondaira

Gizon zeken batek zeukan guztia saldu eta urre pusketa bat erosi zuen. Jarraian, horma zahar baten ertzean, lurtean egindako zulo batean sartu zuen. Egunero joaten zen zaintzera. Bere langileetarikoa batek zekenak toki hartara etengabe egiten zituen bisita haiek ikusi eta mugimenduak zelatatzea erabaki zuen. Langileak laster aurkitu zuen ezkutatuak altxor haren sekretua eta lurra kenduz, urre zatia atera eta lapurtu egin zuen. Zekenak, hurrengo bisitan, zuloa hutsik topatu eta iletik tiraka hasi zen, aieneka. Bizilagun batek, nahigabe harekin ikusita eta zer gertatu zen jakinda, hau esan zion: “Ez tristatu; joan eta hartu harri bat, jarri zuloan, eta imajinatu urrea oraindik hor dagoela” Zerbitzu bera egingo dizu zuri; urrea hor zegoen bitartean, ez zenuen zure eskuetan, eta ez zenuen erabili ere egin”.

Erabili “Zekena eta haren urrea” izeneko ipuina ondorengo galderei erantzuteko:

1. galdera: ZEKENA ETA HAREN URREA

Irakurri behean agertzen diren esaldiak eta zenbakitu testuko gertaeren ordenaren arabera.

Zekenak diru guztia urre pusketa bat erosteko erabili zuen. ☐

Gizon batek zekenaren urrea lapurtu zuen. ☐

Zekenak zuloa egin eta altxorra han ezkutatu zuen. ☐

Zekenaren bizilagunak urrea harri batekin ordezkatzeko esan zion. ☐

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: Interpretazio bat garatzea.
Itemaren helburua: Narrazio baten gertaerak ordenatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narrazioa.
Testuingurua: Pertsonala.
Galderaren formatua: Eraikitzeko erantzun irekia.
Zailtasun-maila: 373 (1a maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Lauei zuzen erantzun die, honako ordenari jarraituz: 1, 3, 2, 4.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Alegiak kultura askotan oso testu mota errespetatua eta herrikoia dira; horrexegatik, sarritan irakurmeneko ebaluazioetan erabiltzen dira: laburrak dira, independenteak, ikuspegi moral batetik hezigarriak eta probaren iraupenari egokitzen dira. Agian ELGA-OECDko herrietako gazte-helduentzat ez dira irakurgairik arruntenak, baina haurtzaroan ohikoak izaten dira. *Zekena eta haren urrea* genero horren ohiko adibidea da: giza ahulune zehatza azaldu eta satirizatzen du, testuinguru ekonomiko batean eta, gainera, pasarte bakarrean aurkezten da.

Narrazioek objektuen propietateak denborazko dimentsioan definitzen dituztenez, “noiz” galderari erantzunez, badirudi aproposa izan daitekeela eskatzea alegiaren esaldi-sekuentzia egoki ordenatzeko. Testua hau bezain laburrarekin, eta historiaren hitzekin zuzen lotzen diren galderekin, ataza hau erraza izan da eta, ondorioz, 1a mailaren erdialdean kokatu da. Beste alde batetik, testuaren hizkera nahikoa formala da eta esapide apur bat zahar batzuk ditu; beharbada testuaren ezaugarri horrek galderari zailtasun pixka bat eman diezaioke.

2. galdera: ZEKENA ETA HAREN URREA

Nola lortu zuen zekenak urre pusketa?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Aurkitzea eta eskuratzea: Informazioa lortzea.
Itemaren helburua: Espazituki adierazten den informazioa aurkitzea testu labur baten hasieran.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narrazioa.
Testuingurua: Pertsonala.
Galderaren formatua: Erantzun laburrekoa.
Zailtasun-maila: 310 (1b maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Honakoa aipatzen du: “Zeukan guztia saldu zuen”. Testua parafrasea dezake edo hitzez-hitz aipatu.

- Zeukan guztia saldu zuen.
- Bere gauza guztiak saldu zituen.

Punturik ez

0 kodea: Erantzuna ez da nahikoa edo zehatz gabekoa da:

- Berarena zen.
- Irabazi zuen.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Lapurtu zuen.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Honetan dugu PISA irakurmeneko ataza errazenetako bat, bere zailtasun maila 1b mailaren erdialdean kokatzen baita. Irakurleari eskatzen zaio oso testu laburraren lehenengo esalditik informazio zati bat lokalizatu eta aipatzeko. Kreditu osoa lor daiteke testuko aipu zuzena emanez – “zeukan guztia saldu zuen”– edo parafrasi baten bidez –“bere gauza guztiak saldu zituen”–. Testuaren hizkera formalak unitate honen atazei nolabaiteko zailtasuna ematen zaie, baina, honetan oso eragin txikia dauka, testuaren hasieran agertzen delako. Dena dela, PISAren markoaren barruan erraza izan bada ere, inferentzia-maila apur bat egin behar da.

3. galdera: ZEKENA ETA HAREN URREA

Jarraian, “Zekena eta haren urrea” kondaira irakurri zuten bi pertsonaren arteko elkarrizketa zatia agertzen da.



1. hiztuna

Bizilaguna gaiztoa zen. Harria baino baliotsuagoa zen zerbaitekin ordezkatzeko urrea.

Ez, ezin zuen. Harria garrantzitsua zen ipuinean.



2. hiztuna

Zer esan dezake 2. hizlariak bere ikuspuntua defendatzeko?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: Interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Kondairako xehetasun bat ideia nagusiarekin lotu.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazioa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitzeko erantzun irekia.

Zailtasun-maila: 548 (3 maila).

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Isteriooko mezuan urrea alferrikakoa edo baliorik gabea den zerbaitekin ordezkatzeko funtsezkoa dela identifika du.

- Beharrezkoa zen baliorik ez duen zerbaitekin ordezkatzeko zer esan nahi zuen ulertarazteko.
- Harria elementu garrantzitsua da istorioan; izan ere, urreak egin zion mesedea ikusita, ondorio bera izango zukeen harri bat lurpean sartuta ere.

- Harria baino hobia den zerbaitekin ordezkatu izan bazenu, mezuaren gai nagusia galduko zenuke, lurperatutako horrek alferrikakoa izan behar baitu.
- Harria erabilerarik gabea da, baina diruzalearen kasuan errearekin ere gauza bera gertatzen zen!
- Zerbait hobia erabiliko zukeen zerbait izango zen, baina berak ez zuen urrea erabili, eta hori da mutlak nabarmendu nahi ziona.

Punturik ez

0 kodea: Erantzuna ez da nahikoa edo zehatz gabekoa da:

- Harria garrantzitsua zen ipuinean. *[Galdera errepikatzen du].*
- Harria izan behar zuen. *[Azalpena falta da].*
- Ez zitekeen gauza bera izango. *[Nahasia].*

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Harria izan behar zuen, harria astuna baita.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ataza bi alegiazko irakurleen arteko solasaldia irudikatzen du, non istorioaren bi interpretazio gatazkatsuak aurkezten dituen. Izatez, bigarren hizlariaren jarrera bat dator testuaren ideia orokorrarekin; izan ere, irakurleei antzematen laguntzen die ea kondairaren amaiera –ipuiondokoa edo ikasbidea– ulertu duten. Atazaren zailtasuna 3. mailako goialdetik gertu kokatu da eta irakurleari lan kopuru bat inbertitzea exijitzen dio. Lehenik, istorioan bizilagunen berbaldiaren zentzua antzeman behar du, erregistro formalez adierazten duena. (Azaltzen denez, itzultzaileari eskatzen zaio alegiaren estiloari eusteko). Bigarrenik, galderaren gaiaren eta behar den informazioaren arteko lotura ez dago agerian (“Zer esan dezake 2. hizlariak bere ikuspuntua defendatzeko?”) irakurlea atazaren interpretazioan gidatzeko. Hala ere, hiltunek harriari eta bizilagunari egiten dieten erreferentziak irakurlea zuzendu beharko luke alegiako amaierara.

Erantzunen adibideek erakusten duten moduan, gehienezko puntuazioa lortzeko, ikasleek modu desberdinetan adieraz dezakete ideia gakoa, hau da: aberastasunak ez du balio izaten ez bada erabiltzen. Esangura zehaztugabeko erantzunek, “*harriak balio sinbolikoa zuen*” eratakoek, ez dute puntuaziorik lortzen.

ANTZERKIA DA KONTUA

*Akzioa hondartzaren alboan dagoen
gastelu batean gertatzen da, Italian.*

LEHEN EKITALDIA

*Gonbidatuentzako luxuzko gela hondartza
5 alboko gastelu eder batean. Ateak
eskuinean eta ezkerrean. Egongela
eszenatokiaren erdian: sofa, mahaia eta bi
besaulki. Leiho handiak atzealdean. Gau
izartsua. Ilun dago eszenatokian.*

- 10 Antzokiko oihala igotzen denean,
ezkerreko atearen atzean ozen hizketan
ari diren hainbat gizonezko entzuten
ditugu. Atea ireki eta smokinga jantzita
duten hiru gizon sartzen dira. Horietako
15 batek argia pizten du berehala. Erdira isil-
isilik iritsi eta mahaiaren inguruan zutik
geratzen dira. Elkarrekin eseri dira; Gál
ezkerreko besaulkian, Turai eskuinekoan
eta Ádam erdian dagoen sofán. Oso
20 isilune luzea, ia desatsegina. Nagiak atera
dituzte. Isilunea. Jarraian:

GÁL

Zergatik zaude horren pentsakor?

TURAI

- 25 Antzerki lan bat hastea zein zaila den
pentsatzen ari naiz. Hau da, pertsonaia
nagusi guztiak nola aurkeztu hasieran-
hasieran, guztia martxan jartzen denean.

ÁDÁM

- 30 Uste dut gogorra izan behar duela.

TURAI

- Halaxe da, zeharo gogorra da. Antzerkia
hasi da. Publikoa isil-isilik geratu da.
Aktoreak eszenara sartu eta hor hasten da
35 oinazea. Nor den nor eta zer egin behar
duten publikoa ohartzen denerako, ordu
laurdena ere pasatu ohi da eta amaigabea
dirudi horrek.

GÁL

- 40 Garun bitxia duzu! Ezin al duzu zure
lanbideaz ahaztu minutu batez bada ere?

TURAI

Ezinezkoa da.

- 45 GÁL

Ez da ordu erdi ere pasatzen antzerkiaz,
aktoreez eta antzerki lanez hitz egin gabe
ere. Badaude beste gauza batzuk ere
bizitzan.

- 50 TURAI

Ez, ez dago beste ezer. Antzerkigilea naiz.
Horixe da nire madarikazioa.

GÁL

- 55 Ez zenuke zure lanbidearen esklabo izan
beharko.

TURAI

- Ez baduzu zure menpe hartzen, esklabo
bihurtzen zaitu. Ez dago erdibiderik. Sinets
iezadazue; ez da broma antzerki lana
60 ondo hastea. Horixe izan ohi da
eszenatokiko mekanikan topa dezakegun
arazorik larrienetako bat; hau da,
pertsonaiak berehala aurkeztea. Ikus
dezagun gu hiruron eszena hau. Hiru
65 gizon smokinga jantzita. Demagun gastelu
bikain honetako gela honetan sartu
beharrean, eszenatokian sartu direla
antzerki lana hasi den unean. Nor garen
ohartu arte, interes txikiko gai ugariren
70 inguruan hitz egin beharko lukete. Ez ote
litzateke askoz ere errazagoa izango
guztia hastea zutitu eta gure burua
aurkeztuz? *Zutitu egin da.* Gabon. Hirurok
gastelu honetako gonbidatuak gara.
75 Jantokitik iritsi berri gara; afari bikaina
eman digute eta bi xanpain botila ere edan
ditugu. Nire izena Sándor Turai da;
antzerkigilea naiz, hogeita hamar urte
daramat antzerki lanak idazten, horixe da
80 nire lanbidea. Puntu. Zure txanda.

GÁL

Zutitu egin da. Nire izena Gál da; neu ere antzerkigilea naiz. Neuk ere antzerki lanak idazten ditut, guztiak hemen alboan dudan jaun honekin batera. Antzerkigile bikote ospetsua gara. Komedia eta opereta on guztien programan hau irakur daiteke: Gálek eta Turaik idatzia. Jakina, hau nire lanbidea ere bada.

GÁL eta TURAI

Batera. Eta gizon gazte hau...

ÁDÁM

Zutitu egin da. Gazte hau, aurkezpena egiteko baimena ematen badidazue, Albert Ádám da, hogeita bost urteko konpositorea. Gizon atsegin hauentzako musika idatzi dut beren azken operetarako. Hauxe da antzerkirako egin dudak lehen lana. Adineko bi aingeru hauek ezagutarazi egin naute eta orain, beren laguntzarekin, ospetsu bihurtu nahiko nuke. Gaztelu honetara gonbidatu naute. Nire fraka eta smokinga eginarazi dizkidate. Beste modu batez esanda, oraingo, txiroa eta ezezaguna naiz. Horrez gain, umezurtza naiz eta amonak hezi nau. Amona hil egin da. Bakar-bakarrak nago mundu honetan. Ez dut osperik; ez dut dirurik.

TURAI

Baina gaztea zara.

GÁL

115 *Eta adimentsua.*

ÁDÁM

Eta maiteminduta nago solistarekin.

TURAI

Ez zenukeen hori gehitu beharko. 120 Publikoaren edonork igarri ahalko zukeen hori bestela ere.

Guztiak eseri egin dira.

TURAI

Beraz... ez al litzateke hori izango antzerki 125 lana hasteko modurik errazena?

GÁL

Hori egin ahalko bagenu, erraza litzateke antzerki lanak idaztea.

TURAI

130 Sinets iezadazu, ez da horren zaila. Besterik gabe, pentsatu horren guztiaren inguruan, honela...

GÁL

Ondo da, ondo da... nahikoa da, ez hasi 135 berriro antzerkiaz hitz egiten, mesedez. Nazkatu naiz. Bihar hitz egingo dugu nahi baduzu.

“Antzerkia da kontua” Ferenc Molnár antzerkigile hungariarrak idatzitako antzerki lanaren hasierako zatia da.

Aurreko bi orrietan agertzen den “Antzerkia da kontua” erabiliz, erantzun ondorengo galderei (Kontuan izan gidoiaren marjinetan zenbaki batzuk agertzen direla galderek aipatzen dituzten zatiak topatzen laguntzeko).

1. galdera: ANTZERKIA DA KONTUA

Zer ari ziren egiten antzerki laneko pertsonaiak antzerki oihala **justu** igo **aurretik**?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.
Itemaren helburua: Antzerki lan bateko gertaeren aurretik jazo den ekintza baten erreferentzia topatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narrazioa.
Testuingurua: Pertsonala.
Galderaren formatua: Erantzun laburrekoa.
Zailtasun-maila: 730 (6 maila).
 Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %13,2.

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Afaria edo xanpaina edan izana aipatu du. Testuaren aipua zuzenean azaldu edo parafrasia egin dezake erantzunean.

- Afaldu eta xanpaina edan berri zuten.
- “Jantokitik iritsi berri gara; afari bikaina eman digute” [zuzeneko aipua].
- “Afari bikaina eman digute eta bi xanpain botila ere edan ditugu” [zuzeneko aipua].
- Afaria eta edariak.
- Afaria.
- Xanpaina edan dute.
- Afaldu eta edan egin dute.
- Jantokian zeuden.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du:

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Hirurok gaztelu honetako gonbidatuak gara.
- Atearen atzean hizketan ari dira ozen. [Zati hori lehen ekitaldian gertatzen da, ez aurretik].
- Adamen fraka eta smokinga eginarazi zituzten. [Ez da justu testuko gertaeren aurretik gertatu].

- Agertokira ateratzeko prestatzen ari ziren. *[Aktoreen inguruan ari da hizketan, pertsonaiengan aritu beharrean]*.
- Hondartzaren alboan dagoen Italiako gaztelu batean gertatzen da.
- Antzokiaren inguruan hizketan.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ataza honetan PISA irakurmeneko jarduera zailenetakoak aurkitzen dira. Testuak PISAko estandarrak betetzen ditu, baina baliteke bertan aurkeztu den fikziozko mundua urrutikoa izatea, 15 urteko neska-mutil gehienek esperientzia kontuan hartzen badugu. Testuaren ondoren ikasleei argitzen zaie Ferenc Molnár antzerkigile hungariarraren lanaren sarrera dela, baina ez dago beste argibiderik. Akzioaren tokia (*“hondartzaren alboan dagoen gaztelu bat, Italian”*) askorentzat exotikoa da, eta egoera soilik solasaldiaren bidez adierazten da pixkanaka-pixkanaka. Hiztegia ez da bereziki zaila eta testuaren doinua sarritan informala, eta, gainera, hizkuntza-erregistroa da apur bat bitxia. Beharbada, mailarik altuena eta ez-ohikoa gai abstraktuak sartzen du eztabaidan: solasaldi sofistikatua bizitzaren eta artearen arteko loturari eta antzerki lanak idaztearen erronkari buruzkoa. Testua *narrazio* bat da.

Unitate honen ataza guztien zailtasun-maila testuaren erronkekin lotzen bada ere, ataza honetan bereziki eskakizun kognitiboa ulermen-maila altu bati dagokio, testuari dagokionez, galderaren esangura definitzea eskatzen baitu. Irakurleak pertsonaien eta aktoreen artean bereizi behar du. Galdera pertsonaiak (ez aktoreak) egiten ari direnari dagokio oihala justu igo aurretik. Beraz, nahasia izan daiteke bereiztu behar delako antzokiko eszenatokiaren “mundu erreala”, non oihala dagoen, Gál, Turai eta Ádamek irudizko mundutik, zeinak gonbidatuen gelan sartu aurretik jangelan afaltzen ari ziren. Zailtasun-maila altuagoa ematen du informazioa ustekabeko toki batean egoteak. Galdera “oihala justu igo aurretik” gertatzen den akzioari dagokio, ohiko egoera batean eszenaren hasieran gertatu beharko zena, testua hastean. Alderantziz, informazioa testuaren erdialdean eskaintzen da, Turai bera eta bere lagunak “jantokitik iritsi berri direla” argitzen duenean. Puntuazioak erakusten du galderari emandako erantzun mota batzuk onartzen direla; kreditu osoa lortzeko, irakurleak frogatu behar du eskatzen den informazio zatia topatu duela. Bereizteko espektatibekin talka egiten duen informazioa bereganatu behar du ikasleak eta horixe da PISAren irakurmen jardueren ezaugarri arruntenetakoa hain zuzen; hau da, irakurleak testuari arreta osoa ematea dituen aurreiritziei aurre emanez.

2. galdera: ANTZERKIA DA KONTUA

“(…) ordu laurdena ere pasatu ohi da eta amaigabea dirudi horrek.” (36-38 lerroak)

Turairen ustez, zergatik da ordu laurdena “amaigabea”?

- A. Denbora luzea da publikoa isil-isilik eserita mantentzeko betetako antzoki batean.
- B. Antzerki lan baten hasieran, badirudi egoera ez dela inoiz argituko.
- C. Antzerki lanaren hasiera idazteko antzerkigile batek denbora asko behar duela dirudi beti.
- D. Antzerki lan batean, zerbait garrantzitsua gertatzen ari denean, denbora poliki igarotzen dela dirudi.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Antzerki lan bateko esaldi baten esangura ondorioztatzea, testu inguruko erreferentziak erabiliz.

Testuaren formatua: Jarraitua.


Testu mota: Narrazioa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

Zailtasun-maila: 474 (2 maila).

Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %61,8.



ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Antzerki lan baten hasieran, badirudi egoera ez dela inoiz argituko.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

2. eta 3. mailen arteko mugatik gertu egonik, jarduera honek aurrekoak bezala erakusten dute testu errazen inguruan galdera zailak ere egin daitezkeela.

Aurreko ataza ez bezala, honek antzerki-lanaren gune garrantzitsura eramaten dio irakurleari, espreski komatxoaren artean adieraziz. Horrela, bada, irakurleak ez du bilatu behar non dagoen informazio esanguratsua egoki erantzun ahal izateko.

Izatez, “antzerki lan baten hasieran, badirudi egoera ez dela inoiz argituko” esapideak laguntzen du testuaren gainerakoa ulertzen, eta antzerki lanaren hasieran pertsonaiek beren burua aurkezten duten modua da, akzioaren garapenak nortzuk diren erakustea itxaron beharrean. Komatxoaren arteko esaldiak testuaren gainerakoa ulertzen laguntzen duen bezala, errepikapenak eta enfasiak testua osatzen eta interpretatzen ere laguntzen diote irakurleari. Zentzu horretan, ataza hau 1gotik argi bereizten da; izan ere, informazioa behin baino ez da eskaintzen eta testuaren toki susmagaitz batean dago.

3. galdera: ANTZERKIA DA KONTUA

Oro har, zer ari da Molnár antzerkigilea egiten eszena horretan?

- A. Pertsonaia bakoitzak bere arazoak nola konponduko dituen agertzen ari da.
- B. Bere pertsonaien bidez, antzerki lan batean amaigabea zer den azaldu nahian ari da.
- C. Antzerki lan bateko hasierako ohiko eszena arrunt baten adibidea eskaintzen ari da.
- D. Bere sormeneko arazoetako bat erakusteko pertsonaiak erabiltzen ari da.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: ulerkuntza globala lortzea.

Itemaren helburua: Antzerki lan bateko kontzeptuzko gaia identifikatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazioa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

Zailtasun-maila: 556 (4 maila).

Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %50,7.

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Bere sormeneko arazoetako bat erakusteko pertsonaiak erabiltzen ari da.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ataza honetan irakurleari eskatzen zaio ikuspegi globaletik aztertzeke, elkarriketaren ondorioak osatzearen eta interpretatzearen ulermen zabala izateko. Atazak eskatzen du testuko zatiaren kontzeptuzko gaia antzematea; izan ere, gaia literaturari buruzkoa eta abstraktua da. Eredu hori ez da oso ezaguna hamabost urteko neska-mutil gehienentzat; hori dela eta, horretan datza atazaren zailtasuna (4. maila). ELGA-OECDko herrialdeetako ikasleen erdiak baino apur bat gutxiagok lortu zuen gehienezko puntuazioa item honetan. Gainerakoek beste hiru aukeretatik bat hautatu zuten.

TELELANA

Etorkizunerako bidea

Pentsatu zein ederra litzatekeen "telelana"¹ edo autopista elektronikoan lan egitea, zure lana ordenagailu bidez edo telefonoz egitea! Ez zenuke berriro zure gorputza indarka sartu beharko bete-beteta dauden autobusetan edo trenetan edo ordu mordoa galdu beharko lanera eta lanetik bidaiak eginez. Nahi duzun tokian lan egin ahalko zenuke. Pentsatu horrek zenbat laneko aukera eskainiko lizukeen!

Josune

Hondamendia gertatzeko zorian

Lanera joateko behar dugun ordu kopurua gutxitzea eta horrekin energia kontsumoa murriztea ideia ona da zalantzarik gabe. Baina helburu hori lortzeko, nahikoa litzateke garraio publikoa hobetzea edo lantokiak jendea bizi den tokietatik gertu kokatzea. Telelana guztion bizimodu beharko lukeela dioten asmo handiko ideiak jendea bere buruan gero eta gehiago murgiltzea ekarriko luke. Benetan nahi al dugu komunitateko partaide izatearen zentzua are gehiago hondatzea?

Iker

¹ "Telelana" Jack Nillesek 70eko hamarkadaren hasieran asmatu zuen hitza da, bulego nagusitik kanpo dagoen ordenagailuan lan egiten duten langileen egoera deskribatzeko (etxean, esate baterako). Langile horiek datuak eta dokumentuak telefono lineen bidez bidali ohi dituzte bulego nagusira.

Erabili goian agertzen den "Telelana" ondoko galdera hauek erantzuteko:

1. galdera: TELELANA

Zein da "Etorkizunerako bidea" eta "Hondamendia gertatzeko zorian" testuen arteko lotura?

- A. Argudio ezberdinak erabiltzen dituzte ondorio orokor berberera iristeko.
- B. Estilo berean idatzita daude, baina erabat ezberdinak diren gaien buruzkoak dira.
- C. Ikuspuntu orokor bera adierazten dute, baina ondorio ezberdinak ateratzen dituzte.
- D. Gai beraren inguruko aurkako ikuspuntuak adierazten dituzte.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: ulerkuntza globala lortzea.

Itemaren helburua: Argudiozko bi testu laburren arteko lotura identifikatzea (bereiztea).

Testuaren formatua: Konposatua (bi testu).


Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Lanekoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

Zailtasun-maila: 537 (3 maila).

Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %58,1.



ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Gai beraren inguruko aurkako ikuspuntuak adierazten dituzte.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

TELELANA unitatearen aurkezpenean bi testu labur ditugu. Testu horiek telelanari buruz iritzi desberdinak eskaintzen dituzte. Telelana zer den horrela azaltzen da orri-oinean: *“bulego nagusitik kanpo dagoen ordenagailuan lan egitea”*.

Sarrerako testu bakoitzaren helburua irakurlea ikuspegi zehatz baterantz konbentzitzea da, horregatik testua *“argudiozko”* modukoa sailkatzen da. Bi testuen helburua lan bizitzari buruz eztabaidatzea denez, laneko esparruan sailkatu dira. Bi testuek egoeraren aurkezpena osatzen dute eta biak jarraituak dira. Hala ere, jatorriz independenteak dira, baina ebaluazioak duen helburua dela eta, elkarren ondoan jarri dira. Horregatik, konposatu gisakoa sailkatu da ere.

Item honek ikasleei eskatzen die bi testuen arteko lotura ezagutzeko. Beraz, zuzen erantzuteko testu bakoitza bere osotasunean ulertu behar dute eta elkarren arteko lotura identifikatu egin ere: gai berari buruz ikuspuntu desberdinak adierazten dute. Testu bakoitzean aldarrikatzen den jarrera identifikatzeko ulermen-maila altua behar da; eta hori da galderaren zailtasuna handitzen duen faktore bat. Lehen testuaren egileak duen jarrera argi geratzen da testuaren hasieran (*“Pentsatu zein ederra litzatekeen “telelana” lan egitea”*) eta gainerakoan berrestu egiten du. Aitzatik, bigarren pasarteak egilearen ez-zuzeneko aitortpena eskaintzen du: argudio batzuen kontrako erantzun gisa idatzita dago; hortaz, bigarren egilearen jarrera ulertzeak lehenengoarena baino ulermen-maila altuagoa exijitzen du. Behin egile bakoitzaren jarreraren interpretazio-jarduera eginda, erraza da jarrera desberdinak direla antzematea.

Puntuazio eskasenerako ikasleek B erantzuna aukeratu zuten; hots, huts egin zuten konturatu ez zirelako testu biak gai berari buruzkoak zirela. A eta C aukerak markatu zituzten ikasleek testu biek gai beraz aritzen zirela hauteman zuten, baina huts egin zuten ikuspegi kontrajarriak adierazten dituztela identifikatzeko ordura. Finean, ataza 3. mailari dagokio eta bakarrik ikasleen erdiak gehienezko puntuazioa lortu zuen item honetan.

2. galdera: TELELANA

Aipatu lan mota bat telelanaren bidez egitea zaila izango dena. Arrazoitu zure erantzuna.

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia balioestea.

Itemaren helburua: Aurretiazko ezagutzak erabiltzea testuan agertzen den kategoriaren arabera den adibide bat sortzeko.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Lanekoa.

Galderaren formatua: Eraikitzeko erantzun irekia.

Zailtasun-maila: 514 (3 maila).

Erantzun zuzenen ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan: %58,3.

698	6 maila
626	5 maila
553	4 maila
480	3 maila
407	2 maila
335	1a maila
262	1b maila
	1b mailaren azpitik

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Lan mota identifikatu eta azalpen onargarria eman du lan mota hori egiten duen pertsonaren kasuan, telelana ezinezkoa dela agertzeko. Erantzunak lan espezifiko horretarako modu fisikoan presente egotea zergatik den beharrezkoa EDO egoera jakin batzuen kasuan, telelana zergatik litzatekeen eginezina (kokapena dela eta, adibidez) azaldu BEHAR du.

- Eraikuntza. Zaila da edozein tokitatik adreiluekin eta egurrarekin lan egitea.
- Kirolariak. Kirol hori jokatzeko, toki jakin batera joan behar duzu.
- Iturgina. Ezin duzu norbaiten harraska konpondu etxetik!
- Lubakiak egin, bertan egon beharra baitaukazu.
- Erizaintza; zaila da pazienteak ondo dauden egiaztatzea Internet bidez.

Kreditu partziala

1 kodea: Azalpena erdi begi-bistakoa den lan mota identifikatu du, baina ez du azalpenik eman EDO azalpen nahasia agertu du.

- Lubakiak egin.
- Suhiltzailea.

Punturik ez

0 kodea: Azalpena erdi begi-bistakoa ez den lan mota identifikatu eta ez du azalpenik eskaini:

- Ikaslea.

Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- Nagusia. Bulegoan egon behar duzu lan hori egiteko. *[Nahasia]*.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Lubakiak egin, lan gogorra bailitzateke.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Item honetan ikasleek adibide bat (lanbide bat) proposatu behar dute, emandako kategoriari dagokiona. Galderari erantzuteko behar den informazioa “telelana” definitzen duen orri-oinean agertzen da. Egoeraren aurkezpena testu desberdinek osatzen duten arren, testuaren formatuari dagokionez galdera jarraitua kategorian sailkatu da, testuaren elementu bakarrari baitagokio.

Telelana zaila den lanbidearen adibide bat emateko, ikasleek lotu behar dute testuaren ulerkuntza berezko ezagutzarekin, testuan ogibide zehatzik aipatzen ez direlako. Itema *hausnartzea eta baloratzea* kategorian sailkatzen da, zehatz-mehatz *testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia balioestea* azpi-kategorian. Kreditu osoa lortzeko ikasleek adibide bat eman behar zuten eta justifikatu zergatik bere proposamena sartzan den eskatutako kategorian. Eta azalpena inplizituki zein esplizituki erreferentzia egin behar dio langileak bere lana egiteko fisikoki bertan egon behar duenari. Nahiz eta kreditu osoa eskuratzeko erantzun zuzen mota asko eman daitekeen, ikasle askok ez zuten lortu azalpenik eman ez zutelako edo eman zutenak ez zuten erakusten proposatzen zuten lanak exijitzen zuela langilearen presentzia fisikoa. Azken horren adibidea izan daiteke “*Lubakiak egin, lan gogorra baita*”. Konpara dezagun kreditu osoa jaso duen beste erantzun honekin: “*Lubakiak egin, bertan egon beharra baitaukazu*”.

Ia ikasleen %60k lortu zuen gehieneko puntuazioa item honetan.

2.2. IRAKURMENEKO ITEMAK. PISA 2008 (proba pilotua)

Atal honetan jakinarazten diren *irakurmeneko* itemak 2008ko proba pilotuan bakarrik aplikatu ziren. Ez dugu puntuaziorik eta, ondorioz, itemak ezin dira zailtasun eskala batean jarri. Hala ere, proba pilotuan parte hartu duten ikasleen errendimenduaren inguruko gutxi gorabeherako balorazioa ematen da item bakoitzaren amaieran agertzen den analisisan.

Jarraian adierazten da zein den ebaluazio unitateak aurkezten diren ordena. Horiek guztiak 3 5 item arteko multzoek osatzen dituzte. Item bakoitzak berezko analisia du.

Irakurmeneko itemak. PISA 2008

	Unitateak
1	<i>MACONDO</i> . 4 item.
2	<i>LIBURUTEGIAREN PLANOA</i> . 3 item.
3	<i>IKASLEEN IRITZIAK</i> . 4 item.
4	<i>SUPERMERKATUKO OHARRAK</i> . 4 item.
5	<i>MOTOZIKLETA</i> . 3 item.
6	<i>ERAIKIN ALTUAK</i> . 4 item.
7	<i>DEMOKRAZIA ATENASEN</i> . 5 item.
8	<i>HELMUGA: BUENOS AIRES</i> . 4 item.
9	<i>AFRIKAKO IBILALDI HANDIA</i> . 4 item.
10	<i>METROTRANSIT</i> . 4 item.

MACONDO

Macondoko jendeak, hainbeste asmakizun miresgarri ikusteaz liluratuta, ez zekien nondik zetorren bere harridura. Trenak bigarren bidaia egin zuenean Aureliano Tristek ekarritako plantarekin elikatutako bonbilla elektriko zurixkak begiratzen gelditzen zen jendea, gau guztian oheratu gabe, eta haren zarata obsesiboa entzuten ohitzeko, denbora eta ahaleginak behar izan ziren. Lehoi-buru itxurako txartel-leihatilak zituen antzokian, irudi bizidunak erakusten hasi zen Bruno Crespi merkatari aberatsa, eta ikusleak izugarri haserretu ziren, pelikula batean hil eta lurperatutako pertsonaiaren ezbeharrengatik negarretan urtu ondoren, hurrengo pelikulan pertsonaia bera berriro bizirik eta arabez jantzita agertu zela konturatzean. Ikusleek, aktoreen gorabeherak bizi ahal izateko bi zentabo ordaindu ondoren, ez zuten iseka sinestezin hura onartu, eta aulkiak apurtu zituzten. Alkateak, Bruno Crespi jaunak eskatuta, bando bat argitaratu zuen, zinea ilusio-makina baino ez zela azaltzeko, eta, ondorioz, ikusleen erantzun grinatsu hura ez zuela merezi. Azalpen etsigarri hori entzutean, askok pentsatu zuten ijitoen iruzur berri eta ikusgarri baten biktimak zirela, eta zinera berriro ez joatea erabaki zuten; beren arazo propioak nahiko eta soberan zituztenez, ez zuten irudimeneko izakien gezurrezko ezbeharrengatik ere negar egin nahi. Aurreko orrialdeko pasartea nobela batetik ateratakoa da. Istorioaren zati honetan, trena eta elektrizitatea sartu berriak dira Macondoko fikziozko hirian, eta lehen zinea ireki da.

Goiko testua nobela batetik hartu da. Kontakizun zati honetan, trenbidea eta elektrizitatea Macondo deitzen den herrira heldu berri dira. Herri horretan duela gutxi lehenengo zinema-aretoa inauguratu dute.

Begiratu pasartea ondoko galderei erantzuteko:

Gabriel García Márquez idazle kolonbiarraren *Cien años de soledad* eleberriaren prosa zatia da Macondo. Egoera *pertsonalean* sailkatzen da, irakurlea entretenitzeko eta gozarazteko idatzi baitzen: «*Testua eleberritik hartu da. Kontakizunaren zati horretan, trenbidea eta elektrizitatea heldu berri dira Macondo izeneko fikziozko herrira eta duela gutxi inauguratu da bertan lehen zinema*». Jendeak zinema irekitzearen aurrean duen erreakzioan oinarritzen da testua. Zati horretako eszenatoki historiko eta geografikoa ikasle gehienentzat exotikoa den arren, zinemara joatea 15 urteko gazteen esperientzietan sartzen da eta pertsonaien erantzunak bitxiak eta ezagunak dira aldi berean. *Testu jarraituko* formatuaren kategorian, testu mota horretan ohikoa den bezala, *narraziozko* idazkeraren adibidea da Macondo, eta istorioetako pertsonaiak zergatik jokatzen duten egiten duten moduan azaltzen du. Ekintzak eta gertaerak irudipen subjektiboen ikuspegitik erregistratzen dira.

1. galdera: MACONDO

Zein da Macondoko jendea gehien haserretzen zuen pelikuletako ezaugarria?

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Pertsonaien jokabidea azaltzeko arrazoiak ematea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazioa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitzeko erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Filmen fikziozko izaera aipatzen du, edo xehekiago esanda, “hil” ostean berriro agertzen diren aktoreak. Zazpi lerroko hitzak zuzen-zuzenean har daitezke (“...pelikula batean hil eta lurperatutako pertsonaiaren ezbeharrengatik negarretan urtu ondoren, hurrengo pelikulan pertsonaia bera berriro bizirik eta arabez jantzita agertu zela ...”) edo azken esaldia (“irudimeneko izakien gezurrezko ezbeharrengatik ere negar egin nahi”).

- Hil egin zirela pentsatzen zuten lagunak bizitzara itzultzen ziren.
- Filmak egiazkoak izatea espero zuten, baina ez dira.
- Filman agertzen den gizona hil egin dela sinestarazi nahi dietela uste dute, eta tontotzat jotzen dituztela.
- Film batean hil eta hobiratutako pertsonaia bat hurrengo film batean bizirik agertzen zen.
- Ez dute ulertzen filmak fikzioa direla.
- Izan ere, aurreko filman hil egin den pertsonaiaren papera egiten duen aktorea beste pertsonaia berri baten paperarekin bueltatzen da hurrengo filman. Ikusleek uste zuten bere emozioak lapurtzen ari zizkietela. [2. eta 1. elementuak].
- Haien arazo propioekin nahikoa zutela uste zuten, jendeak arazoak antzezten ikusteko premiarik gabe. [Jendearen

haserrean “fikzioak” eragiten duenaren ulermen argia, nahiz eta maila urrunago batera joan den].

- Filmeko aktoreetako bat hobiratu eta gero arabez jantzita itzuli zelako. *[Apartekoa: oso zehatza].*

Kreditu partziala

1 kodea: Iruzurra edo tranpa aipatzen du, edo ikusleen asmoei oztupoak jarri zaizkiela. Zuzenean har daiteke “iseka sinestezin hura” edo “ijitoen iruzur berri eta ikusgarri baten biktimak zirela”.

- Iruzur egin zaiela pentsatzen dute.
- Haien emozioak ezereen truke agortu dituztela pentsatzen dutelako.
- Ijitoen iruzur berri eta ikusgarri baten biktimak izan direla pentsatzen dutelako.
- Ez zuten iseka sinestezin hura onartzen.
- Bakoitzak bi zentabo ordaintzen zuelako, jasan ezin zuten iseka sinestezin hura ikusteko. *[9-10 lerroetako zatiak zuzenean aipatzea; ez du aipamen berezirik egiten iruzurraren jatorriaren gainean].*
- Ez zekitelako zein zen filmaren asmoa. *[“Iruzur” (oro har) esateko modu gisa].*

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasa edo lausoa.

- Haserre zeuden Bruno Crespirekin.
- Ez zituzten filmak gustuko.
- Beren dirua berreskuratu nahi dute.
- Biktimak zirela uste zuten.
- Bortitzak ziren.
- Leloak ziren.
- Beren sentimenduak adierazten zituzten.
- 2 zentabo ordaintzen zuten eta ez zuten beraiek nahi zutena lortzen. *[“Beraiek nahi zutena” oso lausoa da].*

EDO Materialaren gaineko ulermen okerra erakusten du edo erantzun itxuragabea edo hutsala ematen du.

- Ez zuten gogorik beste jende batzuen arazoekin gogaitzeko. *[Gaizki: Jendeak BAZUEN gogoa beste pertsona batzuen BENETAKO arazoez arduratzeke].*
- Haien dirua gastatu izanagatik protestatzeko zuten modu bakarra zen.
- Haserre zeuden hilik eta hobiraturik zegoen pertsona bat ikusi behar zutelako. *[Aipatutako atalak “filmetan pertsona hilak ikustea ez zutela gogoko” adierazten du – interpretazio okerra].*

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Testuak Macondoko jendearengandik nolabaiteko distantziara kokatzen du irakurlea, haienganako enpatia sentitzea ahalbidetzen dion distantzia bada ere. Galdera honetan puntuaziorik handiena lortzeko, beharrezkoa da testutik kanpo kokatzea eta herriko jende xumeak izan ditzakeen zailtasunez jabetzea, fikzioaren eta bizitza errealearen arteko aldea ulertzeko. Pertsona moderno gehienek kasuan, zailtasun hori harrigarria eta espero daitekeenaren kontrakoa izango litzateke. Proba pilotuan parte hartu zuen ikasleen erdia baino apur bat gehiago soilik izan zen interpretazio hori egin zezakeela erakusteko gai. Puntuaketa partziala duen erantzunak irakurlearen irudimen-esfortzu txikiagoa eskatzen du: jendea engainatuta sentitzen denean haserretu egiten dela ulertzea nahiko erraza da gehienentzat. Erantzun mota horrek puntuaketa partziala lortzen du, okerra ez izan arren istorioaren zati bat baino islatzen ez duelako. Proba pilotuan, erantzun mota hori ikasleen ehuneko nahiko baxuak eman bazuen ere, irakurmen-gaitasun orokorra puntuaziorik altuena eskuratu zutenen oso azpitik zegoen.

2. galdera: MACONDO

Pasartearen bukaeran, zergatik erabaki zuen Macondoko jendeak zinera berriro ez joatea?

- A. Dibertsioa eta entretenimendua nahi zuten, baina pelikulak errealista eta tristeak zirela ohartu ziren.
- B. Txartelen prezioa ezin zuten ordaindu.
- C. Beren sentimenduak benetako arazoetarako gorde nahi zituzten.
- D. Zinean grinak sentitu nahi zituztelako, eta pelikulak aspergarriegiak, sinesgaitzegiak eta kalitate urriegikoak zirela ohartu ziren.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: pertsonaien ekintzak bidezkozko arrazoiak ematea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazioa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Beren sentimenduak benetako arazoetarako gorde nahi zituzten.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ariketa honek *integratzea eta interpretatzea* eskatzen du, ulermen orokorra garatzeko. Puntuatzeko, ikasleek testu guztian ageri diren elementuak laburbildu behar dituzte, istorioko pertsonaiek zergatik jokatu zuten egindako moduan identifikatzeko xedearekin. C aukera hautatzean, jendeak zinemara ez joatea erabakitzeak arrazoiak modu sinesgarrian azaltzeko arrazoi jakinei uko egin behar diete; arrazoi horiek testuan oinarritu beharrean, aldezturik gertatutako ideietan oinarritutako gainerako erantzutako aukeren bidez adierazita daude.

3. galdera: MACONDO

Testuko azken lerroetan aipatzen diren “irudimeneko izakiak” nortzuk dira?

- A. Mamuak.
- B. Jolas-parkeetako asmakizunak.
- C. Pelikuletako pertsonaiak.
- D. Aktoreak.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Aurrekaria adierazita baino, isilekoa denean, erreferentia ulertzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazioa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Pelikuletako pertsonaiak.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera honetan puntuatzeko, ikasleek erreferentzia-katea jarraitu behar dute. Hori testuaren herena igarotakoan hasten da gutxi gorabehera. Proba pilotuan parte hartu zutenen ia hiru laurden hasiera batean "irudi bizidunak" izendatutako pertsonaietan "irudimeneko izakiak" identifikatzeko gai izan zen. Testuan loturak errealitate bihurtzeko beharrak galdera *osatze- eta interpretatze-*alderdiaren kategorian sailkatzea azaltzen du. Aukera zuzena hautatu ez zuten gehienek D aukeratu zuten, itxuraz fikzioa eta errealitatea nahastuta.

4. galdera: MACONDO

Ados al zaude macondotarrek pelikulei buruz azkenean pentsatu zutenarekin? Azal ezazu zure erantzuna, pelikulekiko duzun jarrera beraiek zutenarekin konparatuz

.....

.....

.....

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuaren edukiaren gainean hausnartzea eta balioestea.

Itemaren helburua: Pertsonaien jarrerak norberaren ezagutzarekin eta esperientziarekin konparatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazioa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Filmetako jokabide “errealistak” eta/edo emozio-harremanak aipatzen ditu. Macondoko jendeak pelikuletan errealismoa bilatzen duela adierazten duen ideiarekin bat etorri behar du erantzunak. Macondo jendearen eta norberaren esperientziaren/jarreraren arteko konparaketa isilekoa edo adierazia izan daiteke.

- Behin egiazkoa ez dela ohartu zarenean, ihesbide gisa erabil dezakezu zinema. Ez da zertan hainbeste murgildu behar pertsonaien bizitzetan.
- Bai, ados nago, sufrimendu nahikoa dago munduan jada, hura bestela asmatzen hasteko.
- Ez, jendeak jakin badaki zinemara zoazenean pantailan gertatzen ari den hori benetakoa ez dela.
- Macondoko jendea ez bezala, negar batean egon naiteke film bat ikusten dudanean, baina hura ahortzi egiten dut zinematik irten ondoren.
- Haiekin bat nator. Zergatik jendeak estututu nahi izaten du filmak ikustean? Horregatik, hain zuzen, zientziak ikasten nabil, ekintzak ikertzen dituelako, eta ez fantasia.
- Filmak atsegin ditut beste pertsona batzuen arazoetan fokatzera laguntzen nautelako, ez nireetan.
- Kasuaren arabera. Filma oso txarra bada zinematik irteteko gogoia ematen dit, baina oster, ona bada, harrapatu egiten zaitu eta berdina zaizu egiazkoa denentz.
- Ez, filmak entretenitzeko ikusten ditut.
- Bai, filmak askoz hutsak besterik ez dira. Askozaz hobe da zuzenean antzeztu dauden pertsonak ikusten dituzunean.
- Ez, gauzak filmeetan exageratu egiten dira askotan.
- Ez nator bat haien erreakzioekin, izan ere, filmak entrenitzeko modu bat besterik ez dira eta horregatik, ez dira serio hartzu behar. Halere, Macondoko jendea ez da oso zuhurra, horregatik ulertzen dut nola senti litekeen.

EDO: Testuinguru soziala, historikoa edo kulturala aipatzen du, adibidez, teknologia sakon ezagutzearekin konparatzea, gizarte esperientziako aldatetakoak. Macondoko jendeak pelikuletan errealismoa bilatzen duela adierazten duen ideiarekin bat etorri behar du erantzunak. Macondo jendearen eta norberaren esperientziaren/jarreraren arteko konparaketa isilekoa edo adierazia izan daiteke.

- Macondoko jendea primitiboa zen eta sentimenduz erreakzionatu zuen. Ni eta gainerako jende gehiena ere askozaz sofistikatuagoak gara gaur egun.
- Ikuspuntu oker batetik hasi ziren filma ikusten. Ez zuten ulertu ikuskizun bat zela, eta ez albiste bat. Ikuspuntu horretatik, haien erreakzioa ulergarria da. Filmak entretenitzeko balio duen zerbait gisa ikusi behar dira, noski. Hori da haien zentzua.
- Gaur egun, jendea ez da larritzen filmak ikusteko orduan.
- Bai, ados nengo horietako bat izango banintz, ez dutelako sekula filmerik ikusi.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasa edo lausoa.

- Macondoko jendea bezalakoa naiz ni, askotan pentsatzen baitut filmak ikustea denbora galtzea dela.
- Filmak maite ditut. Haien erreakzioa ezin dezaket ulertu.

EDO Materialaren gaineko ulermen okerra erakusten du edo erantzun itxuragabea edo hutsala ematen du.


- Bai, dirudienez, filmak erlaxatzeko eta ikusten errazak izan beharrean, errealistak eta hunkigarriak ziren. Filmak entretenitzeko modu bat dira, ihesbide bat eta bizitza errealeko arazoak ahazteko modu bat, gure aurpegieta irribarre bat zintzilikatzeko. Macondoko jendea desengainaturik zegoen, ikusten zituzten filmak ez zirelako lasaigarriak, mamitsuak baizik, eta entretenitzeko zerbaite gura zuten. *[Lehen bi esaldiak ez daukate galderarekin zerikusirik. Azken esaldiak testua gaizki ulertu dela adierazten du].*
- Ez, filmak garestiagoak izan beharko lirateke eta zinemak ontziak uzteko erretiluak, palomitak, krispetak, Coca-Cola hotzak eta piruleta eduki. Beso-euskarriak altxatu egin beharko ziren, hankak atsedean hartzekoak, eta surround soinua. *[Baliteke txiste bat izatea, baina ez bada – testua gaizki irakurri da].*
- Gaur egun bada araudi bat zinemako ondasunak apurtzea galarazten duena. *[Erantzunak jokabidea azaltzen du, ez jarrera].*
- Zinema hobeak ditugu, egun. *[Hutsala].*
- Bai, izan ere, filma ez zen oso ona eta haien onetik atera zien. *[Galdera ez da behar bezala ulertu].*

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Hau *hausnartzeko eta ebaluatzeko* galderaren adibide ona da; bertan irakurleei esperientzia eta ideia propioetara jotzeko eta testuan azaldutakoekin alderatzeko eskatzen zaie. Galdera honetan puntuatzeko, ikasleek Macondoko jendeari egotzitako ikuspuntuak balioetsi behar dituzte beren munduaren ezagutzarekin alderatuta, eta testuan esandakoa eta adierazi nahi izan dena ulertu dutela frogatu behar dute. Galdera mota honek balioespen kritikorik eskatzen ez duen arren –nolabaiteko analisi edo arrazoiketa formala aplikatzeari dagokionez–, kontakizunean inplikatzeko eskatzen du, edukia sinesmen pertsonalekin alderatzeraino. Kodifikazio-gidak erantzun kontraesankorrek puntuaziorik altuena eskura dezaketela adierazten du, aztertutako gaiaren ulermena eta norberaren hausnarketa frogatzen den heinean, betiere (esaterako, alderatu “Bai, ados nago, sufrimendu nahikoa dago munduan jada, hura bestela asmatzen hasteko”, beste honekin, “Ez, jendeak jakin badaki zinemara zoazenean pantailan gertatzen ari den hori benetakoa ez dela”). Proba pilotuan parte hartutako ikasleen erdiak inguruk puntuatzea lortu zuen galdera horretan.

LIBURUTEGIAREN PLANOA



Liburutegiko planoa (unitatearen oinarria da) laneko inguruneetan, ingurune pertsonaletan, publikoetan eta hezkuntzako inguruneetan topatu ohi den testu ez-jarraituaren adibidea da. Adibidearen testuingurua *publikotzat* definitzen da, planoa komunitateko jarduerekin (liburutegi publikoa) lotuta dagoelako eta irakurlearekiko harreman anonimoa ekartzen duelako. Testu motari dagokionez, planoa deskribapen moduan sailkatzen da, jasotzen duen informazioak objektuek espazioan duten ezaugarriak eta haien arteko loturari egiten baitie erreferentzia.

1. galdera: LIBURUTEGIAREN PLANOA

Eskolan, frantsesez idatziriko liburu bat irakurtzeko eskatu dizute. Aurreko planoan, marraz ezazu borobil bat mailegatzeko liburu egokia topatuko zenukeen atalean.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Elementu batekin bat egiten duen informazioa topatzea, behe mailako inferentzia eginez.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Deskripzioa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun laburrekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa


1 kodea: “Beste hizkuntza batzuk” hitzak biribildu ditu edo hitzen ondoko marrak (apalak).



[Ez hartu kontuan urratutako erantzuna].

Krediturik ez

0. kodea: Beste erantzun batzuk, marraztutako biribilak barne, maparen beste ezaugarri batzuk barne hartzen dituztenak.



9. kodea: Erantzun gabe

Analisia

Erantzun laburreko galdera honek informazioaren ataleko datu esanguratsuak bilatzera, topatzera eta hautatzera behartzen du irakurlea: kasu honetan, planoak. Eskatutako informazioa leku bakarrean dago hainbat lekutan egon beharrean, eta horrek, seguru asko, zailtasuna murrizten du. Bestalde, ariketako hitzen eta planoko inskripzioaren arteko elkarrekotasuna ez da literala: inferentzia egin beharra dago "frantsesa" "beste hizkuntza batzuk" kategorian sartzeko. (Itzulpenerako eta egokitzapenerako oharrak adierazten zuen galderaren bertsio nazionaletan aipatutako hizkuntzak ikastetxeetan irakatsi ohi den atzerriko hizkuntzetako bat izan behar duela). Hala eta guztiz ere, nahiko galdera erraza da: proba pilotuan parte hartu zuten ikasleen ia lau bosten liburutegiko atal zuzena identifikatzeko gai izan ziren. Puntuaziorik altuenari dagozkion adibideetan adierazten den moduan, ikasleek hainbat modutara marka zezaketen testua erantzuna adierazteko. Galdera espezifikoak borobila marraztu behar dela dioen arren, erantzunaren formatua ez da puntuazioa emateko irizpide nagusia: erantzunak galderaren xedeari argi erantzutea da funtsezkoa, hau da, "elementu batekin bat egiten duen informazioa topatzea, behe mailako inferentzia eginda".

2. galdera: LIBURUTEGIAREN PLANOA

Non daude *Liburu berriak* ipinita?

- A. Fikzioarne sailean.
- B. Ez-fikzioaren sailean.
- C. Sarreratik gertu.
- D. Informazio mahaitik gertu.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Oharra: C aukera erantzun zuzena da: “*Sarreratik gertu*”: Nolanahi ere, galderak informatzeko xedea besterik ez du eta, ondorioz, ez du punturik ematen. Ikasleek 3. galderari emandako erantzuna balioestean hartuko da kontuan erantzuna.

3. galdera: LIBURUTEGIAREN PLANOA

Azal ezazu zergatik aukeratu den leku hori *Liburu berriak* jartzeko.

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testu baten edukiaren gainean hausnartzea.

Itemaren helburua: Plano batean elementu baten kokapenari buruzko hipotesiak gauzatzea, norbanakoaren ezagutzak eta esperientziak kontuan izanda.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Deskripzioa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Aurreko galderaren erantzuna zuzena. "Sarreratik gertu" erantzunarekin bat datorren azalpen bat ematen du.

- Sartu bezain laster ikusiko ditu jendeak.
- Gainerako liburutatik aparte daude, eta jendeak erraz aurkituko ditu.
- Beraz, jendeak liburu horiek ikus ditzake lehenengo. *[Liburu berriak sarreratik gertu daudela adierazten du.]*
- Begi-bistan egoteko.
- Liburuak begi-bistan daude eta ez apaletan ezkutaturik, haiek bilatzea ekarriko lukeena.
- Fikzioaren sailerako bidean daude.

EDO: Aurreko galderaren erantzuna zuzena. Sarrera ez den liburutegiko beste toki baten aldean liburu berriak duten kokapena ulertzen duela frogatzen duen azalpena ematen du.

- Nagusiek begiratu bat egiten duten bitartean, umeek jolasteko aukera dute. *[Liburu berriak Jolasteko sailetik hurbil daudela adierazten du]*.
- Jendeak liburuak itzultzen dituenean, berriak ikusiko ditu.

Kreditu partziala

1 kodea: Aurreko galderaren erantzuna ez da zuzena. Aurreko galderarako emandako erantzunarekin bat datorren azalpen bat ematen du.

- [2. galderari emandako erantzuna: Fikzioaren sailean.] Liburutegiko zati hau jende gehienak erabiliko lukeena delako, eta hortaz liburu berrietaz jabetuko litzateke.
- [2. galderari emandako erantzuna: Informazio mahaitik gertu.] Informazio mahaiaren ondoan daudenez, liburuzainak liburuak buruzko galderei erantzun diezaike.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasa edo lausoa ematen du, aurreko galderaren erantzuna zuzena edo okerra den aintzat hartu gabe.

- Leku onena delako.
- Sarreraren alboan daude leku horretan ere. *[Liburu berriak non dauden adierazten du, baina azalpenik eman gabe]*.
- Liburu berriak iradokizun kutxaren alboan daude. *[Liburu berriak non dauden adierazten du, baina azalpenik eman gabe]*.

EDO Materialaren gaineko ulermen okerra erakusten du edo erantzun itxuragabea edo hutsala ematen du, aurreko galderaren erantzuna zuzena edo okerra den aintzat hartu gabe.

- Beraz, jendeak antzemango lituzke egunkaria irakurtzen dagoenean. *[Okerra da – liburu berriak egunkarien ondoan daudela adierazten du.]*.
- Haiek jartzeko bestelako lekurik ez dagoelako. *[Itxuragabea]*.
- Bada liburu berriak irakurtzea gustuko duen jendea. *[Galderarekin bat ez datorren erantzuna]*.
- 2. galderari emandako erantzuna: Fikzioaren sailean.] Erraz aurki ahal izateko. *[2. galderari emandako erantzunarekin ez dator bat.]*.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ariketa honetarako kodetze-irizpideak nahiko konplexuak dira. Bi galdera planteatu dira –aukera anitzekoa bata eta eraikitako erantzunekoa bestea–, baina bigarrena soilik kodetuko da zuzenean. Ariketa *hausnartzea eta baloratzea* eskalan jasotzen denez, aukera anitzeko osagaiak –bereziki informazioa eskuratzea eskatzen duenak– ez du bere horretan punturik lortzea esan nahi. Aukera anitzeko galdera, ordea, kontuan hartzen da eraikitako erantzunaren bigarren galdera kodetzean.

Puntuaziorik altuena lortzeko, erantzunak planoaren irakurketa zuzenaz gain (Liburu berriak sarreratik gertu kokatzea), Liburu berriak leku horretan jartzeko arrazoiaren hipotesia jaso behar du. Hipotesi hori formulatzeko, irakurleek beren esperientziatara edo ezagutzetara jo behar dute –kasu honetan, liburutegien funtzionamenduari eta jendeak egiten duen erabilerari buruz–. PISA azterketaren testuinguruan, eskatutako kanpo-ezagutza ustez 15 urteko gazteek duten esperientziaren parte da.

Puntuazio partziala lortu dute Liburu berriak planoan behar bezala topatzea lortzen ez badute, baina leku jakin horretan kokatzeko arrazoi sinesgarriko hipotesia formulatzeko gai izan badira. Puntuaziorik handiena lortzen duten erantzunak bezala, erantzun mota horrek ere edukiari buruz hausnartzeko helburua betetzen du, eta ariketa honetan funtsezkoa da hori.

Galdera erraza zen hori eta proba pilotuan parte hartutako ikasleen lau bostenek baino gehiagok gehieneko puntuazioa eskuratu zuen.

IKASLEEN IRITZIAK

Han hemen hainbeste jende gosez eta gaixotasunez hiltzen ari den bitartean, gu, aldiz, etorkizunak ekar ditzakeen aurrerapenez kezkatu bizi gara. Jende hori guztia gure atzean uzten ari gara, horietaz ahaztu eta aurrera egiten saiatuz. Urtero, enpresa handiek bilioika dolar gastatzen dute espazioa ikertzen. Espazioa ikertzen gastatzen den dirua, diruzaleak laguntzeko erabili beharrean, behartsuak laguntzeko erabiliko balitz, hainbat milioi pertsonen sufrimendua arinagoa izango litzateke.

Enara

Espazioa ikertzeko erronka inspirazio iturri da jende askorentzat. Milaka urtetan zeruekin amets egin dugu, altxatu eta izarrek ukitzeko irrikaz egon gara, irudimenean baino ez geneukan zerbaitekin komunikatzeko irrikaz, bakarrik ote gauden-edo jakiteko.

Espazioaren ikerketa ikastearen metafora da, eta ikastea da gure mundua funtzionarazten duena. Errealistek eguneroko arazoak gogora ekartzen dizkiguten bitartean, ameslariak gogoia zabaltzen digute. Etorkizunera joateko bidea irekiko dutenak ameslarien irudimenak, itxaropenak eta nahiak izango dira.

Beatriz

Euri-oihanen azpian petrolio dagoelako, suntsitu egiten ditugu, eta lur sakratuan meategiak jartzen ditugu uranioa ustiatzeko. Guk geuk sortarazten ditugun arazoei aurre egiteko, beste planetaren bat suntsitzeko gauza izango ginateke? Bai horixe!

Batzuek uste dute gizakion arazoak ingurumena gero eta gehiago geure menpe hartuz konponduko ditugula. Espazioaren ikerketak uste arriskutsu hori indartu egiten du. Hor inguruan ustiagarri den beste planetaren bat badagoela jakinez gero, gizakiek aske ikusiko dituzte beren buruak ibaiak eta euri-oihanak bezalako baliabide naturalak neurritz kanpo ustiatzen jarraitzeko.

Nahikoa kalte egin diogu Lurrari. Espazioa bakean utzi beharko genuke.

Diego

Lurreko baliabideak agortzen ari dira azkar. Izugarria da Lurreko biztanle kopuruaren hazkunde maila. Horrela jarraituz gero, ezin izango bizitzari eutsi. Kutsadurak zuloa zabaltzen du ozono-geruzan. Lur emankorrak gero eta gutxiago dira eta, laster, gure janari-baliabideak murriztuko dira. Gainpopulazioak eragindako gosetea eta gaixotasunak dagoeneko hor dira.

Gure onerako erabil dezakegun esparru handi eta hutsa da espazioa. Espazioaren ikerketa sustatzen badugu, agian egunen batean bizitzeko beste planeta bat topatuko dugu. Horrek guztiak gaur egun imajinaezina dirudi, baina espaziotik bidaiatzeko ideiak berak ere ezinezkoa zirudien lehen. Oraitxe bertan dauzkagun arazoei irtenbidea emateko, espazioaren ikerketa geldiaraztea, oso ikusmira estua da, epe motzera begiratzea. Gurera begiratzea bakarrik barik, hurrengo belaunaldietan pentsatzen ikasi behar dugu.

Joseba

Gizateria osoarentzat galera ikaragarria izango litzateke espazioaren ikerketak ekar dezakeenari muzin egitea. Unibertsoa hobeto ezagutzeko aukera eta bere sorrera hobeto ulertzeko aukera oso da balio handikoa eta ezin da alperrik galdu. Zeruko beste planeta eta satelite batzuk ezagutzeak gure ingurumenaren arazoak ulertzen lagundu digu, baita Lurra norantza jo dezakeen norabide posiblea ere gure jardura kontrolatzen ikasten ez badugu.

Espaziotik bidaiatzeko ikerketek zeharkako onurak ere ekarri dituzte. Laser teknologia, eta medikuntzan erabiltzen diren beste tratamendu batzuk, espazioan aritzeko ikerketek esker sortu dira. Espaziotik bidaiatzeko gizakien beharrei erantzuteko tefloi bezalako materialak sortu dira. Beraz, espazioa ikertzen sortutako teknologia berriak, epe motzean, guztiontzako izan daitezke probetxagarriak.

Karmele

Aurreko pasarteak, ikasketen azken urtean zeuden hainbat ikasle idatzi zituzten. Begiratu itzazu ondorengo galderei erantzuteko:

*Ikasleen iritziak unitateko estimuluak espazioaren ikerketari buruzko bost argudio-testu labur ditu. Azkeneko mailako ikasleen idatzietan oinarritzen denez, testua hezkuntzan sailkatzen da egoeraren ikuspuntutik. Unitateko estimulua osatzen duten zati labur guztiak jarraituak dira, baina independenteki sortu zirenez –ondoan jarrita ageri dira ebaluazioaren ondorioetarako–, formatuaren kategoria *testu anitzei* dagokie. Estimulua argudiozko gisa sailkatzen da, testuek proposizioak azaltzen baitituzte eta irakurlea ikuspuntu jakinari buruz konbentzitzea baitute xede.*

1. galdera: IKASLEEN IRITZIAK

Ondorengo galderen artean zein da ikasleek erantzun omen dutena?

- A. Zein da munduaren gaur egungo arazorik handiena?
- B. Espazioa ikertzearen aldekoa zara?
- C. Gure planetatik kanpo bizitzarik badela uste duzu?
- D. Zeintzuk dira espazioaren ikerkuntzan agertu diren aurrerakuntza berriak?

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: ulermen zabala edukitzea: testuen funtsa ulertzea.

Itemaren helburua: Testu labur batzuek duten gai komuna identifikatzea.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Hezkuntzako.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Espazioa ikertzearen aldekoa zara?

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ulermen orokorreko garapen-galdera askotan bezala, galdera honek ikaslea testu zati batean baino gehiagotan oinarritzea eskatzen du, hortik ondorioztatuko baitu gaia, bost testu laburretako bakoitzean informazioaren kategoria jakina identifikatzean. Eskainitako lau aukeretatik testu guztietara aplikatuko dena hautatu behar du. Horrelako ariketa motak ikasleak ideia nagusiak bereizten eta orokortzen ote dakien erakusten du. Bi herenek baino gutxiagok lortu zituen puntuak galdera horrekin. Aukera zuzena egin ez zuten gehienek erantzuteko lehen aukera hautatu zuten: "Zein da munduaren gaur egungo arazorik handiena?". Hori azalduko lukeen arrazoi bat da aukera hori lehen testuari aplikagarria izatea eta agian nolabaiteko "erreserbako gaia" adieraz dezake, ikasleek topatzea espero dutena, testu guztiek erantzuten duten gaia izan beharrean.

2. galdera: IKASLEEN IRITZIAK

Noren testua da Josebaren iritziari **zuzenean** aurre egiten diona?

- A. Diegorena.
- B. Enararena.
- C. Karmelerena.
- D. Beatrizena.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Kontra-argudio bat antzematea.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Hezkuntzako.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Diegorena.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Proba pilotuko ikasleen herenak baino gutxiagok aukeratu zuen erantzun zuzena eta galdera honen zailtasuna hainbat faktoreren mende egon daiteke. Lehenik eta behin, antzekotasuna topatzea baino zailagoa den aldea identifikatu behar da. Bigarren, ez dago iritzi kontrajarriak adierazten ari direla azaltzen duen markatzaile espliziturik (adibidez: “alde” edo “aurka”); irakurleak inferitu behar ditu loturak. Josebaren iritziekiko alderaketa hainbat bider egin behar izatea, ikasleen lau iritzietako bakoitzarekin, zailtasun gehigarria da. Gainera, ez da kontraesanaren oinarria adierazten. Ikasleek beren alderaketa-kategoriak sortu behar dituzte; kasu honetan, ez espazioiko ikerketaren abantaila buruzko iritzi kontrajarriak bakarrik, baita horien oinarriak ere: Josebak ez bezala, Enarak eta Diegok espazioaren ikerketa ideia okerra dela defendatzen dute; Diegok soilik egiten dio kontra zuzenean Josebaren iritziari, espazioaren ikerketarekin jarraitzeko arrazoia Lurreko baliabideen murrizketaren arazoa jorratzea dela dioenari.

3. galdera: IKASLEEN IRITZIAK

Bost ikasleek adierazitako ideia nagusiak irakurri ondoren, zein da zure iritzitik hurbilen dagoena?

Ikaslearen izena:

Azal ezazu zure aukera zure hitzak erabiliz. Aipa itzazu zure iritzi propioa **eta** aukeratutako ikaslearen ideia nagusiak.

.....

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuaren edukiaren gainean hausnartzea eta baloratzea.

Itemaren helburua: Testu batean norberaren ezagutzari eta balioei begira egindako adierazpenak balioestea.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Hautatutako ikaslearen jarrera zuzen ulertu duela erakusten du, espazioaren ikerketa aintzat hartuz ETA horrekin ados egoteko arrazoiak azaltzen ditu. Hautatutako ikasleari soilik dagokion argumentua edo argumentu multzoa identifikatu behar du (hau da, ikaslea espazioa ikertzearen alde edo kontra dagoen baino gehiago adierazi behar da). Hautatutako ikaslearen argumentu nagusietako bat aipatu behar du argi eta garbi edo inplizituki:

- (1) aldeko argumentu propioa eskainiz (kasu honetan, erantzunak testuko hitzak aipa ditzake edo testu bera hitzez hitz parafraseatu); ETA/EDO
- (2) hautatutako ikaslearen argumentua interpretatzeko edo laburtzeko norberaren hitzak erabiliz.

Ikasle bakoitzaren argumentu nagusiak (nagusiek) ondokoa dio(te):

Enara: Enara espazioa ikertzearen kontra dagoela adierazi edo jo behar du eta haren argumentua, hots, baliabideak espazioa ikertzeko baino, gizakiak laguntzeko erabili beharko genituzkeela argi edo inplizituki aipatu behar du.

- Askoz garrantzitsuagoa da Lurrean dagoen jendea laguntzea, dirua espazioa ikertzeko teknologian gastatzea baino. *[Bere hitzak erabiltzen ditu Enararen argumentua berriro azaltzeko].*
- Enara – Gure munduan gertatzen ari denaz arduratu beharko ginatekeela uste dut, dirua espazio ikerketetan xahutu beharrean. Zenbait ikerketen garrantzia ulertzen badut ere, lehenengo gaixotasunei eta goseteei aurre egin beharko zitzaieela uste dut. *[Enararen argumentua bere hitzekin laburbiltzen du eta bere azalpen propioa gaineratzen du].*

Beatriz: Beatriz espazioa ikertzearen alde dagoela adierazi edo jo behar du eta haren argumentua, hots, espazio ikerketa giza erronkaren adierazpen positiboa dela argi edo inplizituki aipatu behar du. Epe luzerako ikuspuntua duelako Beatrizen kezka aipa dezake baina Josebaren ikuspuntutik bereizi egin behar du argi eta garbi edo inplizituki.

- Beatriz – “Espazioaren ikerketa ikastearen metafora da”. Gure etorkizuna zabaltzeak ez dut uste kalterik eragingo duenik. *[Pasartetik hartutako aipua eta bigarren esaldian bere argumentu propioarekin sostengatzen du].*

Diego: Diego espazioa ikertzearen kontra dagoela adierazi edo jo behar du, eta haren argumentua, hots, espazioaren ikerketa ingurumena kaltetzearekin loturik dagoela argi edo inplizituki adierazi behar du, EDO gizakiok aukerarik izatekotan espazioa kaltetuko dugula, EDO espazioaren ikerketak Lurra are gehiago kaltetzea eragiten digula. Diegoren lehentasuna Lurraren ingurumena hobetzea iradokitzen duten erantzunak EDO guk aldatu egin behar dugula edo gure jarrerak aldatu behar ditugula iradokitzen duten erantzunak onartu.

- Diego – Berarekin ados nago, ingurumenak kezkatzen du eta kanpoko espazioa bakean utzi beharko genukeela uste du. *[Hitz propioak erabiltzen ditu Diegoren argumentuaren alderdi nagusietako bat laburtzeko].*
- Diego: Diegok dio ingurumena hondatzeari utzi beharko geniokeela. Uste dut gure planetak aurre egiten ari dion arazorik garrantzitsuena dela hau. *[Diegoren arrazoi nagusietako bat laburtzen du eta hura sostengatzeko iritzi bat*

ematen du. Diegok espazioaren ikerketari buruz duen jarrera inplizituki ulertu duela adierazten du].

Joseba: Joseba espazioa ikertzearen alde dagoela adierazi edo jo behar du, eta haren argumentua, hots, gizakiok bizitzeko beste planeta bat behar dugula argi edo inplizituki adierazi behar du ETA/EDO bizitzak ezingo duela gure planetan iraunarazi. Ingurumenak Joseba kezkatzen duela aipa dezake, baina Diegok duen jarreratik argi edo inplizituki bereizi behar du Josebarena. Epe luzerako ikuspuntua hartu beharraren Josebaren kezka aipa dezake, baina Beatrizen jarreratik argi edo inplizituki bereizi behar du.

- Joseba: Josebarekin bat nator, baldin eta desagertzeko irrikaz ez bagaude, ez baita egongo bizitzera joateko beste lekurik lurra hondatu ostean. [Josebaren argumentu nagusietako bat azaltzen du berriro].

Karmele: Karmele espazioa ikertzearen alde dagoela adierazi edo jo behar du, eta haren argumentua, hots, espazioa ikertzeak gure ezagutza maila areagotzea ekartzen duela argi edo inplizituki adierazi behar du ETA/EDO espazioa ikertzetik ikasten duguna beste gauza batzuei ezar diezaiekegula.

- Karmele: Gure ezagutza maila zabaltzen ari gara une oro modu ezberdinetan espazioaren ikerketari esker. [Karmeleren argumentu nagusia laburtzen du].

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasa edo lausoa ematen du edo argumentuaren (garrantzi gutxiko) xehetasun batean fokatzen da.

- Enara: Ez genuke jendea atzean utzi behar ahazten eta aurrera egiten saiatzen garenean. [Ez du parafraseatu besterik egin].
- Enara: Enararekin bat nator, espazioa ikertzeko gastatutako dirua behar dutenen onurarako erabil zitekeelako. [Ez du parafraseatu besterik egin].
- Karmele: Argumentu onenak ematen dituelako. [Hutsala].
- Joseba: Josebak dio bizitzari ezin zaiola eutsi Lurrean, beraz, bizitzeko beste planeta bat topatu behar dugu. [Ez du parafraseatu besterik egin].
- Joseba – onena. [Erantzun hutsala].
- Ana – bere iritzia benetakoa da eta zuzena. [Ez ditu argumentuaren ideia nagusiak aipatzen].
- Joseba, ozono geruzako zuloa arazo larria delako. [Argumentuaren xehetasun bakanean fokatzen da].
- Joseba – ingurumenak asko kezkatzen du. Eta natura errespetatzen duen mutil aparta delako. [Ez du Josebaren jarrera Diegoren jarreratik bereizi: ingurumenak bi-biak kezkatzen ditu].
- Joseba – ingurumenak asko kezkatzen du. Eta natura errespetatzen duen mutil aparta delako. [Ez du Josebaren jarrera Diegoren jarreratik bereizi: ingurumenak bi-biak kezkatzen ditu].

- Beatriz, bat nator esaten duenean, espazioa ikertzea garrantzitsua dela gure etorkizunerako. *[Ez du Beatrizen jarrera Josebaren jarreratik bereizi: biak daude espazioa ikertzearen alde eta biek aipatzen dute epe luzerako ikuspuntua].*

EDO: Materialaren gaineko ulermen okerra erakusten du edo erantzun itxuragabea edo hutsala ematen du.

- Beatriz: Giza arraza ez da iraunarazteko gai izango Lurrean askoz gehiago, horregatik beste leku batera joan behar dugu. *[Beatrizen argumentua txarto ulertu du].*
- Karmele – arrazoa dauka, Lurrak baliabide guztiak agortuko baititu laster eta orduan, zer egingo dugu? *[Karmeleren argumentuaren laburpen okerra (Josebarenarekin nahastu duela dirudi)].*
- Erronka – Guztiaren gainetik erronkak ditut gustuko. *[Erantzun hutsala].*

9. kodea: Erantzun gabe

Analisia

Ariketa horretan, ikasleek beren ezagutzetara eta sinesmenetara jo behar dute aurkeztutako argudioak balioesteko, testuen forma alderatu beharrean edukia konparatuz. Hortaz, bost alderdien kategoriaren barruan, ariketa honela sailkatzen da: *testuaren edukiari buruzko hausnarketa*. Galdera puntuatzeko, aukeratutako ikasleak aurkeztutako argudioaren ideia nagusia ulertu dutela frogatu behar dute –inplizituki edo esplizituki– eta, era berean, horren posizioa justifikatu behar dute, hori bultzatuko duen norberaren argudioa azalduta edo aukeratutako argudioa laburbilduta edo interpretatuta.

Izendatutako ikaslea albo batera utzita eskura daiteke puntuaziorik altuena, aurrez laburbildutako irizpideak betetzean, betiere.

Puntuaziorik lortu ez zuten erantzunetan, askotan testuen zatiak errepikatzen ziren besterik gabe, eta ariketan norberaren hitzak erabiltzeko eskatzen zen. Puntuaziorik lortu ez zuten beste erantzun batzuk ez ziren zehatzak izan edo iritzi orokorra azaltzen zuten, testuetako bati erreferentzia eginez berretsi gabe (adibidez, *“Diego. Izan gaitezen errealistak”*).

4. galdera: IKASLEEN IRITZIAK

Hainbat adierazpenetan ikasleen iritzia azaltzen dira, eta iritzia bakoitzaren ideia eta baloreetan oinarritzen dira. Beste adierazpen batzuk, berriz, baieztapenak dira. Baieztapenak objetiboki azter daitezke, eta zuzenak edo okerrak diren esan daitezke.

Hona ikasleen esaldi batzuk. Alboan «*iritzia / baieztapena*» hitzak jarri ditugu. Borobil batekin hartu hitz horietako bat, alboko esaldiari dagokiona alegia.

Lehena egina duzu.

Ikasleek idatzitakoa	Iritzia edo baieztapena
“Kutsadurak zuloa zabaldu du ozono-geruzan”. (Joseba).	iritzia / <u>baieztapena</u>
“Urtero, enpresa handiek bilioika euro gastatzen dute espazioa ikertzen”. (Enara).	iritzia / baieztapena
“Batzuek uste dute gizakion arazoak ingurumena gero eta gehiago geure menpe hartuz konponduko ditugula. Espazioaren ikerketak uste arriskutsu hori indartu egiten du”. (Diego).	iritzia / baieztapena
“Oraintxe bertan dauzkagun arazoei irtenbidea emateko, espazioaren ikerketa geldiaraztea, oso ikusmira estua da, epe motzera begiratzea”. (Joseba).	iritzia / baieztapena

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuaren formaz hausnatzea eta baloratzea.

Itemaren helburua: Gerterak eta iritzia bereiztea.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzeko konplexua.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Erantzun zuzenak

Ikasleek idatzitakoa	Iritzia edo baieztapena
"Kutsadurak zuloa zabaldu du ozono-geruzan". (Joseba).	baieztapena
"Urtero, enpresa handiek bilioika euro gastatzen dute espazioa ikertzen". (Enara).	baieztapena
"Batzuek uste dute gizakion arazoak ingurumena gero eta gehiago geure menpe hartuz konponduko ditugula. Espazioaren ikerketak uste arriskutsu hori indartu egiten du". (Diego).	iritzia
"Oraintxe bertan dauzkagun arazoei irtenbidea emateko, espazioaren ikerketa geldiaraztea, oso ikusmira estua da, epe motzera begiratzea". (Joseba).	iritzia

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: 3 zuzen.

Punturik ez

0 kodea: 2 zuzen edo gutxiago.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Gertakariak eta iritziak bereizteko gaitasuna berebiziko garrantzia duen trebezia da, eta pertsonak maiz jo behar izaten dute gaitasun horretara, herritar eta kontsumitzaile diren aldetik, topatzen dituzten testuak, bai inprimatutako euskarrian, bai euskarri digitalean, gero eta gehiago eta gero eta sofistikatuagoak direla jakinda. Ariketa ikasleen gaitasun hori ebaluatzeke diseinatu da, baina laguntza dezente eskaintzen duen egituratutako formatuan. Lehenik eta behin, ariketak dakarren erronka mugatu egin da, balioespena bost testuetako zati labur eta argi identifikatutakoetara murriztuta. Horrez gain, testuetako bik iritzi gisa erraz topatzeko moduko terminoak dituzte: "uste arriskutsua" eta "epe motzera *begiratzea*". Azkenik, oinarri/iritzi bakoitza galderaren enuntziatuan "*iritziak*" eta "*baieztapenak*" txertatzearekin indartu egiten da. Oinarri horiekin, proba pilotuko laginean parte hartu zuten ikasleen hiru laurden baino gutxiago izan ziren taulako hiru zifrak zuzen sailkatzeke gai.

SUPERMERKATUKO OHARRA

Kakahueteei alergia dienezako oharra

Txokolatezko galletak

Oharraren data: otsailak 4

Fabrikatzailearen izena: Janari Osasungarriak SA

Produktuari buruzko informazioa: txokolatezko galletak, 125 g (Iraungitze-data: ekainak 18 eta Iraungitze-data: uztailak 1).

Xehetasunak: lote horietako zenbait galletak kakahuete zatiak izan ditzakete, eta kakahueteak ez dira ageri osagaien zerrendan. Kakahuetei alergia dienez ez lituzkete galleta horiek jan behar.

Zer egin dezake kontsumitzaileak?: galleta horiek erosi baldin badituzu, erosi zenituen tokira eraman ditzakezu, dirua itzul diezazuten. Edo, informazio gehiagorako, deitu 900 24 58 96 telefono zenbakira.

Oharra supermerkatu batean egon zen ikusgai. Erabili oharra ondoko galdera hauek erantzuteko:

Ohar publiko hau ohiko funtzioa duen testu oso laburrak osatzen du: kontsumitzaileei produktuak izan dezakeen arriskuaz ohartaraztea eta itzul dezaten aholkatzea, dirua bueltatu diezaieten. Estimuluaren formatuak produktuak kentzeko oharren nazioarteko arauak islatzen dituen arren, baliteke ikasle askok halako ohartarazpenik ez ikusi izana. Dena den,

ohartarazpenaren edukia argi eta garbi adierazi da eta gutxieneko hitz kopurua erabili da. Txokolatezko galletak izan ziren hautatutako produktua, ezagunak eta erakargarriak direlako. Galdera erraz eta laburrak egiteko, probako diseinugileak eduki ezaguneko estimulu arruntak erabiltzen ahalegindu ziren. Horren xedea ez zen galderen karga kognitiboa arintzea, irakurmen-gaitasun urria dutenak ikaratzeko aukera gutxiko testuak aurkeztea baizik; izan ere, irakurle horiek erraz amore eman dezakete oso zaila edo luzea iruditzen zaiena irakurtzeko ahaleginean. Testu-formatuari dagokionez, supermerkatuko oharra *ez-jarraitutzat* sailkatzen da, definitutako ezaugarri-zerrenda luzea duelako. Testu motari dagokionez, oharra *instrukziozkoa* da: produktua erosiz gero zer egin adierazten baitu.

1. galdera: SUPERMERKATUKO OHARRA

Zein da ohar horren helburua?

- A. Txokolatezko galletei buruzko publizitatea egitea.
- B. Jendeari galletak noiz egin ziren jakinaraztea.
- C. Jendeari galleten gaineko oharra ematea.
- D. Txokolatezko galletak non erosi azaltzea.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalatekin.

Itemaren helburua: Testu labur bateko ideia nagusia ulertzea elkarren ondoan diren informazio zatiak bateratuz.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Instrukziozkoa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Jendeari galleten gaineko oharra ematea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera honi zuzen erantzuteko, ikasleek testua orokorrean ulertu behar dute, azken xedea identifikatze aldera. Hain zuzen, A eta D erantzuteko aukerak baztertzeko, testua produktu jakinari buruzkoa den arren, jabetu behar dute ez dela iragarkia, oharra baizik. Galdera erraza zen eta erraztasuna, hein handian, testuaren laburtasunari zor zaio.

2. galdera: SUPERMERKATUKO OHARRA

Zein da galletak egin dituen enpresaren izena?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Testu labur batean sinonimoak bilatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Instrukziozkoa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun itxia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Zuzen identifikatu du fabrikatzailearen izena:

- Janari osasungarriak.
- Janari osasungarriak SA.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du:

- Fabrikatzailea.
- Norbait.
- Enpresa.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Txokolatea.
- Supermerkatua.
- Okina.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera honi zuzen erantzuteko, ikasleek testuan esplizituki aipatutako datu bakarra topatu behar dute, ariketako adierazpenen eta testuaren arteko sinonimo bidezko elkarrekikotasuna erabilia (enpresa/fabrikatzailea). Testua osotasunean laburra izateak eta beharrezko informazioa ia hasieran egoteak ariketa errazten du. Ariketari dagokion erantzun-formatua eraikitzeke erantzun itxi delakoa da, erantzun bakarrak (oso bariazio-aukera txikiarekin: Janari Osasungarriak edo Janari Osasungarriak SA) eskuratuko baitu puntuaziorik altuena.

3. galdera: SUPERMERKATUKO OHARRA

Zer egingo zenuke **zuk** galleta horiek erosi izan bazenitu?

.....

Zergatik egingo zenuke hori?

Erabili testuko informazioa zure erantzuna arrazoitzeko.

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia balioestea.

Itemaren helburua: Hipotesia egitea, testu bateko informazioari erantzuteko aukera pertsonal baten inguruan.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Instrukziozkoa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Eraikitzeke erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Puntuazioari buruzko oharra: bildu entzunak elementu bakar gisa. Beheko kodeen gidan, 3A lehenengo atalari dagokio, eta 3B bigarren atalari.

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: 3A: Galletak itzuliz gero, agian dirua itzuliko digutela ulertu izanarekin bat datorren erantzuna eman du. Galletak jatea, galletak ez jatea, galletak itzultzea edo bestelako moduren batean galletak botatzea esan nahi dezake, ETA

3B: Testuarekin eta 3A galderaren erantzunarekin bat datorren azalpena eman du.

- ☐ (3A):
 - Dirua itzultzeko eskatuko nuke.
- ☐ (3B):
 - Horixe egiteko esaten baitu oharrak.
 - Kakahuetei alergia diedalako.
 - Zerbait gaizki egin dutelako.
 - (Beste) zerbait gaizki egon daitekeelako.
 - Ez zaizkidalako kakahueteak gustatzen.
- ☐ (3A):
 - Bota egingo nituzke.
- ☐ (3B):
 - Kakahuetei alergia diedalako.
 - Zerbait gaizki egon daitekeelako.
- ☐ (3A):
 - Jan egingo nituzke.
- ☐ (3B):
 - Kakahueteek ez didatelako kalterik egiten.
 - Ez diedalako alergia alergia kakahuetei.
 - Kakahueteak gogoko ditudalako.
- ☐ (3A):
 - Ikaskideari emango nizkioke.
- ☐ (3B):
 - Berak ez die alergia kakahuetei.
- ☐ (3A):
 - Ezer ere ez.
- ☐ (3B):
 - Ez diedalako alergia kakahuetei.
 - Ez dudalako batere gogorik berriro dendara joateko.

3A: Testuko atal egoki batetik hartutakoa aipatu edo atal hori parafaseatu du azalpen gehiagorik eman gabe (testuak zer egin adierazten duela eta beste azalpenik ez dela behar esan nahi du):

- ☐ (3A):
 - Produktua erosi nuen tokira itzuli, zenbateko osoa itzul diezadaten. Edo, informazio gehiagorako, 900 24 58 96 telefono zenbakira deitu.
- ☐ (3B) (erantzunik ez).
- ☐ (3A):
 - Produktua erosi nuen tokira itzuli, zenbateko osoa itzultzeko.
- ☐ (3B) (erantzunik ez).
- ☐ (3A):
 - Informazio gehiagorako, 900 24 58 96 telefono zenbakira deitu.
- ☐ (3B) (erantzunik ez).

- ☐ (3A):
 - Informazio gehiagorako, telefono zenbakira deitu.
- ☐ (3B) (erantzunik ez).

3A: Erantzunik ez ETA 3B: zergatik ez lukeen ezer egingo azaldu du:

- ☐ (3A) (erantzunik ez).
- ☐ (3B):
 - Ez diedalako alergia-rik kakahuetei.
- ☐ (3A) (erantzunik ez).
- ☐ (3B):
 - Ez dudalako batere gogorik berriro dendara joateko.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du:

- ☐ (3A):
 - Ez dakit.
- ☐ (3B):
 - Agian kakahueteak izango dituztelako.
- ☐ (3A):
 - Jan.
- ☐ (3B):
 - Agian kakahueteak egongo direlako.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- ☐ (3A) (erantzunik ez).
- ☐ (3B):
 - Intxaurrik baduten begiratuko nuke.
- ☐ (3A):
 - Jan.
- ☐ (3B):
 - Jateko moduko itxura dutelako.
- ☐ (3A):
 - Norbaiti emango nizkioke.
- ☐ (3B):
 - Ez du axola.
- ☐ (3A) (erantzunik ez).
- ☐ (3B):
 - Alergia diedalako kakahuetei.
- ☐ (3A) (erantzunik ez).
- ☐ (3B):
 - Kakahueteak arriskutsuak izan daitezkeelako.

- ☐ (3A):
 - Bota egingo nituzke.
- ☐ (3B):
 - Iraungitze data pasatuta dagoelako.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera honetan, ikasleek testuaren informazioari emango lioketen erantzun pertsonalaren hipotesia formulatu behar dute. Galderak lehentasun pertsonaletan eta ustezko jarreretan oinarritutako balioespena eskatzen duenez, *hausnartzea eta baloratzea* moduan sailka daiteke. Kodifikazio-gidak puntuaziorik altuena eskuratu dezaketen erantzun ugari daudela erakusten du, erantzuna testuko bi ideia nagusirekin koherentea den heinean, betiere: lehenik eta behin, galletak itzuli ahal izatea eta, bigarren, galletak arriskutsuak izan daitezkeela adieraztea. Galdera erraza da eta proba pilotuan ebaluatutako ikasleen lau bostenek baino gehiagok gehieneko puntuazioa eskuratu zuten. Galderak eskatzen duen hausnarketa urriarekin azal daiteke horren erraztasuna, hein batean: ez da ezagutza espezializaturik behar elikagaiena bezalako gai ezagunarekin lotutako erabakiari buruzko iritzi pertsonala azaltzeko.

4. galdera: SUPERMERKATUKO OHARRA

Zergatik ageri dira oharrean *iraungitze data*?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.
Itemaren helburua: Testu labur batean agertzen den ezaugarri arrunt baten helburua identifikatzea.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Instrukziozkoa.
Testuingurua: Publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitzeko erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Iraungitze dataren bitartez kakahueteak dituzten galleten loteak zein diren identifika daitekeela adierazi du:

- Lotea(k) identifikatzeko.
- horrela, badakizu zein paketetan dauden kakahueteak.

Punturik ez

0 kodea: Galletak noiz jan behar diren adierazi du:

- Orduan jaten ditugulako.
- Galletak noiz jan behar diren adierazteko.
- Denbora luzeegian gordeta ez edukitzeko.
- Noiz iraungitzen diren adierazteko.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Oharrak loturarik ez duela jakin dezazun.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ikasleen herenak baino gutxiagok erantzun zuen galdera zuzen. Testuaren laburtasuna eta sinpletasuna ikusita, testuaren ezaugarriek erakusten dute galderaren zailtasuna hein batean baino ez dutela azaltzen. Ikasleek testu zati jakinaren xedea identifikatu behar dute, *“iraungitze datak”*, hain zuzen. Testu zehatz horretan, aipatutako elementuaren xedean oinarritu behar izatean datza galderaren zailtasuna. Elementu horren ohiko xedea aipatuz erantzuten dutenek (hau da, kontsumitzaileari produktua kontsumitu beharreko data adierazten dietenek) ez dute punturik lortuko galdera honetan. Ildo horretatik, puntuaziorik altuena lortuko duen erantzuna espero denaren kontrakoa izango da, hau da, galderaren finkatutako zailtasun-markatzailea.

MOTOZIKLETA

Sekula esnatu al zara arazoren bat ote dagoen susmoarekin?

Halako eguna zen nirea.

Ohean eseri nintzen.

Handik pixka batera, gortinak ireki nituen.

Oso eguraldi txarra egiten zuen - euria barra-barra ari zuen.

Gero lorategirantz begiratu nuen.

Bai! Hantxe zegoen - motozikleta.

Bezperan bezain hondatuta zegoen.

Eta hankan mina sentitzen hasita nengoen.

Erabili "Motozikleta" istorioa ondoko galdera hauek erantzuteko:

*Supermerkatuko oharraren antzera, kontakizun labur eta independentea irakurmen-gaitasun urriko ikasleengan pentsatuta sartu zen. Bai gaiak, bai testuaren laburtasunak, erakargarri izaten laguntzen dute. Testuarekin lotutako galderak testuko zati jakinen interpretazioan oinarritzen dira eta gertakarian osotasunean (motor-istripua eta horren ondorioak), argi eta garbi inplizituki badago ere, ez da zuzenean aipatzen. Narraziozko testu guztietan gertatzen den moduan, zati hori *personaltzat* sailkatzen da egoerari dagokionez eta *jarraitutzat* testu-formatuaren ikuspegitik. Testuarekin lotutako galdera guztiek ondo funtzionatu zuten proba pilotuan, baina testua ez zen azterketa nagusian sartzeko hautatu, narraziozko testu mota dagoeneko beteta zegoelako.*

1. galdera: MOTOZIKLETA

Zerbait pasa zitzaion istorioko pertsonari bezperan. Zer?

- A. Eguraldi txarrak motozikleta hondatu zion.
- B. Eguraldi txarra zela eta, istorioko pertsonaiak ezin izan zuen atera.
- C. Motozikleta berria erosi zuen protagonistak.
- D. Protagonistak motozikletarekin istripua izan zuen.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Aurretik gertatutakoa ondorioztatzea istorio laburrean agertzen den informazioa erabiliz.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narraziozkoa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Protagonistak motozikletarekin istripua izan zuen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Testuarekin lotutako hiru galderak errazak ziren eta hau denetan errazena. Istorioa gertatu aurreko uneei buruzko inferentzia egiteko eskatzen die galderak ikasleei, bertan emandako informazioa erabilita. Galderaren enuntziatuak orokorki azaltzen ditu gertakariak: ez ditu ikasleak oinarritzko informazioa duen kontakizunaren zatira bidaltzen (azken bi lerroak). Hala ere, testua, oro har, hain laburra izateak ariketarako informazio esanguratsua topatzen laguntzen die. Behin topatuta, testuan azaltzen diren “motozikleta”, “hondatuta” eta “mina sentitzen hasita nengoen” adierazpenak erantzuneko “motozikletarekin istripua” adierazpenarekin lotzea inferentzia erraza da.

2. galdera: MOTOZIKLETA

“Halako eguna zen nirea”.

Nolako eguna bihurtu zen hura?

- A. Egun ona.
- B. Egun txarra.
- C. Egun zoragarria.
- D. Egun aspergarria.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Oso istorio laburrean agertzen diren gertaerak lotu esaldi deskribatzailearekin.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narraziozkoa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Egun txarra.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera oso erraza zen eta ikasleek istorioa osotasunean ulertzea eskatzen zuen, “Halako eguna zen nirea” esaldi deskribatzailea interpreta zezaten. Puntuaziorik altuena eskuratu duen ikaslea jabetzen da istorioan inplizituki aipatutako gertakariak (motozikletarekin istripua) egun txarra adierazten duela. Hiru erantzuteko aukera okerrak gutxi gorabehera maiztasun berarekin hautatu ziren. Berrito ere, testuaren laburtasunak galdera erraza eta irisgarria izatea eragiten du, baita irakurmen-gaitasun eskasa dutenentzat ere.

3. galdera: MOTOZIKLETA

Zergatik hasi du idazleak istorioa galdera batekin?

- A. Idazleak erantzuna ezagutu nahi duelako.
- B. Irakurlea istorioan sartzeko.
- C. Motozikleta berria erosi zuen protagonistak.
- D. Esperientzia mota hori bitxia dela gogorarazteko irakurleari.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren forma balioestea.

Itemaren helburua: Istorioa galdera erretoriko batekin hasteak duen helburua ezagutzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narraziozkoa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Irakurlea istorioan sartzeko.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.


Analisia

Testuarekin lotutako azken galdera denetan zailena zen arren, erraza zen hala eta guztiz ere, eta proba pilotuko parte-hartzaileen lau bostenek baino gehiagok puntuaziorik altuena eskuratu zuten. *Testuaren formari buruz hausnarketa egiteko* eskatzen die galderak, autoreak istorioa galdera erretorikoarekin hasita zer lortu nahi duen identifikatzeko. Galdera honi zuzen erantzuteko, ikasleek galdera erretorikoa literatura-baliabide gisa eta eduki espezifikoaren arabera interpretatu behar dute. A eta C erantzuteko aukerek galdera erretorikoen ohiko bi helburu laburbiltzen dituzte, baina ez dira testuko baliabidearenak. D aukerak galdera erretorikoa testuko edukiarekin lotzen du, baina testuan inplizitu dagoen jarreraren aurkakoa azaltzen du: idazleak duen esperientzia nahikoa dela iradokitzen du istorioak.

ERAIKIN ALTUAK


1. grafikoa: munduko eraikin altuak

1. grafikoa gutxienez 30 solairu dituzten eraikitako edo eraikitze bidean dauden eraikinen kopurua agertzen du-2001ko urtariletik proposatu dituzten eraikinak ere biltzen ditu.



2. grafikoa: munduko eraikinik altuenetarikoz batzuk

Dubain dagoen Burj Dorrea izango da munduko eraikinik altuena 2008an amaitzen dutenean, 700 metro izango baititu.



«Eraikin altuak» 2006. urtean Norvegiako aldizkari batean argitaratu zuten artikulua da.

Erabili «Eraikin altuak» testua ondoko galdera hauek erantzuteko:

Testuak ondoan ezartzen ditu edukiari dagokionez nolabaiteko lotura duten bi grafiko. Biek munduko eraikin altuei egiten diete erreferentzia. 1. grafikoa hainbat hiritan dauden horrelako eraikin kopurua azaltzen du –proiektuan edo eraikita– eta 2. grafikoa, berriz, munduko eraikin altuenetako batzuk azaltzen ditu. Horietako bakoitzak prosazko azalpen-sarrera laburra duen arren, testuko informazio esanguratsua bi grafikoetan ematen da, testu-formatu orokorra ez-jarraitu bilakatuz. Testu mota *deskribapenarekin* bat dator, egoera *hezkuntzako* den arren, ikasleentzako aldizkari batean azaldu baitzen. Artikulua testuingurua azaltzen duen sarrera laburrekin hasten da, bai denborari (artikulua 2006an argitaratu zen), bai tokiari (aldizkaria Norvegiakoa da) dagokionez. Unitatea azterketa nagusian sartzea ez erabakitze arrazoiaren artean dago materialaren izaera iragankorragatik kezka: munduan gero eta eraikin altu gehiago eraikitzen direnez, materiala berehala geratuko da zaharkituta.

1. galdera: ERAIKIN ALTUAK

Aldizkariko artikulua argitaratu zutenean, zein zen 2. grafikoan agertzen diren eraikinen artean eraikita zegoen altuena?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Grafiko batean modu explizituan agertzen den informazioa topatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: CN dorrea.

Punturik ez

0 kodea: Bestelako erantzunak:

● Burj dorrea.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ikasleen ia bi herenek erantzun zuten galdera zuzen. Testuko hainbat zatitako informazioa txertatu beharrak eragiten du zailtasuna. Puntuatzeko, ikasleek galderako informazioa (*“Aldizkariko artikulua argitaratu zutenean”* eta *“eraikita zegoen”*) 1. grafikorako sarrerarekin lotu behar dute. Sarrera horretan azaltzen denez, artikulua argitaratu zenean Burj dorrea amaitu gabe zegoen eta, beraz, ustez sinesgarria den aukera hori baztertu egiten da erantzun zuzenen artetik. Era berean, erantzun zuzena unitateko sarreran aipatzen den data (*“Eraikin altuak”* 2006an argitaratutako Norvegiako aldizkariko artikulua da) *“Burj dorreari”* 2. grafikoan (2008) emandako datarekin alderatuta topa zezaketen eta, beraz, erantzun zuzen gisa baztertu. Galderaren enuntziatuan *“eraikinen artean altuena”* soilik irakurri eta 2. grafikoko eraikin altuenari (Burj dorrea) erreferentzia eginez erantzuten duten ikasleek ez zuten punturik lortu.

2. galdera: ERAIKIN ALTUAK

Zein informazio mota eskaintzen digu 1. grafikoak?

- A. Eraikin batzuen altueren arteko konparazioa.
- B. Hiri ugaritan topa ditzakegun eraikinen guztizko kopurua.
- C. Hiri ugaritan dauden eta altuera jakin bat baino gehiago duten eraikinen kopurua.
- D. Hiri ugaritako eraikin estiloen inguruko informazioa.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.

Itemaren helburua: Grafiko batean agertzen den informazio motaren inguruko datu orokorrak ematea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Hiri ugaritan dauden eta altuera jakin bat baino gehiago duten eraikinen kopurua.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Unitateko lehen galderaren antzera, honek ere zailtasun ertaina du eta ikasleen bi heren inguruk zuzen erantzun zuen. Galderaren enuntziatuak *1. grafikora* espezifikoki eramaten dituen arren, eta grafiko horretako sarrerak C erantzunarekin bateragarritasun sinonimikoa duen arren, punturik lortu ez zuen erdia inguruk *2. grafikoari* erreferentzia egiten dion A aukera hautatu zuen.

3. galdera: ERAIKIN ALTUAK

Oslo (Norvegia) dagoen Radisson SAS Plaza erakinak 117 metro bakarrik ditu. Zergatik sartu dute 2. irudian?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia balioestea.

Itemaren helburua: Testu baten edukia zehaztean hartzaileek betetzen duten rola ulertzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntzako.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Artikulua Norvegiako aldizkari batetik atera dutela edo seguru asko irakurleak norvegiarrek izango direla esan nahi du:

- Norvegiako aldizkari batekoa da.
- Norvegiako jendearentzat idatzita dagoenez, perspektiba zentzua eman nahi die.
- Norvegiako jendeari erakustea ez dituztela oso altuak diren eraikinak!

SAS Plaza erreferentzia gune gisa edo konparazio gisa hartzen du, Norvegia aipatu gabe:

- Konparaketarako.
- Erreferentzia gune bihurtzeko.
- Eskala hitzak zer esan nahi duen ulertarazteko.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du:

- 117 metro nahiko altua da.
- Munduko eraikinik altuenetarikoa bat delako.
- 30 solairu edo gehiago ditu.
- Norvegiako eraikinik altuena da. [Nahasiegia –testuko hartzaileekin ez du lotu].

- Norvegiakoa delako. [*Nahasiegia –testuko hartzaileekin ez du lotu*].

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Hotela den bakarra da. [*Egia, baina horregatik ez dago testuan sartuta*].
- Orratza duen bakarra da. [*Egia, baina ez dago horregatik sartuta testuan*].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera erraza zen arren, ikasleen laurdenak inguruk soilik erantzun zuen ondo. Kodifikazio-gidak puntuaziorik altuena eskuratuko luketen bi erantzun mota adierazten ditu. Proba pilotuan kode desberdinak esleitu zitzaizkien bi erantzun mota horiei, baina proban lortutako datuen arabera, bi modu horietara erantzun zuten ikasle taldeen artean ia ez zegoela alderik ikusi zen. Hortaz, azterketa nagusirako egindako hautaketan sartu izan balitz, galdera kode bakarrarekin kodetuko zen puntuaziorik altuenaren kasuan, hemen azaltzen den moduan. Puntuaziorik altuena lortzen duten bi erantzun motek bukatutako eraikina 2. *grafikoan* sartzeak irakurleari ikuspuntua eskaintzea xede duela jabetzeko eskatzen diote ikasleari. Lehen erantzun motan, ikasleek puntuaziorik altuena eskuratze aldera, sarrerako informazioa (artikulua Norvegiako aldizkarian argitaratu zela) autoreak Norvegiako eraikin altuena (Radisson SAS Plaza) 2. *grafikoan* sartzeko hartutako erabakiarekin lotzen dute. Puntuaziorik altuena eskuratzen duen bigarren erantzun motaren kasuan, ikuspuntuaren ideia baldintza espezifikotik adierazi beharrean, baldintza orokorretan adierazten da.

4. galdera: IKASLEEN IRITZIAK

Imajinatu eraikin altuen inguruko informazioa berriro aurkeztu dutela honen antzeko artikuluan, baina hemendik hogeitaz urtera.

Behean, zerrendan, jatorrizko artikuluko hiru ezaugarri agertzen dira. Esan ezaugarri horiek hogeitaz urteko epean aldatu egingo ziren edo ez, beheko taulan “Bai” edo “Ez” aukerak biribilduz:

Artikuluko ezaugarria	Aldatu egingo al litzateke 20 urteko epean?
2. grafikoko izenburua	Bai / Ez
1. grafikoan agertzen diren eraikinen kopurua.	Bai / Ez

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia baloratzea.

Itemaren helburua: Egitura mailako ezaugarrien eta grafiko multzo bateko edukiaren arteko bereizketa egitea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzeko konplexua.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: 2ak zuzenak; Ez, Bai, ordena horretan.

Punturik ez

0 kodea: Bestelako erantzunak.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Aukera anitzeko galdera konplexu honetan, ikasleek testuko bi elementuri buruzko erabakia hartu behar dute, kasu bakoitzean bi aukeren artetik erantzun zuzena aukeratuta. Bi elementuei buruzko erantzun zuzena identifikatuz gero soilik lortuko dute puntuaziorik altuena. Galdera erraza zen eta ia ikasleen hiru laurdenek lortu zuten puntuaziorik altuena. Galdera horretan, ikasleek beren ezagutzetara jo behar dute eta testura aplikatu eta, horrela, *hausnartzea eta baloratzea* gisa sailkatu. Zerrendatutako elementu bakoitza egonkorra den eta denborarekin aldatu daitekeen erabaki behar dute. Zerrendako lehen elementuak testuaren egitura kontzeptualaren atalari egiten dio erreferentzia eta, bigarrenak, eduki iragankorrari, denboran zeharreko une jakinaren erregistroari.

DEMOKRAZIA ATENASEN

A ZATIA

Tuzidides K.a. V. mendean bizi izan zen historialaria eta militarra izan zen (Grezia Klasiko garaian). Atenasen jaio zen. Atenas eta Espartaren arteko Peloponesoko Gerran (K.a. 431-k.a. 404), Trazeko Anfipolis hiria babestea misio zuen flotaren agintea zuen. Baina ez zuen lortu hirira garaiz iristea. Azkenean, Brasidasen, espartanoen jeneralaren, eskuetan erori zen hiria eta Tuzididesek erbestera alde egin behar izan zuen hogeitaz urtez. Horrek gerran zeuden bi taldeei buruzko informazio zehatza jasotzeko aukera eman zion eta, horri esker, *Peloponesoko Gerraren Historia* izeneko lanerako ikerketa egin zuen.

Tuzidides Antzinako historialari onenetako bat da askoren ustez. Historiaren bilakaera azaltzeko, zorian edo jainkoen esku-hartzean beharrean, norberaren portaeran eta kausa naturaletan oinarritu ohi zen. Bere lanean, gertaerak ez ditu bitxikeria soil gisa aurkezten; horren ordean, pertsonaia nagusiek jokatu zuten moduan jokatzeko arrazoiak topatzen saiatuz azaldu ohi ditu. Tuzididesek banakoen portaerari eman zion garrantzia dela eta, zenbaitetan, gezurrezko solasaldiak biltzen zituen: hizketaldi horiek pertsonaia historikoen arrazoiak azaltzen laguntzen zioten.

B ZATIA

Tuzididesek Periklesen (k.a. V. mendea), Atenaseko gobernariaren, ezpainetan jarri zuen Peloponesoko Gerrako lehen urtean hil ziren soldaduen omenez eskainitako hitzaldi hau:

Gure gobernu sistemak ez ditu inguruko estatuen legeak kopiatzen; imitatzaile beharrean, beste batzuentzako eredu gara gu. Gure sistemari demokrazia deitzen zaio, haren kudeaketa askoren esku baitago gutxi batzuen menpe egon beharrean. Gure legeak eskubide berdinak eskaintzen dizkie guztiei beren arazo pribatuetarako; aldiz, bizitza publikoko prestigioa merituaren menpe dago klase sozialen menpe egon beharrean.

Klase sozialak, gainera, ez dio inori galarazten kargu publikoa izatea (...). Eta, arazo pribatuetan esku hartzen ez dugun moduan, arazo publikoetako legea ere ez dugu apurtzen. Agintaritzak karguetarako aukeratzen diegun horiei obeditzen diegu eta legeak ere betetzen ditugu, batez ere, zapalduta daudenak babestearekin lotura duten legeak eta idatzi gabeko arauak, hausteak lotsa eragiten dutenak.

Gainera, adimenaren atseginerako hainbat baliabide eskaintzen dugu. Gure egoitza pribatuen dotoretasuna eta urte osoan ospatzen ditugun joko eta eskaintzak edozein ardura desagerrarazten laguntzen diguten eguneroko atsegin iturri dira; aldiz, hiriko biztanle ugariak munduko nekazari produktuak Atenasen lantzen dituzte munduko beste lurraldeetako fruituak bertakoak bezain ezagunak izan daitezen Atenaseko biztanleentzat.

Tuzidides, Peloponesoko Gerraren Historia (egokitza penaren)

Erabili «Demokrazia Atenasen» testua, ondorengo galderei erantzuteko:

Demokrazia Atenasen bi testu nahiko labur, baina sakonek osatzen dute. Lehena azalpen-testua da, nahiz eta hasierako paragrafoa –bakarka hartuta– narrazio gisa deskriba daitekeen; izan ere, zerbait gertatu zen garaiari buruzko informazioa eskaintzen du, pertsona baten bizitzako gertakariak aipatuta. Hala ere, A zatiari osotasunean dagokionez, paragrafo bibliografikoak bigarrenaren, garrantzitsuagoa denaren, sarrera egiten duela ikus daiteke eta Tuzidides ideien testuinguruan kokatzen du, hark historialari gisa duen originaltasuna deskribatuta. Hortaz, A zatiak kontzeptuen edo eraikuntza mentalen azalpena eskaintzen du, oro har, azalpen-testuen ezaugarria dena.

B zatiak Tuzididesek idatzitako “*fikziozko diskurtso*” baten adibidea jartzen du –A zatiak aipatzen ditu–. B zatia *argudio-testua* da: ustez Periklesek esandako hitzak pertsuasio politikoko diskurtsoan. Guztia irakurtzearen erronka bi testuen arteko lotura ulertzean datza: ez da esplizituki aipatzen, baina A zatiko azken perpausetik eta B zatiko sarreratik ondorioztatu daiteke. Estimulu hori 15 urteko gazteentzat nahiko zaila izan ohi da eta zail izatearen arrazoi nagusia gazteen eguneroko esperientziarekiko duen urruntasuna, hizkuntzaren abstrakzioa eta erregistro formala dira, batik bat, Tuzididesen idatziaren interpretazioarena. Bestalde, bidezkoa da pentsatzea ikasle gehienei DBH amaieran historia kontzeptu gisa ezaguna egingo zaiela eta demokrazia izan daitekeenaren nolabaiteko zantzen bat izango dutela –nahiz eta egituratua ez izan–. Ustezko ezagutza horiek *Demokrazia Atenasen* izeneko materiala jorratzeko beharrezko testuingurua eskainiko zietela uste zen.

1. galdera: DEMOKRAZIA ATENASEN

B zatiko hitzaldiaren helburuetariko bat Peloponesoko Gerrako lehen urtean hil ziren soldaduak omentzea zen.

Zein zen hitzaldiaren BESTE helburu bat?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.

Itemaren helburua: Argudio testu bateko helburua identifikatzea testuinguruarekin elkartuz.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Testuaren arabera eta onargarria den erantzuna eman du. Erantzunak hitzaldi horretarako helburu bat edo gehiago aipa ditzake, hauek barne: soldaduak konbentzitzea borrokan jarrai dezaten; hildakoen familiak kontsolatzea; harrotasuna sustatzea Atenaseko hiritarren artean; edo Atenasen bertuteak nabarmentzea Espartakoekin edo beste hiri batzuetakoekin alderatuta.

- Jendea Atenasez harro bihurtzea.
- Demokrazia bultzatzea.
- Atenaseko demokraziaren onurak azaltzea.
- Atenas oraindik ondo dagoela sinestaraztea jendeari, uneotan arazoak dituen arren.
- Jarrera eta pentsamendu baikorrak indartzea.
- Jendea iratzartzea.
- Abertzaletasuna bultzatzea.
- Hurrengo hauteskundeak irabaztea.
- Ezagunago bihurtzea.
- Jendea oldarkor bihurtzea espartarren aurka.

Tuzididesek Periklesen arrazoiak edo pentsaera ulertzeko helburua duela aipatu du.

- Periklesen arrazoiak/psikologia azaltzea.
- Egin zuena zergatik egin zuen azaltzea.

Kreditu partziala

1 kodea: Erantzunak demokraziaren funtzionamendua soilik azaltzen du.

- Demokrazia sartzea.
- Demokrazia azaltzea jendeari.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du:

- Hildako soldaduak omentzea. *[Errepikatu egiten du]*.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Atenas zen hitzaldiaren gaia. *[Ez du helburua aipatu]*.
- Jendeari barrea eragiteko. *[Okerra]*.

9 kodea: Erantzunik ez.

2. galdera: DEMOKRAZIA ATENASEN

Zergatik joan behar izan zuen Tuzididesek erbestera?

- A. Ezin izan zuen Atenaseko hiritarrentzako garaipena lortu Anfipolisen.
- B. Flota baten agintari bihurtu zen Anfipolisen.
- C. Gerrako bi taldeei buruzko informazioa bildu zuen.
- D. Ihes egin zuen Atenaseko hiritarren bandotik espartarrekin borroka egiteko.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Testu trinko batean modu esplizituan agertzen den informazioa topatzea.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Ezin izan zuen Atenaseko hiritarrentzako garaipena lortu Anfipolisen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera zaila bazen ere, ikasleen ia bi herenek zuzen erantzun zuten. Eskatutako informazioa esplizituki azaltzen den arren, «*Ezin izan zuen Atenaseko hiritarrentzako garaipena lortu Anfipolisen*» aukeraren eta testuko zati esanguratsuaren arteko elkarrekotasuna sinonimo izatetik urrun dago eta ikasleek testu barruko loturak finkatu behar dituzte hori lortzeko. Zuzen erantzuteko xedearekin, Peloponesoko gerran Tuzididesen egoera (Atenaskoa zen) eta gatazka hartan zuen egitekoa (Anfipolis hiria babestea) ulertu behar dute: ondoren, «*horren*» erreferentzia finkatu behar dute («*Brasidasen, espartanoen jeneralaren, eskuetan erori zen hiria eta Tuzididesek erbestera alde egin behar izan zuen hogeitaz*»), testuko gertakarien arteko kausazko lotura identifikatzeko. Galdera honen kasuan beste zailtasuna ideia konplexuak eta ziur asko berriak dituen testu sakonari buruzkoa izatea da.

Puntuaziorik altuena lortzeko, erantzunak Periklesen diskurtsoaren helburua identifikatu behar du, testuinguruarekin lotuta; hein batean azalpen-testuan agertzen da eta zuzenago diskurtsoan eta sarreran bertan. Hortaz, puntuaziorik altuena lortzen duen erantzunak bi testuen erabateko ulermen zehatzean oinarrituta egon behar du eta inferentzia maila altua erabili behar du ezaguna ez den

testuinguruan, nolabaiteko anbiguotasunarekin (diskurtsoaren autoretzari buruz). Kategoria honetan sartutako erantzunek Periklesi egotzitako motibazio politikoari egiten diete erreferentzia, honelako helburuak aipatuta, esaterako: soldaduak konbentzitzea borrokan jarraitzeko, hildakoen familiak kontsolatzea, Atenaseko herritarren harrotasuna elikatzea edo Atenasko bertuteak nabarmentzea, Espartarekin edo beste hiri batzuekin alderatuta. Bestalde, puntuaziorik altuena eskuratzen duten erantzunek A zatian inplizituki dagoen esanahiaren mailarik abstraktuenari egiten diete erreferentzia: Tuzididesek Periklesen psikologia edo pentsatzeko modua ulertzeko duen helburua. Puntuaziorik altuena eskuratzen duten galderek ez dute luzeak edo landuak izan beharrik: hala ere, proba pilotuan, horien laurdena baino gehiago kategoria honetan sartuta zegoen. Proba pilotuan parte hartu zutenen bostena inguru testuaren ulermen partziala erakusteko gai izan zen; eduki nagusia demokrazia zela adierazi zuen, baina ez zuen konbentzitzeko asmorik aipatu.

3. galdera: DEMOKRAZIA ATENASEN

Nork idatzi zuen B zatiko hitzaldia? Aipatu testua zure erantzuna arrazoitzeko.

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Bi testuren arteko lotura ulertzea emandako informazioa bateratuz.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Tuzidides identifikatu du (modu esplizituan edo inplizituan) hitzaldiaren egile gisa ETA Tuzidides aipatu du hitzaldia Periklesi egokitu dion pertsona gisa. Testuaren aipua zuzenean azaldu edo parafrasia egin dezake erantzunean.

- Tuzidides. «Tuzididesek Periklesen (...) ezpainetan jarri zuen» jartzen du.
- Tuzidides. «Zenbaitetan, gezurrezko solasaldiak biltzen zituen: hizketaldi horiek pertsonaia historikoen arrazoiak azaltzen laguntzen zioten».
- Tuzididesek bere idatzietan aipatzen zituen pertsonaien hitzaldiak asmatzen zituela dio.

Kreditu partziala

1 kodea: Tuzidides hitzaldiaren egile gisa identifikatu du azalpenik eman gabe.

- Tuzidides.
- Historialaria eta militarra. *[Erreferentzia inplizitua Tuzididesi].*

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du:

- Beste norbait. *[Nahasegia].*

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Perikles.
- Peloponesoko Gerran ari zen idazten.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Oso galdera zaila zen, horregatik ikasleen laurdena baino gutxiagok bakarrik erantzun zuen zuzen. Erantzuna argia da bi testuetako informazioa txertatzen denean (A eta B zatiak) eta, beraz, testu *anizkoitzaren* formatua da galdera horri dagokiona. Bi testuak batera aztertzeak argi uzten du Periklesen diskurtsoaren egilea Tuzidides dela. Hori ondorioztatu daiteke A zatiko azken lerroak (zenbait kasutan Tuzididesek pertsonaia historikoen motibazioak azaltzeko fikziozko diskurtsoak sartzen dituela azaltzen dutenak) B zatiko sarrerarekin lotuta (honela hasten dena: «*Tuzididesek Periklesen..., Atenaseko gobernariaren, ezpainetan jarri zuen...*»). Bestalde, ikasleak B zatiko sarreran soilik zentra daitezke, «*egotzia*» asmakuntza dela ondorioztatuz (Tuzididesen aldetik). Ekitaldiari gehitutako zailtasuna ikasleek erantzuna arrazoitzeko testuari erreferentzia egin behar izatean datza. Testuaren erreferentzia zuzeneko aipamenaren, parafrasiaren edo orokortzearen bidez egin daiteke.

4. galdera: DEMOKRAZIA ATENASEN

Testuaren arabera, zergatik da Tuzidides ezberdina bere garaiko beste historialari batzuekin alderatuta?

- A. Jende arruntaren inguruan idatzi zuen, ez heroien gainean.
- B. Gertaera soilak beharrean, bitxikeriak erabili zituen.
- C. Gertaera historikoak kausa supernaturalen arabera azaldu zituen.
- D. Jendeak horrelako portaera izatearen arrazoiak zein ziren nabarmendu zuen.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Testu trinko batean modu esplizituan agertzen den informazioa topatzea.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Jendeak horrelako portaera izatearen arrazoiak zein ziren nabarmendu zuen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera hori zaila zen eta ikasleen erdiek baino gutxiagok erantzun zuten zuzen. Eskatutako informazioa modu esplizituan aipatzen den arren, testu trinkoan agertzen da. Galderak ez du irakurlea erantzuna duen testuaren zatira eramaten eta hori da zailtasuna eragiten duen beste arrazoi bat. Zuzen erantzuten dutenek testuko zati esanguratsua topatu behar dute; horretarako, enuntziatuaren «*zergatik da Tuzidides ezberdina*», «*...-an edo ...-ean beharrean, ...-an eta ...-etan oinarritu ohi zen*» estimuluaren araberrako erantzunarekin lotu behar zuten. Testuko atal zuzena topatu ondoren, ikasleek «*Jendeak horrelako portaera izatearen arrazoiak zein ziren ...*» testuaren zati hauetako edozeinekin lotu zezaketen: «*norberaren portaeran*», «*pertsonaia nagusiek jokatu zuten moduan jokatzeko arrazoiak*» eta «*pertsonaia historikoen arrazoiak*».

5. galdera: DEMOKRAZIA ATENASEN

Begiratu testuaren zati honi (B zatiaren ia amaieran dago):

«Gainera, adimenaren atseginerako hainbat baliabide eskaintzen dugu. Gure egoitza pribatuen dotoretasuna eta urte osoan ospatzen ditugun joko eta eskaintzak edozein ardura desagerrarazten laguntzen diguten eguneroko atsegin iturri dira».

Ondorengo esaldien artean, zeinek laburtzen du testuko zati hori modurik egokienean?

- A. Atenaseko gobernu sistemari esker, edonork sor ditzake legeak.
- B. Denbora pasa eta edertasuna Atenasen topa ditzakezun bizitza onaren zati dira.
- C. Atenaseko hiritarrak luxu gehiegirekin bizi dira eta ezin dute bizitza seriozki hartu.
- D. Bizitza pribatua eta publikoa gauza beratzat hartzen zituzten.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Esaldi bat sortzea azalpen testu batetik abiatuta.

Testuaren formatua: Anizkoitza.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Hezkuntzakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Denbora pasa eta edertasuna Atenasen topa ditzakezun bizitza onaren zati dira.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera hau apur bat zaila zen eta ikasleen bi herenek baino gutxiagok erantzun zuten zuzen. Bertan, galderaren enuntziatuan aipatutako testu zatia interpretatzeko eskatuko zaie. Hortaz, zailtasuna testuaren interpretazioan soilik datza, ez baita inolako informaziorik aurkitu behar. Interpretatu beharreko testu zatia nahiko luzea eta konplexua da eta hainbat ideia ditu. Zuzen erantzuten duten

ikasleek hainbat alde negoziatu behar dituzte, testuan ageri den «gure egoitza pribatuen dotoretasuna» enuntziatuan ageri den «edertasuna» terminoarekin bat etorraziz eta testuko «adimenaren atseginerako» eta «jokoak», galderan ageri den «denbora-pasa» hitzarekin.

HELMUGA: BUENOS AIRES

Horrela, Patagoniako¹, Txileko eta Paraguaiko hiru posta hegazkinak hegoalde, ekialde eta iparralde Buenos Airesera itzultzen ari ziren. Zama han zegoen zain, gauerdia inguruan, Europara joango zen hegazkina aireratu arte.

Hiru pilotu, txanela bezain astuna zen kapotaren atzean, gauean galduta, beren hegaldiarekin gogoetan ari ziren; hiri erraldoi hartara gerturatuko ziren hegazkin haiek poliki-poliki jaitsiko ziren zeru ekaizsuta edo baretik, menditik jaisten ari diren nekazari bitxiak izango balira bezala.

Rivière, lan guztiaren arduraduna zena, aurrera eta atzera zebilen Buenos Aireseko lurreratze eremuan. Isilik zegoen, izan ere, hiru hegazkinak iritsi arte, egunak beldurgarria izateko itxura baitzuen. Minutuek aurrera egin heinean, telegramak ari zen jasotzen; Rivièrek bazekien patuari zerbait lapurtzen ari zela eta, pixkanaka-pixkanaka, ezezaguna zen hura gutxitzen ari zela, tripulazioa gauetik kanpo garraiatzen ari zela, ertzerantz gerturatzen.

Langileetako bat Rivièrengana joan zen irati bidezko mezua emateko:

–Txileko postak Buenos Aireseko argiak ikus ditzakeela dio.

–Ondo.

Denbora gutxi barru entzungo zuen Rivièrek hegazkin haren hotsa; gauak hiru hegazkin horietako bat entregatuko du, itsasoak, bere emariarekin, itsasbeherarekin eta misterioekin horrenbeste denboran olatuek astindu duten altxorra ertzean uzten duen moduan. Eta, geroxeago, beste biak ere utziko ditu.

Orduan, eguna amaituta egongo da. Horren ondoren, lehertuta dauden tripulazioko langile horiek alde egin eta ohera joan ahal izango dute, eta fresko dauden beste batzuek ordezkatzeko dituzte. Baina Rivièrek ez du atsedenik hartuko: Europako postak, berriz ere, ezinegonez beteko du. Beti gertatuko da gauza bera. Beti.

Antoine de Saint-Exupéry. Vol de Nuit. © Éditions Gallimard.

¹ Región del sur de Chile y Argentina.

«Helmuga: Buenos Aires» testua 1931. urtean idatzitako eleberri bateko zatia da. Eleberriaren egileak Hego Amerikan posta garraiatzen duen pilotu gisa izandako esperientzietan oinarrituta dago.

Erabili testu hori ondoko galdera hauek erantzuteko:

Destino Buenos Aires 1931n Antoine de Saint-Exupéryk idatzitako *Vol de Nuit* eleberriaren zatia da. Gaztelaniaz *Vuelo nocturno* izenburuarekin argitaratu da eta Koldo Izagirrek itzuli berri du euskarara (*Gaueko hegaldia*. Igela argitaletxea. 2008). Jatorrizko testuari PISA-n agertzeko egindako gehikuntza bakarra «*Patagoniari*» buruzko oin-oharreko azalpena izan da; izan ere, ikasleek toponimo horri buruz izango duten ezagutza desberdina izango da, zalantzarik gabe. Azalpenak testuarekin negoziatzen lagun diezaiekeen testuingurua eskaintzen du. Zatiak Buenos Aireseko lurreratzeko pista aurkezten du eta, osotasunean, lanaren erantzukizunak kezkatutako gizonaren, Rivière-ren, erretratua eskaintzen du. Eleberria 1931n idatzi zen arren, gizakiari eragiten dieten gaiak oraindik ere ezagunak dira.

1. galdera: HELMUGA: BUENOS AIRES

Eguneko zein ordutan gertatzen da istorio hori? Erabili testua zure erantzuna arrazoitzeko.

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Testuko erreferentzia ugari horietako bat erabiltzea narrazio bateko ekintza noiz ari den gertatzen identifikatzeko.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narratiboa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitzeko erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Hegaldiak gauean edo iluntzean gertatzen direla aipatu du (baina ez gauerdian edo hori baino beranduago) ETA testuko informazioa aipatuz, behar bezala azaldu du. Testuaren aipua zuzenean azaldu edo parafrasia egin dezake erantzunean.

- Gauean, «*gauean galduta*» daudela dio.
- Iluntzean; noiz iritsiko zain daude, Europara doan hegazkina gauerdian airera dadin.
- Gauean gertatu zen, «*gauak hiru hegazkin horietako bat entregatuko du*» baitio.
- Gauerdia baino lehen, orduan aireratzen baita Europara joango den hegazkina.

- Iluntzeko 20:00ak eta gauerdia artean. Badakigu ilun dagoela, baina ez da gauerdia. Orduan aireratu ohi da beste hegazkina.

Kreditu partziala

1 kodea: Hegaldiak iluntzean edo gauean gertatu ohi direla aipatu du (baina ez gauerdian edo hori baino beranduago), baina ez du hori indartzeko testuko ebidentziarik eskaini.

- Gauean.

Punturik ez

0 kodea: Hegaldiak gauerdian edo beranduago gertatzen direla aipatu du.

- «*Gauerdia inguruan, (...) hegazkina aireratu arte*». [Loturarik ez duen testuko aipamena].
- «*Gauerdia inguruan*». [Loturarik ez duen testuko aipamena].
- Gauerdia ondoren.

Erantzun eskasegia edo nahasia eman du:

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerkusirik ez duena eman du:

- Goizean.
- Arratsaldean.
- Egun argiz.
- 21:00etan [edo beste edozein ordu zehatz].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera honetarako kodifikazio-gidak puntuatzen duten bi galdera mota daudela erakusten du. Puntuaziorik altuena lortzen duten erantzunak galdera zehaztasunez erantzuten dutenak eta azalpena testua erabilita ematen dutenak dira. Puntuazio partziala lortzen duten erantzunak azalpenik eman gabe galderari zehaztasunez erantzuten dietenak dira. Puntuazio partzialari dagokion kodeak erantzun osatugabea zehaztugabea baino hobea dela onartzen du. Proba pilotuan, ikasleen erdiak baino gutxiagok eskuratu zuen puntuaketarik altuena galdera honetan eta beste laurdenak puntuaketa partziala eskuratu zuen eta, beraz, ikasleen hiru laurdenek nolabaiteko puntuazioa lortu zutela esan nahi du horrek (gehienekoa edo partziala). Galdera *osatzea eta interpretatzea* gisa sailkatuta dago; izan ere, ikasleei testuan esplizituki agertzen ez den erantzuna sortzeko eskatzen bazaie ere, erantzuteko beharrezko informazio guztia bertan jasota dago.

2. galdera: HELMUGA: BUENOS AIRES

«Helmuga: Buenos Aires» 1931. urtean idatzi zuen. Zure ustez, gaur egun, Rivièreren ardurak antzekoak izango al lirateke? Arrazoitu zure erantzuna.

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia balioestea.

Itemaren helburua: Narrazioaren testuinguruan gertatu den aldaketak pertsonaiarengan izango lituzkeen eraginaren hipotesiak egitea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narratiboa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitzeko erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Bai EDO Ez erantzun (edo iradoki) eta denboraren arabera alderaketa aipatu ETA erantzuna arrazoitu dute. Ardura materialak aipa ditzake; aurrerapen teknologikoak edo segurtasun arloko hobekuntzak, adibidez, EDO larritasunaren moduko ardura psikologikoak. Testua ondo irakurri izanarekin bat etorri behar du erantzunak.

- Gaur egun, pilotuek (hegazkinek) oso tresna sofistikatuak izan ohi dituzte orientaziorako eta eguraldi baldintzak txarrak direnean arduratu behar dute gai teknikoez.
- Ez; gaur egun, hegazkinek radarrak eta pilotatze sistema automatikoak dituzte; horiei esker, egoera arriskutsuetatik ihes egin dezakete.
- Bai; hegazkinak oraindik arriskutsuak dira, beste edozein garraiobideren moduan. Istripua edo motorraren akatsa gertatzeko arriskuak sekula ez dira desagertzen.
- Gaur egun, teknologia berriak eta aurrerapen teknikoak oso garrantzitsuak dira hegazkinetan zein lurrian.
- Bai; oraindik istripua gertatzeko arriskua dago.
- Ez; garai batean, ez zegoen eraso terroristarik gertatzeko beldurrik.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du:

- Ez; gaur egungo beldurrak ezberdinak dira.
- Bai; zenbait aurrerapen egin dituzte.
- Nolabait, baietz esan dezakegu, baina gaur egungo testuinguruaren baitan. *[Nahasia]*.
- Urteen poderioz, jendeak aldatu egingo luke. *[Nahasia]*.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du:

- Ez; ez baituzu gauez bidaiarik egiten gaur egun. *[Munduari dagokionez, okerrekoa]*.
- Ez; izan ere, gaur egun, pilotuek prestakuntza askoz ere hobea dute. *[Desegokia]*.
- Ez; Rivière pozik dago bere lanarekin, baina gaur egun, terroristen ardura ere badago. *[testua oker irakurri izana]*.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera hau nahiko zaila zen eta ikasleen erdiek baino zerbait gehiagok baino ez zuten zuzen erantzun. Testua idatzi zen testuingurua norberarenarekin alderatzeari buruzko hausnarketa egitea eskatzen du galderak. Hausnarketa bultzatzea da xedea. Beraz, erantzuna testuaren irakurketa zuzenarekiko koherentea den heinean eta egungo testuinguruari buruzko jarrera sinesgarria adierazten duen heinean, puntuaziorik altuena eskuratuko du, hartutako jarrera albo batera utzita.

3. galdera: HELMUGA: BUENOS AIRES

Zer gertatu zaio testuko pertsonaia nagusiari?

- A. Ezusteko ezatsegina izan du.
- B. Lana aldatzea erabaki du.
- C. Zerbait gertatu zain dago.
- D. Besteei entzuten ikasi du.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.
Itemaren helburua: Testu narratibo bateko ekintza nagusia ezagutzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narratiboa.
Testuingurua: Pertsonala.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Zerbait gertatu zain dago.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera erraza zen eta ikasleen hiru laurden inguruk zuzen erantzun zuten. Testua orokorrean ulertu dela erakustea eskatzen du galderak, ideia nagusia identifikatuta. Galderak testuan zehar loturak finkatzea eta ekintzari buruz orokortzea eskatzen du. Galderaren xedea testuaren ideia nagusia inplizituki egotean datza eta horretan sendotzen da.

4. galdera: HELMUGA: BUENOS AIRES

Azken bigarren paragrafoaren arabera («*Denbora gutxi barru...* »), zein zentzutan dira gaua eta itsasoa antzekoak?

- A. Biek ezkutatzen dute beren barnean dagoena.
- B. Biak dira zaratatsuak.
- C. Biak mantsotu dituzte gizakiek.
- D. Biak dira arriskutsuak gizakientzat.
- E. Biak isilak dira.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Itemaren helburua: Metafora baten alderaketa nagusia ulertzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narratiboa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Biek ezkututzen dute beren barnean dagoena.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia


Ikasleek metafora interpretatzea eskatzen du galderak, «*metafora*» hitza enuntziatuan nahita saihesten den arren: litekeena da ikasleek termino metalinguistiko horiekiko duten ezagutza maila prestakuntza akademikoaren arabera desberdina izatea eta ezagutza metalinguistiko horiek ez dira PISAk irakurketa-gaitasunaz egiten duen deskribapenean sartzen. Bestalde, irudizko mintzaira interpretatzeko gaitasuna funtsezko elementutzat jotzen da testuen interpretazioan eta, bereziki, testu literarioen kasuan. Onartuta dago irakurketari buruzko nazioarteko ebaluazioetako erroka espezifiko gaitasun hori hizkuntza eta kultura guztietan islatzea izatea. Galdera honen kasuan, dagokion irudizko mintzairak unibertsalki ezagunak diren terminoak («*itsasoa*» eta «*gaua*») erabiltzen ditu eta kontakizunak emandako testuinguruan antzeko konnotazioa dute kultura guztietan. Proba pilotuko emaitzen arabera, galderak ezaugarri psikometriko sendoak zituen eta antzera funtzionatzen zuen herrialde eta hizkuntza guztietan. Hortaz, zenbait kasutan testuaren ezaugarri literarioetan –irudizko mintzairan kasu– oinarritutako galdera, nazioartean ebaluatzeko, arrakastaz egin daitekeela erakusten du. Era berean, PISA azterketan ohikoena aukera anitzeko galderek lau erantzun posible izatea den arren, zenbaitetan lau aukera baino gehiago ematen direla frogatzen du. Galdera zail samarra zenez, ikasleen bi herenek baino gutxiagok erantzun zuten ondo.

AFRIKAKO IBILALDI HANDIA

Iparraldeko Drakensberg Ibilaldi Handia: Hego Afrika / Lesotho

Asmoen dokumentua

IKUSPEGI OROKORRA




- ☐ Iparraldeko Drakensberg Ibilaldi Handiak (Trek ere deitzen zaio) iparraldeko Drakensberg kanpamentuak altitude altuetan gurutzatzea biltzen du. Ibilbideak, 40 milia inguruko luzera duenak (65 km), Hego Afrikaren eta Lesothoren arteko muga inguratzen du eta burutzeko 5 egun neketsu behar dira. Trek hori nabarmendu beharreko txokoz beteta dago, Amphitheatreren (Anfiteatroa) eta Devil's Tooth (Deabruaren Hortza) izeneko gaineko ikuspegi zirraragarriak barne, Chain Ladder izenkorantz gerturatzeko garen heinean. Aipatu beharreko beste toki bat Mponjwane izeneko izeneko ikus daitekeen egunsentia da eta zure iratzargailua horretarako prestatzeak merezi du zalantzarik gabe.
- ☐ Abiapuntua: Sentinel (zelatariaren) aparkalekua, Royal Natal National Park parke nazionala.
- ☐ Helmuga: Cathedral Peak hotela.
- ☐ Zailtasuna eta altitudea: Drakensberg Range mendikateko eremurik bakartienetarikoa batean dagoen mendi altuetako ibilaldia da. Bidea nahiko gogorra eta egunak luzeak izan daitezke. Modu seguruan bidea gurutzatzeko ezinbestekoak izan daitezke nabigaziorako abilezia onak.

GARAI ETA URTARORIK EGOKIENAK

- ☐ Bisita egiteko hilabeterik onenak: apirila, maiatza, ekaina edo iraila, urria eta azaroa.
- ☐ Klima: uda garaia oso beroa eta hezea izan daiteke Drakensberg eremuan. Neguak, aldiz, askoz ere lehorragoak dira, baina beti dago prezipitazioak izateko aukera eta leku altuetan elur eran eror daitezke. Udaberrian eta udazkenean, aldiz, eguneko tenperaturak ezin hobeak izan ohi dira (60°F/15°C eta 70°F/20°C artekoak), baina iluntzean, askotan, izozte puntua baino baxuagoak izan ohi dira.

TENPERATURA ETA PREZIPITAZIOAK												
Eguneroko batez besteko gehieneko tenperatura												
(°F)	72	70	70	66	63	60	60	63	66	68	70	70
(°C)	22	21	21	19	17	15	15	17	19	20	21	21
Eguneroko batez besteko gutxieneko tenperatura												
(°F)	55	55	54	48	46	41	41	43	46	48	52	54
(°C)	13	13	12	9	8	5	5	6	8	9	11	12
Batez besteko prezipitazioak, hilabeteak												
(Hazbete)	9,3	8,5	7,7	3,1	1,1	0,6	0,5	1,3	2,4	4,0	6,5	7,9
(Milimetro)	237	216	196	78	29	14	12	33	62	101	165	201
	URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

IBILBIDEAREN PROFILA



Goian eta aurreko orrian agertzen den «Afrikako Ibilaldi Handia» Classic Treks izeneko liburutik ateratako pasartea da.

Erabili «Afrikako Ibilaldi Handia» artikulua ondoko galdera hauek erantzuteko:

Testu-formatuari dagokionez, *Afrikako Ibilaldi Handia* testu *misto* moduan sailkatzen da, elementu jarraituak (deskribapen orokorreko prosa-puntuak), nahiz etenak baititu (tenperaturaren eta prezipitazioen taula eta ibilbidearen profila). Elementu jarraituen eta ez-jarraituen helburua Drakensberg iparraldetik trekkinga deskribatzea denez, testua *deskribapentzat* hartzen da tipologiari dagokionez. Egoerari dagokionez, *pertsonaltzat* sailkatzen da, irakurtzen dutenek beren interes eta informaziorako egiteko pentsatuta baitago.

1. galdera: AFRIKAKO IBILALDI HANDIA

Zein altitudetan dago Sentinel Car Park aparkalekua? Eman zure erantzuna oinetan zein metrotan.

..... oin.

..... metro.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Grafiko batean modu esplizituan agertzen den informazioa topatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun itxia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: 8.000 (oin) ETA 2.440 (metro) erantzun du.

Punturik ez

0 kodea: Bestelako erantzunak.

- 8.000 metro, 2.440 oin.
- 6.000 metro, 1.830 oin.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera erraza zen eta ikasleen ia hiru laurdenek zuzen erantzun zuten. Erraza izan arren, hainbat urrats eman behar dira zuzen erantzuteko. Lehenik eta behin, ikasleak erantzun zuzena testuko zein zatitan dagoen topatu behar du, galderaren enuntziatuak ez baitu bertara bideratzen zuzenean. Behin topatuta (Ibilbidearen profila), ibilbidearen profileko legenda edo hitzak behar bezala interpretatu beharko ditu, neurri bakoitzari dagozkion unitateak identifikatzeko eta, azkenik, informazio espezifiko lortzeko.

2. galdera: AFRIKAKO IBILALDI HANDIA

Hor agertzen den informazioaren arabera, zure ustez, non egongo zinateke oinez bi egun eman ostean?

- A. Sentinel Car Park aparkalekuan.
- B. Ifidi haitzuloan.
- C. Rwanqa haitzuloan.
- D. Mponjwane haitzuloan.
- E. Twins haitzuloan.
- F. Cathedral Peak hotelean.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Formatu anitzeko deskribapen testu batean modu esplizituan agertzen den informazioa topatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Rwanqa haitzuloan.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera hau zaila zen arren, ikasleen herenek baino zerbait gehiagok erantzun zuten ondo. Zailtasunaren jatorria aukeratutako erantzun motan ikus daiteke argi: ikasle gehiagok hautatu zuten B aukera, erantzun zuzena baino (C aukera). Zuzen erantzuteko, egun bakoitza adierazten duten X ardatzeko zifrek egunaren hasiera adierazten dutela ulertu behar dute. Arrazoiketari jarraiki, zenbaki bakoitzaren ondoren ageri diren toponimoek ez dute ibiltariak egun horretan lo egin duten lekua adierazten, 1 eta 5 arteko zenbakiez adierazitako egunaren aurreko gaua igaro duten lekua baizik. B aukera oker aukeratu zuten ikasle kopuru handiak ibilbideko profilean 2 zenbakia kokatu eta zenbaki horretatik hurbilen dagoen toponimoak bigarren egunean gaua igaroko den lekua adierazten zuela ondorioztatu zuten. Ikasle horiek ez zuten guztiz ulertu testu ez-jarraituaren egitura. Arretazko irakurketa mota hau erronka da, baina irakurmen-gaitasun garrantzitsua ere bada. Aukera anitzeko galderak sei erantzun ditu aukeran, horiek guztiak ibilbideko profilaren egiturak –sei leku-izen dituenak– modu naturalean iradokita.

3. galdera: AFRIKAKO IBILALDI HANDIA

Zure ustez, ibilbideko zein egun litzateke zailena? Erabili hor agertzen den informazioa zure erantzuna arrazoitzeko.

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia balioestea.
Itemaren helburua: Formatu anitzeko deskribapen testu batean agertzen den informazioa erabiliz, iritzia defendatzea.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Azalpenezkoa.
Testuingurua: Pertsonala.
Galderaren formatua: Eraikitzeko erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: 1. eguna; 2. eguna, 3. eguna, 4. eguna EDO 5. eguna aipatu ETA onargarria eta testuaren arabera den arrazoia eman du. Testua aipatu behar du (esplizituki edo inplizituki).

- 1. eguna. Bide guztia goranzkoa da.
- 2. eguna.
- Nire ustez, lehenengo gora, gero behera, berriro gora eta azkenik behera ibiltzea okerrago da beti gora edo beti behera ibiltzea baino.
- 3. eguna. Tontor ikaragarria dago.
- 4. eguna. Tontor horrek nahiko gogorra ematen du.
- 5. eguna. Bide guztia beheranzkoa da.

Punturik ez

0 kodea: Testuarekin loturarik ez duen erantzuna eman du.

- 1. eguna, ez baitzara ohituta egongo oraindik. [Ez dago testuarekiko erreferentziarik].
- 5. eguna. Leher eginda egongo zinateke ordurako! [Ez dago testuarekiko erreferentziarik].
- 3. eguna; erdiko eguna denez, hori litzateke zailena. [Ez dago testuarekiko erreferentziarik].

Azalpenik gabeko erantzuna eman du.

- 2. eguna. *[Azalpena falta da]*.

Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- 1. eguna, zaila izango bailitzateke. *[Nahasia]*.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Lehen bi galderak bezala, hau ere ibilbideko profilean oinarritzen da. Ikasleei, informazio horrekin lotuta, lehentasun pertsonala adierazteko eta testuko materialaz baliatuta arrazoitze eskatuko zaie. Lehentasuna adierazteko kanpo-ezagutzetara jotzeko beharrak galdera *hausnartzea eta baloratzea* gisa sailkatzen dela esan nahi du. Lehentasuna adierazteko eskatzen zaien beste galdera batzuetan bezala, ikasleek edozein jarrera har dezakete, testuko dagokion informazioarekin arrazoitzen dutenean, betiere. Galdera zail samarra bazen ere, ikasleen bi heren inguruk zuzen erantzun zuten.

4. galdera: AFRIKAKO IBILALDI HANDIA

Zein egunetako goizaldean ikusiko zenuke ikuspegi orokorrean aipatzen duen egunsentia?

- A. 1. eguna.
- B. 2. eguna.
- C. 3. eguna.
- D. 4. eguna.
- E. 5. eguna.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.
Itemaren helburua: Informazioa topatzea hitzetan agertzen den informazioa grafikoan agertzen denarekin lotuz formatu anitzeko deskribapen testu batean.
Testuaren formatua: Mistoa.
Testu mota: Azalpenezkoa.
Testuingurua: Pertsonala.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: 4. eguna.

Punturik ez


0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galderan eskatutako informazioa deskribapen orokorreko lehen puntuan eta Ibilbideko profilean dago. Horri zuzen erantzuten dieten ikasleek testuko atal jarraituetatik eta ez-jarraituetatik hartu behar dutenez informazioa, galdera honetarako testuaren formatua *mistoa* izango da. Galdera zail samarra zenez, ikasleen bi herenek baino gutxiagok erantzun zuten ondo. Galderaren azken xedea esplizituki aipatutako informazioa eskuratzea den arren, lortu nahi den informazioa arrakastarekin lortzeko testu guztiko informazioa lotzean datza zailtasuna.

METROTRANSIT



Aurreko orrian agertzen den «Metrotransit» testuak metro sistemari buruzko informazioa eskaintzen du.

Erabili «Metrotransit» artikulua ondoko galdera hauek erantzuteko:

2009ko PISA azterketako proba pilotuko *Metrotransit* unitateak dokumentu publikotik ateratako grafikoa azaltzen du: diagrama-formako hiriko garraio-sarearen planoak. Tokien izenak fikziozkoak dira eta parte hartu zuten herrialdeei bertsio nazionalerako egokitzeko eskatu zitzaizkien. Testua *ez-jarraitua* da eta lerroaren, ezaugarrien eta sareko kokalekuen arabera sailkatutako geltokien zerrenda konbinatu gisa aurkez daiteke. Nahiko arrunta den arren, konplikatu egiten duen elementua du: ikur-legenda; horren aplikazioa beharrezkoa da ondoren datorren galderan puntuazio gehien lortzeko. Unitate honekin zerikusia zuten galdera guztiek ondo funtzionatu zuten proba pilotuan. Azkenean, unitatea ez zen sartu azterketa nagusia egiteko hautaketan, landa-eremuetako ikasleek hiri-garraioko sareak hain ezagun ez izateko eta desabantaila egoeran egoteko beldurra zela eta.

1. galdera: METROTRANSIT

Zein altitudetan dago Sentinel Car Park aparkalekua? Eman zure erantzuna oinetan zein metrotan.

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Mapa batean loturak ezarriz, informazioa topatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun itxia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Geltoki zentrala aipatu du esplizituki. Linea aipa dezake.

- Geltoki Zentrala.
- Zentrala.
- Zentrala (Ekialdea).

- Zentrala (1. linea).

Punturik ez

0 kodea: Bestelako erantzunak.

- Geltokia.
- Dolarea.
- 1. linea.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Benetako eginkizun mota honek PISAk irakurketa eguneroko bizitzan helburu praktikoekin erabiltzeari ematen dion garrantzia adierazten du. Galderak ikasleek planoko legenda interpretatzea eta horri aplikatzea eskatzen du, galderan zehaztutako irizpideak zer geltokik betetzen dituen xedatzeko. Planoko geltoki bakarrak betetzen ditu. Geltoki zuzena identifikatuz gero, erantzunak hainbat modutara adierazi daitezkeela erakusten du kodifikazio-gidak. Galdera erraza zen eta ikasleen hiru laurdenek baino gehiagok zuzen erantzun zuten.

2. galdera: METROTRANSIT

Zooaren geltokian zaude eta Harrizko Zubiaren geltokira joan nahi duzu. Zein geltokitan aldatu beharko zenuke linea?

- A. Udaletxea.
- B. Ibaiertza.
- C. Hondartza.
- D. Kai Zaharra.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Itemaren helburua: Aurkako informazioa ikus dezakegun lotunea identifikatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Kai Zaharra.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera hau benetako eginkizunaren bestelako adibidea da; ikasleei ibilbide jakina planoan bilatzeko esango zaie eta hori egin ondoren, zein puntutan aldatu behar den lerroz finka dezatela eskatuko zaie. Zehaztutako bi geltokiak topatu eta gero, ibilbide laburreko bidegurutzea identifikatzea lan erraza izango da, bi lerro soilik baitaude tartean. Ikasleen hiru laurdenek baino gehiagok lortu zuten puntuaketa galdera honetan.

3. galdera: METROTRANSIT

Zenbait geltokik, Mendebaldeak, Zooak eta Bakeak, esate baterako, itzala dute inguruan. Zergatik agertzen da itzal hori geltoki horietan? Zer esan nahi du?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Hausnartzea eta baloratzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren forma balioestea.

Itemaren helburua: Mapan agertzen den ezaugarri grafiko baten helburua identifikatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Publikoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Geltoki horiek linearen amaieran daudela esan nahi du.

- Linearen amaiera.
- Azken geltokia.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Autobusak har ditzakezu han *[baliteke, baina ez da itzalak adierazten duena]*.
- Jende gehien ibili ohi den geltokiak dira.
- Geltoki handienak dira.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera zail samarra zenez, ikasleen bi herenek baino gutxiagok erantzun zuten ondo. Galderak planoko hainbat geltokitarako komunak diren elementu grafikoak (itzalezatuak) aztertzeraz behartzen ditu ikasleak, eta hori egin ondoren, planoan itzal horrekin adierazi nahi dena zehaztera. Galderaren zailtasuna elementuaren helburuari buruz orokortzeko beharrean oinarritzen da. Galdera honetan ikasleek testutik at egon behar dutenez eta landutako modua aztertu behar denez, *testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren forma blioestea* gisa sailkatzen da.

4. galdera: METROTRANSIT

Axular geltokitik Basoa izenekora metroz joateko biderik laburrena topatu nahi duzu.

Marraztu mapan zein bide hartuko zenukeen.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.
Itemaren helburua: Mapako hainbat informazio zati elkartzeko bi puntu jakinen arteko biderik laburrena zehazteko.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Azalpenezkoa.
Testuingurua: Publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK


Gehieneko puntuazioa

2 kodea: Beheko irudian agertzen den bidea marraztu du:



Kreditu partziala

1 kodea: Beheko irudian agertzen den bidea marraztu du:



Punturik ez

0 kodea: Bestelako erantzunak.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Sartzeko eta eskuratzeko ariketa honetan, ikasleek askotariko datuak –geltokien izenak– topatu eta segidan jarri behar dituzte, ibilbidea planifikatzeko. Ariketak testu *ez-jarraitua* arretaz irakurtzea eskatzen duen bizitza errealeko esperientzia erreproduzitzen du. Galdera egin zen testuaren zati nagusitik kanpoko informazioa, hau da, baldintzapeko informazioaren erabilera bermatzeko, prozesatu egin behar da ariketa arrakastarekin egiteko. Hortaz, puntuaziorik altuena eskuratzeko, ikasleek legendako informazioa erabili behar dute: lanengatik itxita dagoen sarearen atala. Hasiera batean, biderik motzena den baldintzapeko informazioaz jabetzen direnak

dagoeneko ezin dela erabili konturatuko dira. Baldintzapeko informazioa erabiltzeko beharrak nabarmen areagotzen du galderen zailtasuna. Proba pilotuan parte hartu zuten ikasleen herena inguruk soilik lortu zuen puntuaziorik altuena galdera honetan. Hala eta guztiz ere, 5. lineako geltokien arteko ibilbidea trazatu zuen gainerako ikasleen erdiak baino gehiagok puntuaketa partziala eskuratu zuen; izan ere, kasu guztietan, batean izan ezik (bat hori funtsezkoa, baldintza praktikoetan bada ere), eskuratutako informazioa ulertu zuela eta erabili egin zezakeela erakutsi zuen.

PISAn inprimatutako formatuko irakurketako galdera gehienek aukera anitzeko edo testu bidezko erantzuna eskatzen dute. Galdera honetako erantzun laburreko formatuak ibilbidea planoan trazatzea eskatzen du eta erantzun mota puntu bateraino alda daitekeela erakusten du, eginkizun jakinerako egokiena dirudiena. Hori guztia eskala handiko arkatx eta paperezko proba handian, izaera praktikoko mugek baldintzatuta.

2.3. IRAKURMENEKO ITEMAK. PISA 2000 ETA 2003

Azken azpi-atal honetan PISA ikerketaren *irakurmeneko* itemak biltzen dira berriz; izan ere, 2005ean ISEI-IVEIk argitaratu zituen. Helburua da proba horien ezaugarriak buruz ahalik eta ikuspegi osotuena eskaintzea. PISA probak 2000an hasi ziren aplikatzen.

Itemen egitura 2009ko irakurketako probetakoen antzekoa da; hala ere, eskaintzen den informazioa ez da hain osotua.

Irakurmeneko itemak. PISA 2000 eta 2003

	Unitatea
1	<i>ERLEAK</i> . 4 item.
2	<i>GUSTU TXARREKOA</i> . 2 item.
3	<i>EPAILE ZUZENA</i> . 6 item.
4	<i>IKARATZAILEAK</i> . 2 item.
5	<i>UDAL LIBURUTEGIAK</i> . 2 item.
6	<i>BERMEA</i> . 3 item.
7	<i>TXAD LAKUA</i> . 5 item.
8	<i>GRIPEA</i> . 4 item.
9	<i>GRAFFITIAK</i> . 5 item.
10	<i>BIZTANLE AKTIBOAK</i> . 5 item.
11	<i>PLAN INTERNACIONAL</i> . 3 item.
12	<i>POLIZIAKO ZIENTZIALARIEN ARMAK</i> . 4 item.
13	<i>ZAPATILAK</i> . 4 item.
14	<i>OPARIA</i> . 7 item.
15	<i>AMANDA ETA DUKESA</i> . 5 item.
16	<i>LANGILEAK</i> . 2 item.
17	<i>ARAU BERRIAK</i> . 2 item.


ERLEAK

Informazio hau erleei buruzko liburuxka batetik hartu dugu. Kontsultatu informazioa aurrerago egindako galderei erantzuteko.

NEKTAR-BILKETA

Erleek ezia ekoizten dute bizirik irauteko. Horixe da haien elikagai bakarra. 60.000 erleko erlauntz batean, hiru erletik batek nektarra biltzen du, eta, ondoren, erle langileek ezti bihurtzen dute nektar hori. Erle gutxi batzuk esploratzaileak edo bilatzaileak dira: nektar-iturriak bilatzen dituzte, eta, ondoren, erlauntzera itzultzen dira, besteei aurkitutakoaren berri emateko.

Nektar-iturria non dagoen adierazteko, erle esploratzaileek dantza egiten dute. Dantza horren bidez, hartu beharreko norantzaren eta egin beharreko distantziaren berri ematen dute. Erleek sabelaldea astintzen dute alde batetik bestera eta 8 itxurako zirkuluak egiten dituzte. Dantza hori nolakoa den ikusteko, begiratu azpiko grafikoari.



Grafikoan, erle bat ageri da dantzan, erlauntzeko barruko alde bertikalean. 8aren erdigunea zuzenean gorantz begira badago, horrek esan nahi du erleek eguzkirantz hegan eginez aurkituko dutela elikagaia; 8aren erdigunea eskuinerantz begira badago, berriz, elikagaia eguzkitik eskuinera dagoela.

Erleak sabelaldea astintzen igarotako denborak elikagaia erlauntzetik zer distantziatara dagoen adierazten du. Elikagaia nahiko gertu badago, erleak denbora gutxian astintzen du sabelaldea; oso urrun badago, berriz, denbora askoan.

EZTI-EKOIZPENA

Erleak nektarrarekin erlauntzera heltzen direnean, erle langileei ematen diete nektarra. Erle langileek barailen bidez lantzen dute nektarra, eta erlauntzeko aire bero eta lehorrean jartzen dute. Bildu berritan, nektarrak azukreak eta mineralak izaten ditu urarekin (%80 inguru) nahasita. Behin hamar edo hogeita minutu igarota, soberako ur kantitate handia lurrundu ondoren, erle langileek gelaxketan sartzen dute nektarra, eta, horietan, nektarrak ura galtzen jarraitzen du. Hiru egun geroago, gelaxketako eztiak %20 inguru izaten du ura. Une horretan, erleek argizariz egindako tapen bidez estaltzen dituzte gelaxkak.

Sasoi bakoitzean, lore-mota bereko eta eremu bereko nektarra biltzen dute erleek. Fruta-arbolak, hirustak eta loretan dauden zuhaitzak dira nektar-iturri nagusietako batzuk.

GLOSARIOA

Erle langilea: erlauntzean lan egiten duen erlea

Baraila: aho-atala edo masail-hezurra

Iturria: *Hum Sweet Hum* National Foundation for Educational Research, 1993

1. galdera: ERLEAK

Zein helburu du erleen dantzak?

- A. Ezti-ekoizpena arrakastatsua izan dela ospatzea.
- B. Esploratzaileek zer motatako landarea aurkitu duten adieraztea.
- C. Erregina bat jaio dela ospatzea.
- D. Esploratzaileek elikagaia non aurkitu duten adieraztea.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testuaren ulerkuntza globala.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Deskribapena.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Esploratzaileek elikagaia non aurkitu duten adieraztea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ikasle gehienek erraz egin zuten galdera hori. ELGAko proba pilotuan parte hartu zuten ikasleen %91k erantzun egokia aukeratu zuen.

2. galdera: ERLEAK

Zein da nektarraren eta eztiaren arteko desberdintasun nagusia?

- A. Substantzian dagoen ur-proportzioa.
- B. Substantzian dauden azukrearen eta mineralen arteko erlazioa.
- C. Substantzia biltzeko aukeratzen duten landare-mota.
- D. Substantzia lantzen duen erle-mota.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Deskribapena.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Substantzian dagoen ur-proportzioa.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

2. galdera pixka bat zailagoa izan zen. ELGAko ikasleen %72k ongi erantzun zion proba pilotuan. Horri erantzuteko, ikasleek interpretazio-lana egin behar dute, «Ezti-ekoizpena» izenburua duen paragrafoan azaldutako ideiei jarraituz.

3. galdera: ERLEAK

Dantzan, zer egiten dute erleek elikagaiaren eta erlauntzaren artean zer distantzia dagoen adierazteko?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Deskribapena.
Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Informazio hori BAI sabelaldea astinduz, BAI sabelaldea astintzen igarotako denboraren bidez ematen dela adierazten duten erantzunak. Esate baterako:

- Erleek denbora askoan edo gutxian astintzen dute sabelaldea.

Puntuazio partziala

1 kodea: Sabelaldearen astinduak soilik aipatzen dituzten erantzunak. (Erantzunak ez dauka zertan osorik zuzena izan). Esate baterako:

- Sabelaldea astintzen dute.
- Sabelaldea astintzeko abiaduraz adierazten dute zer distantzia dagoen.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun hutsalak, okerrak, osagabeak edota zehaztugabeak. Esate baterako:

- 8a osatzeko behar duten denbora.
- 8aren tamaina.
- Mugitzeko modua.
- Dantza.
- Sabelaldea.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

3. galderan, ikasleek gai izan behar zuten diagramaren azpiko paragrafoan («Erleak sabelaldea astintzen igarotako denborak...») ageri diren ideiei jarraitzeko. Bi datu aipatu behar zituzten: sabelaren astindua eta denbora-tartea. Proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %48k soilik erantzun zion erabat ongi galdera horri (hau da, gehienezko puntuazioa lortu zuen). %30ek bi datu horietako bat bakarrik adierazi zuen, eta, beraz, puntuazio partziala lortu zuen. Galdera errazagoa izango litzateke beste era batera galdetuta: elikagaiaren eta erlauntzaren artean zer distantzia dagoen adierazteko erleek egiten dituzten zer bi gauza aipatzen dira testuan? Beharbada, galderaren formulazioa zela-eta, testua arreta handiz irakurri zuten neska-mutilek soilik eman zituzten bi datuak.

4. galdera: ERLEAK

Adierazi erleen nektar-iturri nagusietako hiru.

1. _____
2. _____
3. _____

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Deskribapena.
Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: (Hauetako edozein ordenatan): abc, abe, bde.

- a: Fruta-arbolak.
- b: Hirusta.
- c: Loretan dauden zuhaitzak.
- d: Zuhaitzak.
- e: Loreak.

- Erleek denbora askoan edo gutxian astintzen dute sabelaldea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

4. galderari zuzen erantzuteko, ikasleek testuko azken esaldira jo behar zuten: «Fruta-arbolak, hirustak eta loretan dauden zuhaitzak dira nektar-iturri nagusietako batzuk». Informazio hori testuan bertan ageri denez eta galderan hiru iturri eskatzen direnez, harritzekoa da proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %66k soilik ongi erantzutea. Testua ez da zuzenean aipatzen galderan, eta, beraz, litekeena da ikasle batzuk beren oinarritzko ezagutza erabiltzen saiatzea, testuko azken esaldian emandako informaziora jo beharrean.

GUSTU TXARREKOA

Eskutitz hau australiar egunkari batean agertu zen 1997an. Oinarritu bertan aurrerago egindako galderei erantzuteko.

Ba al zenekien 1966an australiarrek ia haien gobernuak kanpo-laguntzan bezainbeste gastatu zutela txokolatetan?
Ba al da gure balio-eskalan funtzionatzen ez duen zerbait?
Zer egitea pentsatzen duzu?
Bai, zuk.

Arnold Jago,
Moldura

Iturria: The Age, 1997ko apirilaren 1a.

1. galdera: GUSTU TXARREKOA

Zer sentimendu sortu nahi du Arnold Jagoren eskutitzak?

- A. Erruduntasuna.
- B. Dibertsioa.
- C. Beldurra.
- D. Poztasuna.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Argudiozkoa.
Testuingurua: Publikoa.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Erruduntasuna.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten herrialdeetako ikasleen %81ek erantzun zion ongi, batez beste, aukera anitzeko galdera horri. Egileak irakurlea konbentzitu nahi du, eta, beraz, argudio-testu bat da. Horrez gain, testu publikoa da, zentzu zabalean gizartean parte hartzearekin lotuta dagoelako eta gertakizun publiko bati buruzko informazioa ematen duelako. Galdera horrek helburu argia du: ikasleak eskutitzeko informazioaren antolaketa ulertzeko gai diren ala ez jakitea. Egilearen asmoa edo helburua ondorioztatzeko, testuko informazioa erabiltzeko eskatu zaie ikasleei. Ez zaie galdetu eskutitzak helburu hori lortu duen ala ez adieraztea (egilearen asmoa edo helburua lortzeko eskutitza erabilgarria den ala ez aztertzeko eskatuz gero, testuen formari buruzko hausnarketaren baitan sailkatu beharko litzateke galdera).

2. galdera: GUSTU TXARREKOA

Zure ustez, zer-nolako erantzuna edota ekintza eragin nahi du Arnold Jagok eskutitz horren bidez?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gainerko hausnarketa.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Argudiozkoa.
Testuingurua: Publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: a edo b motako erantzunak:

- a. Gobernuak edota partikularrek kanpo-laguntzarako diru gehiago bideratu beharko luketela adierazten duten erantzunak. Esate baterako:
 - Jendeak kanpo-laguntzarako dirua ematea.
 - Jendeak karitatezko egintzetarako dirua ematea.
 - Jendeak diru gutxiago gastatu beharko luke txokolatetan eta gehiago pobreei laguntzen.
 - Txokolatetan hainbeste diru gastatu beharrean, atzerriko gaixoen alde diru gehiago gastatzea.
 - Jendeak diru guztia txokolatetan ez gastatzea eta atzerrira ere dirua bidaltzea.
 - Gobernuak kanpo-laguntza handiagoa bidaltzea, jende pobreaki laguntzeko.

- Txokolatea erosi eta jan beharrean, jendeak ez luke hain bihozgabe izan behar eta dirua eman beharko luke ekintza onak egiteko.
- b. Gobernuak edota partikularrek balio-sistema edota arazoarekiko ikuspuntua aldatu beharko luketela adierazten duten erantzunak. Esate baterako:
 - Gure balioak aldatzea.
 - Jendeak baliabideak ardura handiagoz gastatzea nahiko luke.
 - Jendea hunkitzea nahi izan du, besteei laguntzen pentsarazteko eta ez bakarrik euren buruak zaintzen.
 - Pobreek gure laguntza behar dutela konturatzea eta arazo hori konpontzeko jendeak zerbait egin behar duela.

Punturik ez

0 kodea: c, d edo e motako erantzunak:

- c. Egileak irakurlea errudun sentitzea nahi duela adierazten duten erantzunak.
 - Errudun edo lotsatuta sentitzea.
- d. Txokolatetan diru gutxiago gastatu beharko litzatekeela edo hain gozozaleak ez genukeela izan behar adierazten duten erantzunak. Esate baterako:
 - Txokolate gehiago ez erostea.
 - Zabor-jana jateari uztea.
- e. Beste batzuk (zehaztugabeak, desegokiak edota hutsalak). Esate baterako:
 - Karitatezko egintzetan diru gehiago gastatzea.
 - Gobernuak kaleratzea nahiko luke.
 - Jendeak hau esatea gustatuko litzaioke: "Karitatezko egintzak egiteko emango dut nire diru guztia".
 - Ez nago ados Arnold Jagorekin.
 - Ados nago.
 - Nire ustez, eskutitzak jaso nahi ditu, jendeak zein iritzi duen eta arazoa konpontzen laguntzeko zer proposatzen duen jakiteko.
 - Agian, atzerrira txokolatea bidaltzeko dirua biltzeko jendeak zer proposamen dituen jakin nahi du.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera hori zailagoa izan zen, PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %63k soilik erantzun baitzion ongi. Ez du irakurketa ebaluatzen; eskutitzean ageri den informaziotik harago joatera eta edukiaz hausnartzera behartzen du ikaslea. Beraz, ez da zuzentzat jotzen Jagok txokolate gutxiago kontsumitzea eta hain gozozaleak ez izatea nahi duela soilik erantzutea. Irakurritakoari buruz hausnartzean, ikasleek dakitenaz baliatu behar dute eskutitza erabat ulertzeko eta behar bezala erantzuteko: gobernuak edota pertsonak kanpo-laguntza handiagoa eman beharko lukete, balio-eskala aldatu beharko litzateke...

EPAILE ZUZENA

Oinarritu “Epaile zuzena” kontakizunean, aurrerago ageri diren galderei erantzuteko.

EPAILE ZUZENA

Bauakas izeneko aljeriar errege bati esan ziotenez, bazen haren hirietako batean epaile zuzen bat, egia berehala bereiz zezakeena. Inork ez omen zuen hura engainatzerik lortu. Entzundakoa egia zen ala ez jakin nahi zuen, eta, beraz, merkatari-arropak jantzi zituen eta epaile hura bizi zen hirira joan zen, zaldiz.

Hiriaren sarreran, elbarri bat gerturatu zitzaion eta limosna eskatu zion. Bauakasek dirua eman zion, eta aurrera egiteko asmoa zuen, baina elbarriak arropatik heldu zion.

—Zer nahi duzu? —galdetu zion erregeak—. Eman dizut dirua.

—Limosna bat eman didazu —esan zuen elbarriak—, orain egin ieza dazu mesede bat. Utz ieza dazu plaza nagusiraino zurekin zaldi gainean joaten, bestela zaldiek eta gameluek zapaldu egingo naute.

Bauakasek bere atzean eseri zuen elbarria, eta plazaraino eramane.

Zaldia gelditu zuen han, baina elbarriak ez zuen jaitsi nahi izan.

—Heldu gara plazara, zergatik ez duzu jaitsi nahi? —galdetu zion Bauakasek—.

—Zergatik jaitsi behar dut? —erantzun zion eskaleak—. Zaldi hau nirea da. Itzuli nahi ez badidazu, auzitara joan beharko dugu.

Eztabaida hura entzutean, jendea pilatu zen haien inguruan eta oihu egin zien:

—Joan epailearengana! Hark erabakiko du!

Bauakas eta elbarria epailearengana joan ziren. Jende gehiago zegoen auzitegian, eta epaileak txandaka deitzen zien guztiei. Bauakasek eta elbarriaren txanda heldu aurretik, ikasle bati eta nekazari bati entzun zien. Emakume batengatik joan ziren auzitegira: nekazariak bere emaztea zela esaten zuen; ikasleak, berriz, berea zela. Epaileak biei entzun zien, isilik egon zen une batez, eta, ondoren, hau esan zuen:

—Utzi emakumea hemen nirekin eta itzuli bihar.

Haiek joandakoan, harakin bat eta olio-merkatari bat agertu ziren epailearen aurrera. Harakina odolez zikinduta zegoen; merkataria, berriz, olioaz. Harakinak txanpon batzuk zeuzkan eskuan, eta olio-merkataria harakinaren eskuari helduta zegoen.

—Gizon honi olioak erosten ari nintzen —esan zuen harakinak—, eta, ordaintzeko nire poltsa hartu nuenean, eskutik heldu zidan eta diru guztia kentzen ahalegindu zen. Horrexegatik etorri gara zugana; ni, nire poltsari eusten; hura, berriz, nire eskuari. Dirua, ordea, nirea da, eta, merkataria, lapurra.

Ondoren, olio-merkatariak hitz egin zuen:

—Hori ez da egia —esan zuen—. Harakina olioak erostera etorri zen, eta, pitxer bat bete ondoren, urrezko pieza bat aldatzeko eskatu zidan. Dirua atera eta salmahaian jarri nuenean, hartu eta ihes egiten saiatu zen. Eskutik heldu nion, ikus dezakezun moduan, eta zure aurrera ekarri dut.

Epailea isilik egon zen une batez, eta, ondoren, hau esan zuen:

—Utzi dirua hemen nirekin eta itzuli bihar.

Bere txanda heldutakoan, Bauakasek zer gertatu zen kontatu zion. Epaileak entzun egin zion, eta, ondoren, eskaleari hitz egiteko eskatu.

—Esan duen guztia gezurra da —esan zuen eskaleak—. Gizon hori lurrean eserita zegoen; ni, berriz, zaldi gainean nenbilen hirian zehar. Zaldian eramateko eskatu zidan. Zaldi gainera igo eta nahi zuen lekura eramane nuen. Hara heldutakoan, ordea, ez zuen zalditik jaitsi nahi izan eta zaldia berea zela esan zuen, baina hori ez da egia.

Epailea pentsatzen aritu zen une batez, eta, ondoren, hau esan zuen:

—Utzi zaldia nirekin eta itzuli bihar.

Hurrengo egunean, jende asko joan zen auzitegira epailearen erabakiak entzutera.

Lehenik eta behin, ikaslea eta nekazaria etorri ziren.

—Hartu zure emaztea —esan zion epaileak ikasleari—. Nekazariak berrogeita hamar zigorrada hartuko ditu.

Ikasleak bere emaztea hartu zuen, eta, nekazariak, bere zigorra jaso.

Ondoren, epaileak harakinari deitu zion.

—Dirua zurea da —esan zion—. Eta olio-merkataria seinalatuz, hau esan zuen:

—Eman iezazkiozue berrogeita hamar zigorrada.

Jarraian, Bauakasi eta elbarriari deitu zien.

—Ezagutuko al zenuke zure zaldia beste hogeiren artean? —galdetu zion Bauakasi—.

—Bai —erantzun zuen—.

—Eta zuk? —galdetu zion eskaleari—.

—Nik ere bai —esan zuen elbarriak—.

—Etorri nirekin —esan zion epaileak Bauakasi—.

Ukuilura joan ziren. Bauakasek berehala ezagutu zuen bere zaldia beste hogeiren artean. Ondoren, epaileak ukuilura joateko eskatu zion elbarriari, eta bere zaldia zein zen adierazteko. Eskaleak ere ezagutu zuen zaldia eta zein zen adierazi zuen. Epailea bere eserlekura itzuli zen.

—Hartu zaldia, zurea da —esan zion Bauakasi—. Eman iezazkiozue eskaleari berrogeita hamar zigorrada.

Epailea epaitegitik irten eta etxera joan zen, baina Bauakasek jarraitu egin zion.

—Zer nahi duzu? —galdetu zion epaileak—. Ez al zaude ados nire erabakiarekin?

—Bai, ados nago —esan zuen Bauakasek—. Baina nola jakin zenuen emakumea ikaslearena zela, dirua harakinarena eta zaldia nirea eta ez eskalearena?

—Erraz jakin nuen emakumearena. Goizean, deitu eta hau esan nion: «Mesedez, bete nire tintontzia!». Tintontzia hartu, azkar eta trebetasunez garbitu, eta tintaz bete zuen; beraz, ohituta zegoen lan hura egitera. Nekazariaren emaztea izan balitz, ez zuen jakingo nola egin. Hala jakin nuen ikasleak egia esan zuela.

Diruarena, berriz, honela jakin nuen: urez betetako katilu batean jarri nuen dirua, eta, goizean, uraren gainazalean oliorik ba al zegoen begiratu nuen. Dirua olio-merkatariarena izan balitz, haren esku koipetsuek zikindu egin beharko zuket. Ez zegoen oliorik uretan, eta, beraz, harakinak egia esan zidan.

Zailagoa izan zen zaldiarena jakitea. Elbarriak beste hogeiren artean ezagutu zuen, zuk bezalaxe. Nolanahi ere, ez zintuztedan ukuilura eraman zaldia nork ezagutzen zuen ikusteko, hark nor ezagutzen zuen jakiteko baizik. Gerturatu zinenean, burua bihurtu eta lepoa luzatu zuen zугanantz; elbarriak ukitu zuenean, berriz, belarriak atzera bota zituen eta hanka bat altxa zuen. Halaxe jakin nuen zu zarela zaldiaren benetako jabea.

Orduan, hau esan zion Bauakasek epaileari:

—Ez naiz merkataria, Bauakas erregea baizik. Zuri buruz diotena egia den ala ez jakitera etorri nintzen hona. Orain badakit epaile jakintsua zarela. Esan zer nahi duzun eta eman egingo dizut, sari gisa.

—Ez dut saririk behar —erantzun zion epaileak—. Pozik nago nire erregeak goraiatu nauelako.

Iturria: Leon Tolstoinen "Epaile zuzena", *Alegiak eta maitagarrien ipuinak* liburutik hartua. Ann Dunninganek itzuli zuen ingelesera.

1. galdera: EPAILE ZUZENA

Nola jakin zuen epaileak emakumea ikaslearen emaztea zela?

- A. Nekazari baten emaztea ez zirudiela ikusiz.
- B. Auzitegian ikasleak eta nekazariak bakoitzak bere istorioa nola kontatu zuen ikusiz.
- C. Auzitegian emakumeak ikaslearen eta nekazariaren aurrean nola jokatu zuen ikusiz.
- D. Senarrarentzat normalean egiten zuen lanean trebea zen ala ez ikusiz.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narraziozkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsona/Hezkuntzakoa.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Senarrarentzat normalean egiten zuen lanean trebea zen ala ez ikusiz.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Hori izan zen testu honekin lotutako galderarik errazena (PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %82k erantzun zion ongi). Erantzun egokiak –D erantzunak– «... beraz, ohituta zegoen lan hura egitera.» testu-zatiaren antz handia dauka.

2. galdera: EPAILE ZUZENA

Zergatik ez zuen nahi Bauakasek inork ezagutzerik?

- A. Pertsona «normala» balitz hari obeditzen jarraituko luketen jakin nahi zuen.
- B. Epailearen aurrean merkatari mozorrotuta agertu nahi zuen.
- C. Mozorrotzea gustatzen zitzaion, nahi bezala mugitzeko eta mendekoei adarra jotzeko.
- D. Erregea aurrean zela jakin gabe, epaileak normalean nola jokatzeko zuen jakin nahi zuen.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narraziozkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsona/Hezkuntzako.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Erregea aurrean zela jakin gabe, epaileak normalean nola jokatzeko zuen jakin nahi zuen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera hori aurrekoa baino pixka bat zailagoa izan zen. Testuan ezer gutxi esaten da, erregeak merkatari-arropa jantzi zuela eta zaldiz epailearen etxera abiatu zela baino ez. Irakurleak testutik ondorioztatu behar du jokaera horren arrazoiak. Nolanahi ere, PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %70ek erantzun egokia aukeratu zuen.

3. galdera: EPAILE ZUZENA

Zein da kontakizun horren gai nagusia?

- A. Delitu larriak.
- B. Justizia zuhurra.
- C. Gobernatzailer ona.
- D. Txantxa gatzdun bat.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testuaren ulerkuntza globala.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narraziozkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsona/Hezkuntzako.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Justizia zuhurra.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera horren zailtasun-maila aurreko galderarenaren antzekoa da. Helburu argia du: zenbait aukeraren artean gai edota ideia nagusia identifikatuz, ikasleek testu osoa ulertzea. ELGAko ikasleen %72k ongi erantzun zion galdera horri.

4. galdera: EPAILE ZUZENA

Zer motatako kontakizuna da istorio hori?

- A. Ipuin tradizionala.
- B. Bidaia-istorioa.
- C. Narrazio historikoa.
- D. Tragedia.
- E. Komedia.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Formaren gaineko hausnarketa.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narraziozkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsona/Hezkuntzakoa.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Ipuin tradizionala.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Hori da galderarik zailena PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleentzat. Edukia ulertzea eskatzen die, baina baita istorioaren estiloa eta egitura identifikatzea ere. Ikasleen %64 gai izan zen narrazio horren egitura erretorikoa ipuin tradizionalei zegokiela ulertzeko.

5. galdera: EPAILE ZUZENA

Zure ustez, epaileak zuzen jokatu al zuen delitu guztiei zigor bera jarrita? Argudiatu zure erantzuna, hiru delituen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aipatuz.

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gainerko hausnarketa.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narraziozkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsona/Hezkuntzakoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: a motako erantzunak:

- a. Zigorren legaltasuna ebaluatzen du: hiru zigorrak erlazionatzen ditu, delituen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuz. Delituak behar bezala ulertzen ditu. Esate baterako:
 - Ez, askoz delitu larriagoa da gizon bati emaztea lapurtzen saiatzea hari dirua edota zaldia kendu nahi izatea baino.
 - Hiru gaizkileak norbaiti iruzur egiten saiatu ziren, eta, ondoren, gezurra esan zuten; beraz, bidezkoa zen guztiei zigor berbera jartzea.
 - Zaila da esaten. Nekazariak, olio-saltzaileak eta eskaleak zerbait lapurtu nahi zuten. Bestalde, lapurtu nahi zituzten gauzek ez zuten balio bera.
 - Ez, delitu batzuk besteak baino larriagoak ziren.
 - Bai, guztiek gezurra esan zuten.

Punturik ez

0 kodea: Beste batzuk; b, c edo d motako erantzunak barne:

- b. Delituak edota zigorrak behar bezala ulertzen ditu, ebaluatu gabe. Esate baterako:
 - Epailleak berrogeita hamarna zigorrada eman zizkien hiru gaizkileei. Emazte bat, dirua eta zaldi bat lapurtzea izan ziren haien delituak.
 - Bai, hiru kasuetan zegoen pertsona on bat eta pertsona txar bat, eta pertsona txarrak zigorra merezi zuen, gaizki jokatzegatik.
- c. Ez ditu ulertu delituak eta zigorrak. Esate baterako:
 - Nire ustez, ikaslearen eta nekazariaren kasuak ez dauka besteen antzik, dibortzioen antzekoa baita; beste biak, berriz, lapurretak dira. Horregatik, nekazariak ez zuen zigorrak jaso behar.
- d. Ados dago edo ez, baina ez du azalpenik ematen edota azalpen okerra ematen du. Zigorren egokitasuna per se ebaluatzen du (hau da, galdera hau balitz bezala erantzun du: «Berrogeita hamar zigorrada ematea bidezko zigorra al da?»). Esate baterako:
 - Ez, berrogeita hamar zigorrada ematea zigor gogorregia da.
 - Bai, zigor gogorrak beharrezkoak dira, gaizkileak halakorik egiten berriro ez saiatzeko.
 - Ez, ez dut uste zigorrak behar bezain gogorrak izan zirenik.
 - Gogorregia izan zen.
 - Bai, bidezkoa izan zela uste dut.
 - Ez zait bidezkoa iruditzen guztiei zigor bera jartzea, kasu guztiak desberdinak ziren eta.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera horri erantzun erabat osoa eta zuzena emateko, irakurleak zer delitu egin diren badakiela erakutsi behar du eta argudio gogoetatsueta oinarritu behar du bere iritzia. Beraz, testuari eta ipuinaren bidez egileak helarazi nahi duen asmoari buruz sakon hausnartu behar dute ikasleek.

6. galdera: EPAILE ZUZENA

Galdera honi erantzuteko, zure herrialdeko legea eta justizia eta istorioan ageri diren legea eta justizia konparatu behar dituzu.

6a galdera:

Zertan dira ANTZEKOAK zure herrialdeko legea eta justizia eta istorioan ageri diren legea eta justizia?

.....

.....

6b galdera:

Zertan dira DESBERDINAK zure herrialdeko legea eta justizia eta istorioan ageri diren legea eta justizia?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gainerko hausnarketa.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narraziozkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsona/Hezkuntzako.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

6a galdera («antzekoak»).

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: Antzekotasun bat aipatu du. Kontakizuna behar bezala ulertu duela erakutsi du. Alderaketa esplizitu bat egin du bere herrialdeko lege-sistemaren alderdiren batekin, edo, bestela, erraz ondoriozta daiteke konparazio hori. Ez da beharrezkoa lege-sistema nazionalaren berri

zehatza dutela erakustea, baina kontuan izan behar da 15 urteko gazteek beren herrialdeko lege-sistemari buruz izan behar luketen oinarritzko ezagutza duten ala ez. Esate baterako:

- Zigorak frogetan oinarritzen dira.
- Bi aldeei ematen zaie egiaren beren bertsioa emateko aukera.
- Berdintasuna legearen aurrean (edozein zarelarik ere)».
- Epailea da epaimahaiko buru.
- Zigor bera ezartzen zaie antzeko delituei.
- Auzitara eraman zituztela emaitza eztabaidatzeko.
- Istorio horretako sistema judizialean, badago bidezkoa zer den erabakitzen duen pertsona inpartzial bat, epailea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk; zehaztugabeak, okerrak edota hutsalak:

- Ez ditu ona eta txarra bereizten.
- Herrialdeetako politikari garrantzitsuak ere eraman daitezke auzitara.
- Zigorra [*galderagatik baztertua*].
- Epaimahaiak erabakia hartzen laguntzen du.
- Berdinak ziren.

9 kodea: Erantzunik ez.

6b galdera («desberdinak»).

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Desberdintasun bat aipatu du. Kontakizuna behar bezala ulertu duela erakutsi du. Alderaketa esplizitu bat egin du bere herrialdeko lege-sistemaren alderdiren batekin, edo, bestela, erraz ondoriozta daiteke konparazio hori. Ez da beharrezkoa lege-sistema nazionalaren berri zehatza dutela erakustea. (Esate baterako, «epaimahairik gabe» «desberdintasun» gisa onar daiteke, lege-sistema batzuetan halakorik ez bazegoen ere). Kontuan izan da 15 urteko gazteek beren herrialdeko lege-sistemari buruz izan behar luketen oinarritzko ezagutza. Esate baterako:

- Ez dago abokaturik.
- Epaileak egiten du ikerketa-lana.
- Oso azkarra da; auzitegi modernoetan, berriz, epaiketak oso luzeak izaten dira.
- Ez dago epaimahairik; ez dirudi gora jotzeko inolako aukerarik dagoenik.
- Zigorra askoz gogorragoa da [*zigor-motari buruzko iruzkin kualitatiboa*].
- Zigor bera aplikatzen da delitua edozein delarik ere.
- 12 epailek osatutako batzordea -epaimahaia- dago, eta ez epaile bakarra.
- Ez zegoen ez abokaturik, ez epaimahairik.

- Guk epaitegian egiten ditugu epaiketak.
- Epailleek ez dute «galderatxorik» egiten, epaile zuzenak bezala.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk; zehaztugabeak, okerrak edota hutsalak:

- Zigorra.
- Moda zaharrekoa.
- Epaimahai-sistema.
- Ez dute jendea jipoitzen [*galderagatik baztertua*].
- Ez dute ileorderik janzen.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

6. galderan, ikasleek berriro erakutsi behar dute istorioa ulertu dutela eta testuaz kanpoko ezagutza baliatzeko gai direla –kasu honetan, beren lege-sistematikiko antzekotasunak eta desberdintasunak aurkitzeko–. Antzekotasun bat adierazteko erantzun egoki bat: «Bi aldeei ematen zaie egiaren beren bertsioa emateko aukera». Beste erantzun bat: «Zigor bera ezartzen zaie antzeko delituei». Okerrekotzat jotzen dira istorioaren aipamen zehaztugabeak edota okerrak eta erantzun hutsalak. Esate baterako: «Herrialdeetako politikari garrantzitsuak ere eraman daitezke auzitara». Bigarren zatian, edukiaz hausnartu eta desberdintasunak identifikatu behar dituzte. Hori ere bestea bezalaxe kalifikatu da, eta parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %33 inguruk gehieneko puntuazioa lortu zuen.

IKARATZAILEAK

GURASOEK EZ DAKITE ESKOLAN MEHATXU- EDO LARDERIA-ARAZOA DAGOENIK

Joan den asteazkenean Hezkuntza Ministerioak kaleratutako ikerketa batek agerian jarri duenez, galdetutako hiru gurasotatik batek baino ez du seme-alabek eskola-orduetan jasaten dituzten larderia-arazoen –mehatxuen...– berri.

Ikerketa hori 1994ko abenduaren eta 1995eko urtarrilaren artean egin zuen Hezkuntza Ministerioak; ikasleen artean inoiz larderia-arazoren bat izandako ikastetxeetan, betiere. Orotara, 19.000 guraso, irakasle eta ikasleko lagina hartu zen Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko zenbait ikastetxetan.

Inkesta hura izan zen Ministerioak egindako mota hartako lehenbizikoa, eta laugarren mailatik aurrerako neska-mutilen artean burutu zen. Ikerketaren arabera, galdetutako ikasleen artean, Lehen Hezkuntzako neska-mutilen %22k onartu zuen ikaskideen larderia jasan izana; Bigarren Hezkuntzan, %13k; Batxilergoan, berriz, %4k.

Bestalde, galdetutako ikasleen artean, Lehen Hezkuntzako ikasleen %26k onartu zuen inoiz ikaskideren bat mehatxatu izana; Bigarren Hezkuntzan, %20raino jaisten da portzentaje hori; %6raino, Batxilergoko ikasleen artean.

Ikaskideren bat inoiz larderiatu dutela erantzun zuten ikasleen artetik, %39-65ek onartu zuen inoiz beste ikasle batzuen larderia jasan izana.

Ikerketak adierazten duenez, Lehen Hezkuntzan ikaskideen larderia jasan duten haurren gurasoen %37k bazekien seme-alabak egoera hartan zeudela; Bigarren Hezkuntzan, gurasoen %34k zekien seme-alaben egoeraren berri; Batxilergoan, berriz, gurasoen %18k zekien seme-alabak larderia jasaten ari zirela.

Jakinaren gainean zeudela esan zuten gurasoen artetik, %14-18k irakasleen bidez jakin zuen. Ikerketaren arabera, gurasoen %3-4k soilik esan zuen seme-alaben bidez jakin zuela egoera haren berri.

Bestalde, ikerketak agerian jarri du Lehen Hezkuntzako irakasleen %42k ez duela ikasle batzuek eskolan jasaten duten larderiaren berri. Portzentaje hori %29koa da Bigarren Hezkuntzan; %69koa, berriz, Batxilergoan.

Haurren larderia-jokaeraren jatorriari buruz galdetzean, irakasleen %85ek etxean jasotako hezkuntzaren kalitate eskasari bota zion arazo horren errua. Guraso askok adierazi zutenenez, haurrek ez dute ez justizia-zentzurik, ez eta besteekiko errukirik, eta horiek dira jokaera horren arrazoi nagusia.

Hezkuntza Ministerioko funtzionario batek esan zuenez, datu horiek argi erakusten dute zein den neska-mutilen jokaera oldarkorrek desagerrarazteko modua: gurasoek eta irakasleek harreman estuagoa izan behar dute hurrekin.

Ikaskideen arteko larderia arazo larria bihurtu da Japonian. Hain zuzen ere, 1994ko udazkenean, 13 urteko mutil batek, Kiyoteru Okouchi-k, bere burua urkatu zuen Nishio-n (Aichi). Okouchik ohar bat utzi zuen, esanez ikaskideek behin baino gehiagotan urperatu zutela inguruko ibai batean eta dirua ere kendu ziotela. Gertakizun latz haren eraginez, Hezkuntza Ministerioak ikastetxeetako larderiari buruzko txosten bat egitea erabaki zuen. Horrez gain, ikaskideak larderiätzen zituzten ikasleei eskolara itzultzen ez uzteko ere eskatu zien irakasleei.


Iturria: Kyodo, The Japan Times Ltd., Tokyo, 1996ko maiatzaren 23a

Aurreko orrialdeko artikulua japoniar egunkari batean agertu zen 1996an.
Oinarritu bertan galdera hauei erantzuteko.

1. galdera: IKARATZAILEAK

Maila bakoitzetik, zein irakasle-portzentajek ez zekien bere ikasleak larderia edo mehatxuak jasaten ari zirenik?

Biribildu datu hori ongien irudikatzen duen aukera (A, B, C edo D).



GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Azalpenezkoa.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: "A" letra edo "A" grafikoa.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera horretan, artikuluan literalki azaldutako informazioaz baliatu behar dute ikasleek. Zuzen erantzuteko, «Bestalde, ikerketak agerian jarri du Lehen Hezkuntzako irakasleen %42k...» paragrafoan bilatu behar dute informazioa, eta galderan emandako lau aukeretako batekin alderatu. PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %73k ongi erantzun zion galderari. Nahiko zaila izan zen, testu jarraitu bateko informazioa grafikoki –modu ez-jarraituan– adierazitako galdera batekin alderatu behar zelako.

2. galdera: IKARATZAILEAK

Zergatik hitz egiten da artikuluan Kiyoteru Okouchiren heriotzari buruz?

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Azalpenezkoa.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Larderia (eta nork bere buruaz beste egitea) jendearen kezkarekin edota inkestarekin lotzen dituzten erantzunak. Loturak esplizitua izan behar du, edo, bestela, erraz ondorioztatze modukoa. Ikasleek eman ditzaketen erantzunen adibideak:

- Inkesta zergatik egin zen azaltzeko.
- Japonian larderiari buruz dagoen kezka handia azaltzen duten arrazoiak emateko.
- Larderiaren ondorioz bere buruaz beste egin zuen mutil bat zen.
- Larderia oso larria izan daitekeela erakusteko.
- Muturreko kasu bat zen.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun zehaztugabeak edota okerrak:

- Japoniar ikasle bat zen.
- Halako kasu asko gertatzen dira munduan.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Badirudi galdera hori aurrekoa baino pixka bat errazagoa dela (PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %84k behar bezala erantzun zion galderari). Galderari ongi erantzuteko, azken bi paragrafoetako informazioa lotzeko gai izan behar dute. Interpretatzeko trebetasuna erakutsi behar dute berriro, testuko antolaketa logikoa eta ideien aurkezpena ulertzen dituztela erakutsiz. «Epaile zuzena» testuari buruzko 1. galderan, aukera anitzeko formatua erabili da ikasleek interpretatzeko zer-nolako trebetasuna duten jakiteko; galdera honetan, berriz, esaldi labur batean zenbait ideia lotzeko eskatzen zaie: ikasle batek bere burua hiltzea, japoniar eskoletan larderia-kontzientzia gero eta bistakoagoa izatearekin eta ikasle batzuen jokaerarekiko kezka publikoarekin.

UDAL LIBURUTEGIAK

Udal Liburutegien Sistemak orrialde-markatzaile bana oparitzen die bazkide berriei, ordutegi eta guzti duena. Kontsultatu ordutegi hori aurrerago ageri diren galderei erantzuteko.

	ORDUTEGIA				
	1998ko otsailetik aurrera				
	Lauaxeta	J. Caro Baroja	R.M. Azkue	G. Aresti	B. Etxepare
Igandea	13.00-17.00	Itxita	14.00-17.00	Itxita	14.00-17.00
Astelehena	11.00-20.00	11.00-17.30	13.00-20.00	11.00-17.30	10.00-17.00
Asteartea	11.00-20.00	11.00-20.00	11.00-20.00	11.00-20.00	10.00-17.00
Asteazkena	11.00-20.00	11.00-17.30	10.00-20.00	11.00-17.00	10.00-17.00
Osteguna	11.00-20.00	11.00-17.00	10.00-20.00	11.00-17.30	10.00-17.00
Ostirala	11.00-17.00	11.00-17.00	10.00-20.00	11.00-17.00	10.00-17.00
Larunbata	10.00-13.00	10.00-13.00	9.00-13.00	10.00-13.00	9.00-17.00

1. galdera: UDAL LIBURUTEGIAK

Zein ordutan ixten ditu ateak G. Aresti liburutegiak asteazkenetan?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Koadroak eta matrizeak.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Arratsaldeko 5etan puntuan edo 17:00etan.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ongi erantzuteko, ikasleek aski zuten asteazkenari dagokion ilarara jotzea eta, bertan, G. Aresti liburutegiak zein ordutegi duen begiratzeko.

2. galdera: UDAL LIBURUTEGIAK

Zein liburutegi egoten da zabalik ostiraletan 18:00etan?

- A. Lauaxeta liburutegia.
- B. R. M. Azkue liburutegia.
- C. J. Caro Baroja liburutegia.
- D. G. Aresti.
- E. B. Etxepare liburutegia.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Koadroak eta matrizeak.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: R. M. Azkue liburutegia.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Erantzuteko, ostiralari dagokion ilarara jo behar dute ikasleek. Bertan, ikusiko dute 17:00etatik aurrera liburutegi bakarra dagoela zabalik.

BERMEA

Ondoren, kamera berria erostean Nekaneri eman zioten ordainagiria eta kameraren berme-txartela ageri dira. Erabili dokumentu horiek aurrerago ageri diren galderei erantzuteko.



Bideo Etxea
Kale Nagusia, 15a
105233 ARETXONDO
TLF.: 0333100 FAXa: 0333102
http://www.itzala.com

BEZEROA
NEKANE OSTOLAKUE
Barrenkale, 17a 105233 ARETXONDO

ITZALA BIDEO ETXEA Kale Nagusia, 15a 105233 Aretxondo 033.31.00		
	DATA 99/10/18	ORDUA 12.10
KONTUA	SALTZAILEA 24 KOLDO	REG 16

PRODUKTUA	AZALPENA	SERIE-ZENBAKIA	ZERRENDA	KOPURUA	GARBIA	GUZTIRA	KANBIOAK
150214	ROLLY FOTONEX 250 ZOOM	30910963		1	21.912	21.912	X
33844	TRIPODEA			1	498	498	x
	Transakzioa	. . . Kopurua	. . . Kanbioak		Azpitotala	22.410	
	Visa txartela	22.410			Guztira	22.410	

URTEBETEKO BERMEA: (erabiltzaile partikularrentzat)

ESPAINIAN SOILIK BALIO DU

ITZALA BIDEO ETXEA dendak hau bermatzen dio jabeari: kamerak ez dauka material- edota ekoizpen-akatsik. Berme hau besterenezina da.

ITZALA BIDEO ETXEA dendak inolako kargurik gabe eman, konpondu edota aldatuko dizu –zuk nahi bezala– edozein atal, baldin eta berme-garaiaren barruan ITZALA BIDEO ETXEA dendak kameran material- edota ekoizpen-akatsik aurkitzen badu.

MESEDEZ, BETE LETRA ARGIZ

ZENBAKIA: M 409668

Kamera – Modeloa:

Serie-zenbakia:

Jabearen izena:

Nekane Ostolakue

Helbidea:

Barrenkale, 17a - 105233 ARETXONDO

Erosketa-eguna:

Salneurria:

Banatzailearen zigilua

ADI:

Berehala bidali - Frankeatu egin behar da

Berme-txartel hau bete egin behar da, eta

ITZALA BIDEO ETXEA dendara bidali 10 egunen barruan, erositako egunetik hasita.

Nazioarteko Berme Txartela emango diegu hala eskatzen duten bezeroei.

1. galdera: BERMEA

Erabili ordainagirian ageri diren datuak berme-txartela betetzeko.
Jabearen izena eta datuak idatzita daude jada.

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Formularioa.
Testuingurua: Erabilera pribatua.
Galderaren formatua: Erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

1a (modelo):

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: Modeloa behar bezala identifikatzen duten erantzunak:

- Rolly Fotonex 250 zoom.
- Rolly Fotonex.
- Fotonex.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

1b (serie zenbakia):

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: 30910963.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

1c (salerosketa eguna):

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: 99/10/18.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

1d (salerosketa eguna):

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: (\$) 249,08.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

● (\$) 254,74.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera horretan, berme-txartela betetzeko ordainagirian ageri den informazioa erabiltzeko esaten zaie ikasleei. Lau datu lortu behar dituzte, eta bakoitza bere lekuan idatzi behar dute. Horietako bakoitzak bere kalifikazioa jaso du, eta kalifikazio horiek gehitu egiten dira, puntuazio orokorra emateko. PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %44k soilik bete zituen ongi lau atalak.

2. galdera: BERMEA

Zenbat denbora dauka Nekanek berme-txartela itzultzeko?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Formularioa.

Testuingurua: Erabilera pribatua.

Galderaren formatua: Erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: “10 egun” edota “hamar egun” adierazten duten erantzunak. Esate baterako:

● 10 egunen barruan, erositako egunetik aurrera.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Ikasleek berme-txartelaren barreneira jo behar dute, han jartzen baitu erosketa-egunetik aurrera 10 egun baino lehen itzuli behar dela txartela. PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %86k erantzun zion ongi galdera horri.

3. galdera: BERMEA

Fakturaren bukaeran, «Mila esker zure erosketagatik» hitzak ageri dira. Heziera onekoak izatea da hori idaztearen arrazoietako bat. Beste arrazoiren bat aipa al dezakezu?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Formularioa.
Testuingurua: Erabilera pribatua.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Saltzailearen eta eroslearen arteko harremanaren garapena era inplizituan nahiz era esplizituan aipatzen duten erantzunak. Esate baterako:

- Negozioari mesede egiten dio bezeroa adeitasunez tratatzeak.
- Bezeroarekin harreman ona ezartzea.
- Zu berriz itzultzea nahi dute.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.


Analisia

Galdera horrek ordainagiriaren bukaeran ageri den letra txikia du oinarri, baina testuan emandako informaziotik harago doan erantzuna eman behar da. Ikasleek beren kanpo-ezagutza baliatu behar dute egoeraz hausnartzeko eta saltzailearen eta bezeroaren artean harreman positiboa ezartzen saiatzearekin lotuta dagoen zerbait erantzuteko. PISA proiektuaren proba pilotuan parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %56k soilik erantzun zion ongi galdera horri.

TXAD LAKUA

Hemen behean, 1. koadroan, Ipar Afrikako Txad lakuko ur-mailak agertzen dira. Txad lakua Kristo aurreko 20000. urtean-edo guztiz desagertu zen, azken glaziazioan alegia. Gutxi gorabehera Kristo aurreko 11000. urtean berriz agertu zen. Gaur daukan ur-maila Kristo ondoko 1000. urtean zuena da.


1. koadroa



Ondoren, 2. koadroan, Saharako haitzetan marraztutako animaliak agertzen dira (aintzinako marrazkiak kobazuloetan aurkituta). Gune horretako basabizitza nola aldatu den erakusten da.

2. koadroa

Sahara: Marraztutako animaliak. Basabizitzaren aldaketak



Beste aldeko orrialdean Txad lakuari buruz emandako informazioan oinarrituta, erantzun ondoko galderei.

1. galdera: TXAD LAKUA

Gaur egun zein da Txad lakuaren sakontasuna?

- A. Bi metro, gutxi gorabehera.
- B. Hamabost metro, gutxi gorabehera.
- C. Berrogeita hamar metro, gutxi gorabehera.
- D. Lakua guztiz desagertu da.
- E. Datu hori ez zaigu eman.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Grafikoak eta eskemak.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Bi metro, gutxi gorabehera.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %64,8k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 478 puntukoa izan zen.

2. galdera: TXAD LAKUA

Lehen koadroko grafikoa zein urtetik, gutxi gorabehera, hasten da?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Grafikoak eta eskemak.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Kristo aurreko 11.000. urtea (edota 10.500-12.000 arteko hurbilketa bat) aipatzen duten erantzunak, eta, beraz, ikasleak eskalan oinarrituta estrapolazioa egin duela adierazten dutenak. Esate baterako:

- 11.000.
- Kristo aurreko 11.000. urtea.
- Kristo aurreko 10.500. urtea.
- Justu Kristo aurreko 10.000. urtearen aurretik.
- 12.000 inguruan.
- Kristo aurreko 11.000. urtearen inguruan.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk, grafikoaren hasiera-puntua aipatzen duten datak barne. Esate baterako:

- Kristo aurreko 10.000. urtea [*Ez du eskalan oinarritutako estrapolaziorik egin*].
- Kristo aurreko 20.000. urtea
- Kristo aurreko 8.000. urtea [*Okerreko irudia aukeratu du*].
- ~~Kristo aurreko 11.000. urtea~~. Kristo aurreko 4.000. urtea [*Marratutako erantzunak ez dira kontuan hartu behar*].
- 0.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %50,4k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 540 puntukoa izan zen.

3. galdera: TXAD LAKUA

Esandako grafikoan zergatik aukeratu zen data hori hasteko?

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Grafikoak eta eskemak.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: Lakuaren berragerpenari buruzko erantzunak. Oharra: nahiz eta aurreko erantzuna okerra izan, 1 puntu eman dakieke erantzunei. Esate baterako:

- Txad lakua Kristo aurreko 20.000. urte inguruan desagertu zen erabat, eta Kristo aurreko 11.000. urte inguruan berragertu zen.
- Laku hori Izotz Aroan desagertu zen, eta, ondoren, berragertu egin zen, garai horretan, gutxi gorabehera.
- Orduan berragertu zen.
- Kristo aurreko 11.000. urte inguruan berragertu zen.
- Lakua berragertu egin zen, 9.000 urtean desagertuta egon ondoren.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk. Esate baterako:

- Animaliak agertzen hasi zirelako.
- Kristo aurreko 11.000. urtean egin zituelako gizakiak labar-pinturak.
- Lakua Kristo aurreko 11.000. urtean agertu zelako (lehen aldiz).
- Garai hartan Txad lakua erabat lehortuta zegoelako.
- Hori delako grafikoko lehen trazua.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %36,6k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 600 puntukoa izan zen.

4. galdera: TXAD LAKUA

Zein da 2. koadroak adierazten duenaren arrazoia?

- A. Haitzetan marraztutako animaliak lakuaren inguruetan bizi zirela gizakiek marraztu zituzten garaian.
- B. Animaliak marraztu zituzten gizakiak oso trebeak zirela.
- C. Animaliak marraztu zituzten gizakiak bidaia handiak egiteko gauza zirela.
- D. Inor ez zela haitzetan marraztutako animaliak etxekotzen saiatu.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Grafikoak eta eskemak.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena A aukera: Haitzetan marraztutako animaliak lakuaren inguruetan bizi zirela gizakiek marraztu zituzten garaian.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %76,9k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 397 puntukoa izan zen.

5. galdera: TXAD LAKUA

Galdera honi erantzuteko 1. eta 2. koadroetako datuak lotu behar dituzu.

Errinozeroak, hipopotamoak eta uroak noiztik ez dira Saharako haitzetan marraztu?

- A. Azken glaziazioaren hasieratik.
- B. Txad lakuak bere ur-mailarik altuena izan zuen denboraldiaren erditik.
- C. Txad lakuaren ur-maila mila urte baino gehiagotan etengabe jaisten ari izan zenetik.
- D. Denboraldi lehor etengabe baten hasieratik.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Grafikoak eta eskemak.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Txad lakuaren ur-maila mila urte baino gehiagotan etengabe jaisten ari izan zenetik.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia


PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %56,4k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 508 puntukoa izan zen.

GRYPEA

GRYPEAREN AURKA, borondatezko TXERTAKeta-PROGRAMA, AKOL ENPRESAK ESKAINIA

Zuk, zalantzarik gabe, badakizu gripea neguan azkar zabaltzen dela. Harrapatzen dutenei, batzuetan, aste bete baino gehiago kostatzen zaie sendatzea.


Birus horren aurka borrokatzeko modurik egokiena gorputz sendo eta osasuntsua edukitzea da. Egunero kirola egitea, eta fruta eta barazki asko jatea, oso gauza egokiak dira immunitate-sistemari birus inbasorearen aurka egiten laguntzeko.



AKOLEk bere langileei gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera eman nahi die, hori baita gripearen birus gaiztoa gure artean zabaltzea saihesteko modu gehigarria. AKOLEk txertoak emateko ardura erizain baten eskuetan utzi du. Txertoak azaroaren 17ko astean jarriko dira, egun erdi batean, lanorduetan. Programa doakoa da eta enpresako langile guztiei eskaintzen zaie.

Txertatzea borondatezkoa da. Parte hartu nahi dutenek orri bat bete beharko dute, idatzizko baimena emateko eta txertoaren alergia-rik ez dutela esateko, baita beharbada txertatzearen zeharkako ondorioak (garrantzi gutxikoak) izan ditzaketela jakin badakitela adierazteko ere.

Medikuek askotan esan dutenez, txertatzeagatik ez da griperik hartzen. Hala ere, zeharkako ondorioak sor daitezke, hala nola nekea edo sukar pixka bat sumatzea, edo besoa minberatuta edukitzea.



NORI KOMENI ZAIO TXERTATZEA?

Birusaren aurkako babesak nahi duten guztiei.

Txertatzea batez ere 65 urtetik gorakoentzat da gomendagarria. Baina adina alde batera utzita, gaixotasun ahulgarri kronikoak dauzkaten GUZTIEK hartu beharko lukete, bereziki bihotzeko, biriketako edo bronkioetako gaixotasunen bat edo diabetesa daukatenei.

NORI EZ ZAIO TXERTATZEA KOMENI?

Arrautzen alergia daukatenei, sukarra daukatenei eta haurdun daudenei.

Botikaren bat hartzen ari bazara edo inoiz honelako txerto bat hartzean ondorio txarren bat izan baduzu, hitz egin zure medikuarekin.



Azaroaren 17ko astean txertoa hartu nahi baduzu, pertsonaleko burua den Ana Luzuriaga andreari azaroaren 7a baino lehenago jakinarazi behar diozu. Txertatzeko eguna eta ordua aukeratzeko, erizainak daukan lana, partehartzaile-kopurua eta langilerik gehienei komeni zaien ordua hartuko dira kontuan. Negu honetarako txertoa hartu nahi baduzu, baina ezarritako eguna gaizki badatorkizu, esan Anari. Egoera horretan dauden langileak nahikoak badira, agian beste egunen batean txertatzeko aukera emango zaie.

Edozein zalantza argitzeko, deitu Anari. Luzapena: 5577.

Osasuntsu bizi !!

Ana Luzuriaga andreak, AKOL enpresako pertsonal-buruak, aurreko bi orrialdeetako argibideak prestatu ditu, AKOLeko langileek irakur ditzaten. Argibideak erabili, gero ikusiko dituzun galderei erantzuteko.

1. galdera: GRIPEA

AKOLeko gripearean aurkako programan zer esaten zaie langileei txertatzera bultzatzeko?

- A. Neguan egunero kirol-ikastaroak emango direla.
- B. Txertoak lanorduetan emango direla.
- C. Partehartzaileek soldatarekin batera diru-kopuru gehigarri bat jasoko dutela.
- D. Txertoak mediku batek jarriko dituela.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Txertoak lanorduetan emango direla.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %70,0ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 443 puntukoa izan zen.

2. galdera: GRIPEA

Gu mintza gaitezke informazioak **zertaz** hitz egiten duen (bere edukia).

Komentatu dezakegu informazioa **nola** idatzia dagoen (bere estiloa).

Anak nahi du informazioaren estiloa hurbila eta adoretsua izatea.

Uste duzu lortu duela?

Azaldu zure erantzuna, eskema, idatz-estiloa, irudiak eta grafikoak kontutan hartuz.

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Formaren gaineko hausnarketa.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Testua zehaztasunez aipatzen, estiloa helburuarekin lotzen eta egilearen asmoa –“atsegina izatea eta txertoa hartzea animatzea”– agerian jartzen duten erantzunak. Hauetakoren bat egin behar dute, GUTXIENEZ:

(1) Ezaugarri bat zehaztasunez aipatu (testuaren antolaketa, estiloa, irudiak edo beste grafiko batzuk edota antzeko xehetasun batzuk); hau da, ezaugarri baten alderdi jakin bat aipatu; EDOTA

(2) “Atsegina” eta “txertoa hartzea animatzea” ez beste balorazio-hitz batzuk erabili (“interesgarria”, “irakurterraza” eta “argia” ez dira, beren kabuz, behar bezain zehatzak).

Anaren lanari buruzko iritzia esplizitua nahiz inplizitua izan daiteke. Esate baterako:

- Ez, ez zen ideia ona izan hasieran xiringa baten irudia jartzea. Beldurtu egiten du. [Diseinuaren alderdi jakin bat

aipatu du (1). Balorazio-hitzak erabili ditu: “beldurtu egiten du” (2)].

- Bai, irudiek testua zatitzen dute, eta irakurterrazagoa egiten. [*Diseinuaren alderdi jakin bat aipatu du (1)*].
- Komiki-motako marrazkia maitagarria da. [*Irudi baten alderdi jakin bat (“komiki-motako marrazkia”) aipatu du (1)*].
- Ez, irudiek haurrentzat eginak dirudite eta ez dira adierazgarriak. [*Bere hitzak (“haurrentzat eginak”, “ez dira adierazgarriak”) erabili ditu galderaren enuntziatuan aipatutako alderdietako bat baloratzeko (2)*].
- Bai, estiloa lasaia eta informala da. [*Bere hitzak (“lasaia” eta “informala”) erabili ditu galderaren enuntziatuan aipatutako alderdietako bat baloratzeko (2)*].
- Bai, estiloa beroa da eta txertoa hartzera animatzen du. [*Bere hitzak erabili ditu estiloa baloratzeko (2)*].
- Testu gehiegi dago. Jendea ez da hori guztia irakurtzen jarriko. [*Aurkezpenaren alderdi garrantzitsu bat aipatu du: testuaren hedapena (1). Bere balorazio-hitzak erabili ditu (2)*].
- Ez du inor behartzen injezioa jartzera, eta horrek txertoa hartzera animatzen du jendea. [*Gaiari heltzeko moduaren aipamen inplizitua: estiloaren alderdi bat (2)*].
- Ez, testuaren estiloa oso formala da. [*Bere balorazio-hitz bat erabili du, eztabaidagarria baina sinesgarria: “formala” (2)*].

Kreditu partziala

1 kodea: Testua zehaztasunez aipatzen, informazioa eta edukia (estiloaren lekuan) helburuarekin lotzen eta egilearen asmoa –“atsegina izatea eta txertoa hartzera animatzea”– agerian jartzen duten erantzunak. Anaren lanari buruzko iritzia esplizitua nahiz inplizitua izan daiteke. Esate baterako:

- Ez, ezinezkoa da injezio bat jartzeari buruzko mezu bat atsegina izatea eta mezu horrek txertoa hartzera animatzea.
- Bai, lortu zuen. Txertoa hartzeko aukera zabala ematen du. Osasun-aholkuak ere ematen ditu.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasak edota zehaztugabeak. Esate baterako:

- Bai, ideia onaren itxura ematea lortu du.
- Bai, atsegina da eta txertoa hartzera animatzen du. [*Terminoak ez dira ezaugarri jakinetan aplikatu*].
- Ez, ez du funtzionatu.
- Ez, informazioaren zati bat ez baita zuzena. [*Edukia aipatu du, estiloarekin –“atsegina eta txertoa hartzera animatzen duena”– inolako loturarik ezarri gabe*].
- Bai, irudiek txertoa hartzera animatzen dute eta mezuaren estiloa ere onargarria da. [*“Irudiek txertoa hartzera animatzen dute” hitzek ez dute ezer berririk aipatzen, eta “Mezuaren estiloa ere onargarria da” ez da batere zehatza*].

- Lortu du, erraz irakurtzen da eta argia da. [*Ez da behar bezain zehatza*].
- Bete-betean lortu du. Irudiak aukeratu ditu eta testu interesgarria idatzi du. [*Ez du irudirik baloratu eta “testu interesgarria” ez da batere zehatza*].

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Bai, guztiei jarri behar zaie inekzioa. [*Hutsala eta zehaztugabea*].
- Ez, irudiek ez daukate zerikusirik mezuarekin. [*Zehaztugabea*].
- Bai, jendeak griperik ez harrapatzeko neurriak hartzea nahi duelako. [*Ez dator guztiz bat estiloarekin –“atsegina eta txertoa hartzera animatzen duena”–*].
- Ona da, baina iritzi bat baino ez da. [*Hutsala*].
- Bai, gripea gelditzeko egin behar duenari buruzko informazio laburra eman zuen. [*Hutsala: edukia aipatu du, inolako zehaztasunik gabe*].
- Bai, baina gertakizunak soilik aipatu ditu. [*Hutsala*].
- Bai, jende gehiago immunizatu behar delako. [*Immunizazioari buruzko iritzi globala eman du, baina ez du aipatu ez estiloa, ez edukiaren xehetasunik*].
- Bai, inork gaixotu nahi ez duelako egingo dut. Guztiok nahi dugu osasun ona izan. [*Hutsala*].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %44,3k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 583 puntukoa izan zen.

3. galdera: GRIPEA

Informazio-orriaren arabera, gripearen aurka babesturik egoteko,

- kirola eta janari osasuntsua baino eraginkorragoa da txertoa, baina arriskutsuagoa ere bai.
- ideia ona da txertoa, baina ez da kirola eta janari osasuntsua ordezkatzeko erabili behar.
- kirola eta janari osasuntsua bezain eraginkorra da txertoa. Gainera, arazo gutxiago sortzen ditu.
- ez du txertoa jartzerik merezi, kirol asko egiten baduzu eta janari osasuntsua hartzen baduzu.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Azalpenezkoa.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: ideia ona da txertoa, baina ez da kirola eta janari osasuntsua ordezkatzeko erabili behar.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %53,3k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 521 puntukoa izan zen.

4. galdera: GRIPEA

Hau informazio-orriko zati bat da:

NORI KOMENI ZAIO TXERTATZEA?

Birusaren aurkako babesa nahi duten guztiei.

Anak orria banatu ondoren, lankide batek berarekin hitz egin zuen. Horren ustez, “Birusaren aurkako babesa nahi duten guztiei” pasarteak nahastea sortzen du eta ezabatu egin beharko litzateke.

Hitz horiek nahastea sortzen dutelarekin eta ezabatzearekin ados al zaude?

Azaldu zergatik.

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Azalpenezkoa.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Testu-zatia “gaizki ulertzea” terminoarekiko ebaluatzen duten erantzunak, kontraesana egon daitekeela adieraziz (“Nori komeni zaio txertatzea? ...guztiei” vs “Nori ez zaio txertatzea komeni?”). Kontraesana zein den azal dezake edo ez. Adostasuna edo desadostasuna esplizitua nahiz inplizitua izan daiteke. Esate baterako:

- Bai, txertoa arriskutsua izan daitekeelako zenbait pertsonarentzat (haurdun dauden emakumeentzat, esate baterako). [*Kontraesana deskribatu du*].
- Ez, lerro gutxi batzuk gehiago irakurtzea nahikoa baita pertsona batzuei injekzioa jartzea ez dela komeni konturatzeko, eta, oro har, jendeak txertoa hartzea nahi du.
- Bai, “edonork” har dezakeela dioelako eta, ondoren, nork ezin duten hartu adierazten duelako. [*Kontraesana identifikatu du*].
- Esaldi horretan, txertoa guztiok hartu behar dugula esaten da, baina hori ez da egia. [*Kontraesana adierazi da, labur-labur*].
- Bai, hein batean. Honela izan beharko luke: “Birusaren aurkako babesa nahi izanik, sintoma edota gaixotasun hauek ez dituzten guztiei”. [*Proposamen horrek kontraesana identifikatu duela adierazten du*].

EDOTA: testu-zatia “gaizki ulertzea” terminoarekiko ebaluatzen duten erantzunak, adierazpena gehiegikeria izan daitekeela adieraziz (esate baterako, jende guztiak ez dauka txertoa hartu beharrik, txertoak ez du babes osoa ematen). Gehiegikeria zein den azal dezake edo ez. Adostasuna edo desadostasuna esplizitua nahiz inplizitua izan daiteke. Esate baterako:

- Ahaztu ezazu, txertoa hartzeak ez baitu esan nahi gripea harrapatuko ez duzunik.
- Ez nago ados, nahiz eta txertoa hartu ezean gripea harrapatuko dugula adierazi.
- Injekzioa jartzeak ez du babes osoa ematen.
- Ez nioke kasurik egingo, jende guztiak ez baitu gripea harrapatzen; ongi eta sasoian bazeude, batez ere.
- Bai, ados nago. Izan ere, benetan dena baino hobea dirudi. [*Gehiegikeria inplizitua da*].

Punturik ez

0 kodea: Testu-zatia ebaluatu arren, “gaizki ulertzea” terminoa ebaluatzen ez dutenak. Esate baterako:

(1) Adierazpena sendoa eta eraginkorra dela edota animatu egiten duela adierazi du, baina ez du kontraesana edota gaizki ulertzea eragin dezakeen elementua aipatu;

EDOTA

(2) “Birusaren aurkako babesa nahi duten guztiei” adierazpena erredundantea dela adierazi du, haren ustez bistakoa dena esplizitatzen baitu.

- Ongi dago, jendea animatu egiten du-eta. [1].
- Sartu egin behar da, mezua nabarmenarazten baitu. [1].
- Nire ustez, bazeukan hitz horiek ez sartzea, argi baitago guztiok babestu nahi dugula birusetik, nahiz eta hori txertaketaren bidez lortu ez. [2].

EDOTA: erantzun eskasak edota zehaztugabeak, edota “gaizki ulertzea” terminoa berriro erabili bai baina azaltzen ez duten erantzunak. Esate baterako:

- Utz ezazu, ongi dago. [*Ez dago azalpenik*].
- Beste irudi bat jarri beharko lukete izenburuaren lekuan. [*Ez dago azalpenik*].
- Bai, esaldi hori gaizki interpreta daiteke eta arazoak sor ditzake. [*Ez dago azalpenik*].

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Kendu egin beharko litzateke, guztiok daukagu-eta geure kabuz erabakitzeko eskubidea. [*Testuaren funtzioa ez du behar bezala ulertu: ez da agindu bat*].
- Nire ustez, GRIPEAREN hitza jarri beharko litzateke BIRUSAREN hitzaren aurretik, testua gainetik begiratzean beste birus bati buruz ari dela pentsa daiteke-eta. [*Sinesgaitza da “gaizki uler” daitezkeen hitzak azaltzeko*].
- Bai, jendeak interesa izan dezake, baina orratzei beldurra izan diezaieke. [*Hutsala*].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %45,8k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 637 puntukoa izan zen.

5. galdera: GRIPEA

Informazio-orriaren arabera, langile hauetatik zeinek deitu beharko lioke Anari?

- A. Estepanek. Estepanek biltegian lan egiten du eta ez du txertorik jaso nahi, bere gorputzaren babes-baliabide naturalak fidagarriago iruditzen zaizkiolako.
- B. Jaionek. Jaionek salmenta-sailean lan egiten du eta txertatzeko programa derrigorrezkoa den jakin nahi du.
- C. Arantzak. Arantzak posta-sailean lan egiten du. Txertoa jaso nahiko luke, baina bi hilabete barru umea izango du.
- D. Mikelek. Mikelek kontabilitate-sailean lan egiten du. Txertoa jaso nahiko luke, baina azaroaren 17ko astean, baimena hartuta, ez da lanera etorriko.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Mikelek. Mikelek kontabilitate-sailean lan egiten du. Txertoa jaso nahiko luke, baina azaroaren 17ko astean, baimena hartuta, ez da lanera etorriko.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %44,7k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 562 puntukoa izan zen.

GRAFFITIAK

Graffitien ondorioz, eskolako horma lau aldiz garbitzen eta berriro pintatzen ikusi dut, eta horregatik izugarri haserretu naiz. Sormena zoragarria da, baina norberak buruan daukana adierazteko beste modu bat bilatu beharko luke, gizarte osoari gastuak ekarri gabe.

Graffitiak leku debekatueta marrazten dituzuen bakoitzean, gazte guztien ospea kaltetzen duzue. Ez al zarete horretaz konturatzen? Benetako artistek ez dituzte beren koadroak kaleetan zintzilikatzen, ezta? Dirulaguntzak eta ospea lortzen saiatzen dira legezkoak diren barruko erakusketen bidez.

Nire ustez eraikinak, hesiak eta parkeetako eserlekuak artelanak dira berez. Graffitien bidez arkitektura hondatzea negargarria da, eta are gehiago, hondatzeko modua bera ere kaltegarria da ozono-geruzarako. Egia esateko, ezin dut ulertu zergatik mintzen diren artista gaizkile horiek hormak beren "artelanetatik" behin eta berriro askatzen direnean.

Maider

Gustu ona ez da sekulan kontuan hartzen. Gure gizartea komunikabideetako mezuz eta iragarkiz beteta dago: enpresen ikurrak, denden izenak, kartel ilegalak kaleetan zehar. Hori guztia onargarria ote da? Gehienetan, bai. Eta graffitiak ere onargarria al da? Batzuentzat, bai, beste batzuentzat ez.

Nork ordaintzen du graffitien prezioa? Nork ordaintzen du azkenean iragarkien prezioa? Bai, asmatu duzu: kontsumitzaileak.

Norbaitek baimena eskatu al dizu bere iragarkiak jartzeko? Ez, jakina! Orduan, zer? Graffitiak marrazten dituztenek eskatu egin behar dizute? Zer da hori guztia, komunikazioa baino?

Gogora itzazu orain urte batzuk dendetan saltzen ziren arropa marradun eta koadrodunak. Pentsa ezazu eskiatzeko arropen diseinuaz. Erabilitako ereduak eta koloreak hormetatik atera ziren, loreez margoturiko zementuzko hormetatik hain zuzen ere. Barregarria: eredu eta kolore horiek onartu egiten dira, baita mirestu ere! Baina estilo bereko graffitiak itsusi baino itsusiagotzat jotzen da.

Hau ez da arterako garairik onena, ez.

Garazi

Graffitiei buruzko aurreko bi gutunak internetetik atereak dira. Graffitiak pintaketa edo idazketa ilegalak dira ormetan edo beste edozein lekutan. Begiratu gutunak aurrerago ageri diren galderei erantzuteko.

1. galdera: GRAFFITIAK

Aurreko bi gutunen asmoa zein da?

- A. Graffiti zer den azaltzea.
- B. Graffitiari buruzko iritziak ematea.
- C. Graffiti oso gauza zabaldua dela frogatzea.
- D. Graffiti ezabatzeak zenbat kostatzen duen jendeari jakinaraztea.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Erabilera pribatua.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Graffitiari buruzko iritziak ematea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %76,3k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 421 puntukoa izan zen.

2. galdera: GRAFFITIAK

Maiderek graffitien kostu sozialak aipatzen ditu, graffitia enparantza publikoetatik kentzeko kostua esaterako.

Zein da Maiderek aipatzen duen beste “kostu” mota bat?

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Argudiozkoa.
Testuingurua: Erabilera pribatua.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Maidarren testuan aipatutako kostu bat edo gehiago identifikatu ditu, espezifikoki edota orokorrean: gazteen ospeari egindako kaltea, *graffitiak* pintatutako objektuetan egindako kalteak, ozono-geruzaren suntsiketa. Esate baterako:

- Ingurumenarekiko kalteak aipatu ditu.
- Horrek gazteen ospeari kalte egiten diola uste du.
- Maidarren ustez, horrek beste artelan batzuk hondatzen ditu, eta, ondorioz, gastua eragiten da.
- Artelanak hondatzen dituzte; eraikinak, esate baterako.
- Graffitien egileek denbora galtzen dute.
- Graffitien eraginez hondatutako eraikinak. [*Arte-objektuak diren aldetik, horien osagaiak berritzeak eragiten duen kostua aipatu duela ulertu behar da; hau da, degradazioa (graffitiak kentzeak eragindako kostutik bereizi behar da hori, galderan ez baita horrelakorik aipatu).*]

Punturik ez

0 kodea: Galderan aipatutako kostu-motak errepikatzen dituzten erantzunak:

- Asko kostatzen da pintura hormetatik kentzea.
- Finantza-kostua.

EDOTA: testuan aipatu gabeko kostu-mota bat aipatu du:

- Denbora eta dirua behar dira bandalismo-ekintzen egileen atzetik joateko.
- Publizitatea.
- Artisten finantza-laguntza.
- Erakusketa-gastuak.

EDOTA: erantzun zehaztugabeak edota gaiarekin zerikusirik ez duten erantzunak:

- Gizartearentzako kostuak.
- Kontsumitzaileentzako kostuak.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %53,0k erantzun zion ongi galdera horri.

3. galdera: GRAFFITIAK

Zergatik aipatzen ditu Garazik iragarkiak?

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Argudiozkoa.
Testuingurua: Erabilera pribatua.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Graffitiaren eta publizitatearen arteko alderaketa egin dela eta publizitatea graffitiaren legezko forma dela ulertu duela adierazten duten erantzunak. Esate baterako:

- Publizitatea graffitiak bezain inbaditzailea izan daitekeela erakusten du.
- Batzuen ustez, publizitatea pintadak bezain itsusia delako.
- Publizitatea graffitiaren legezko forma bat baino ez dela dio.
- Hesiak jartzeko baimenik eskatzen ez dutelako. [*Publizitatearen eta graffitiaren arteko alderaketa inplizitua da*].
- Iragarkiak gure baimenik gabe jartzen dituztelako gizartean, graffitiak bezala.
- Hesiak graffitiak bezalakoak direlako. [*Erantzun minimoa. Antzekotasuna bereizi du, baina ez du horretan sakondu*].
- Iragartzeko beste modu bat delako.
- Iragarleek horman kartelak jartzen dituztelako, eta, Mainerren ustez, haiek ere graffitiak direlako.
- Horiek ere hormetan daudelako.
- Besteak bezain atseginak edo desatseginak direlako.
- Publizitatea aipatu du, onargarria delako; graffitiak, berriz, ez dira onargarriak. [*Graffitiaren eta publizitatearen arteko antzekotasuna ezkutuan geratzen da horiekiko jarrerak kontrastatzean*].

EDOTA: publizitatea aipatzea graffitiaren alde egiteko estrategia bat dela erakusten duten erantzunak. Esate baterako:

- Azken finean graffitiak ere legezkoak direla uler dezagun.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun zehaztugabeak edota hutsalak. Esate baterako:

- Iritzia emateko modu bat da.
- Nahi duelako aipatu du, adibide gisa.
- Estrategia bat da.
- Merkataritza-logoak eta denda-izenak.

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Graffitiak deskribatu ditu.
- Jendeak horien gainean marrazten dituelako graffitiak.
- Graffitiak publizitatea egiteko modu bat dira.
- Graffitiak pertsona batek edo pertsona multzo batek egindako publizitatea direlako. [*Konparazio desegokia da: graffitiak publizitatea egiteko modu bat dira*].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %52,7k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 542 puntukoa izan zen.

4. galdera: GRAFFITIAK

Neska bietatik zeinekin zaude ados? Azaldu erantzuna **zure hitzekin**, baina gutun batean ala bietan esandakoan oinarrituta.

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Argudiozkoa.
Testuingurua: Erabilera pribatua.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Eskutitz baten edo bi eskutitzen edukia aipatuz, ikasleen ikuspuntua azaltzen duten erantzunak. Egilearen jarrera orokorra aipa dezakete (alde edo aurka) edo, bestela, haren argudiaketaren xehetasunen bat. Argudiaketa horren interpretazioak sinesgarria izan behar du. Azalpena testu-zati baten parafrasia izan daiteke, baina ezin da testua kopiatu (ez osorik, ez hein handian, aldaketarik egin gabe edo ezer erantsi gabe). Esate baterako:

- Bat nator Maiderrekin. Graffitiak legez kanpokoak dira, eta, beraz, bandalismo-ekintzak.
- Ados nago Maiderrekin, pintaden aurka bainago. [Erantzun minimoa].
- Garazirekin. Nire ustez, hipokrisia hutsa da graffiti-egileei isuna jartzea eta, gero, haien diseinuak kopiatuz, milioiak egitea.

- Biekin nago ados, nolabait. Debekatuta egon beharko luke leku publikoetan hormak margotzea, baina bere lanak beste leku batzuetan egiteko aukera eman beharko litzaioke jende horri.
- Garazirekin, arteaz arduratzen delako.
- Biekin nago ados. Pintadak txarrak dira, baina halaxe dira kartelak ere, eta ez dut hipokrita izan nahi.
- Mainerrekin, niri ere ez baitzaizkit graffitiak gustatzen. Nolanahi ere, ulertzen dut Garaziren ikuspuntua eta hark gaitzetsi nahi ez izana fede onez zerbait egiten duten zenbait pertsona.
- Mainerrekin, pena delako garrantzirik ez duen zerbaitengatik gazteei ospe txarra jartzea. *[Muturreko kasua: aipu zuzena dago, baina beste testu batean sartuta].*
- Garazirekin. Egia da pintadak egiten dituztenei diseinuak eta koloreak lapurtzen zaizkiela eta, gero, horiek dendetan agertzen direla eta pintadak gorroto dituen jendeak onartu egiten dituela. *[Testuko zenbait esaldiren konbinaketa da, baina manipulazio-mailak argi erakusten du testua behar bezala ulertu dela].*

Punturik ez

0 kodea: Norberaren ikuspuntua bermatzeko aipu zuzena soilik baliatzen duten erantzunak (komatxo artean edo komatxorik gabe). Esate baterako:

- Mainerrekin, nire ustez jendeak gizartearentzat aparteko gasturik eragiten ez duten beste adierazpide batzuk aurkitu beharko lituzkeelako.
- Mainerrekin. Zergatik jarri ospe txarra gazteei?

EDOTA: erantzun eskasak edota zehaztugabeak. Esate baterako:

- Garazirekin, nire ustez Mainerren eskutitzean ez baita ematen haren argudioen alde egiteko arrazoirik (Garazik publizitatearekin eta abarrekin alderatzen ditu bere argudioak) *[Argudioen estiloa edota kalitatea aztertu du].*
- Mainerrekin, xehetasun gehiago eman dituelako. *[Argudioen estiloa edota kalitatea aztertu du].*
- Ados nago Mainerrekin. *[Ez du bere iritzia justifikatu].*
- Mainerrekin, hark esandakoan sinesten dudalako. *[Ez du bere iritzia justifikatu].*
- Biekin nago ados. Badakit zer esan nahi duen Mainerrek, baina Garazik ere arrazoi du. *[Ez du iritzia justifikatu].*

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %67,1ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 471 puntukoa izan zen.

5. galdera: GRAFFITIAK

Gu mintza gaitezke gutunak **zertaz** hitz egiten duen (bere edukia).

Komenta dezakegu gutuna **nola** idatzita dagoen (bere estiloa).

Zein gutunekin zauden ados kontuan hartu gabe, zure iritziz, zein uste duzu dela gutunik hoberena? Azaldu zure erantzuna gutun bat edo biak nola idatzita dauden aipatuz.

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Formaren gaineko hausnarketa.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Argudiozkoa.

Testuingurua: Erabilera pribatua.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Eskutitz baten edo bi eskutitzen estiloari edo formari buruzko iritzia azaltzen duten erantzunak. Zenbait irizpideri jarraitu behar diete, esate baterako: idazketa-estiloari, argudiaketaren egiturari, argudiaketaren funtsari, tonuari, hizkuntza-erregistroari edota irakurleak konbentzitzeko estrategiei. “Argudio hobeak” eta horrelako beste balorazioak zehaztu egin behar dira. Esate baterako:

- Maiderrek. Argudio asko ematen ditu, eta pintaden egileek ingurumenean eragiten dituzten kalteak aipatzen. Nire ustez, oso garrantzitsua da hori.
- Maiderren eskutitza eraginkorra da, zuzenean zuzentzen baitzaie pintaden egileei.
- Nire ustez, Maiderren eskutitza da bietan onena. Garazirena pixka bat partziala dela iruditzen zait.
- Nire ustez, Garazik oso arrazoi sendoa eman du, baina Maiderren eskutitza hobeto egituratuta dago.
- Garazik, inorengana zuzenduta ez dagoelako. [Edukiaren kalitateagatik aukeratu du hori. Azalpena ulertzeko, “Ez du inoren aurka egiten” gisa interpretatu behar da].

- Mainerren eskutitza gustatu zait. Oso ongi eman du bere iritzia.

Punturik ez

0 kodea: Egilearen jarrerarekin ados dauden ala ez adierazten duten erantzunak edo, bestela, edukiaren parafrasi hutsa diren erantzunak. Esate baterako:

- Mainerrek. Ados nago hark esandako guztiarekin.
- Mainerren eskutitza da onena. Hark esan bezala, pintadak itsusiak dira eta garesti ateratzen dira.

EDOTA: behar bezainbesteko azalpenik eman gabe juzgatzen duten erantzunak. Esate baterako:

- Garaziren eskutitza da onena.
- Garaziren eskutitza irakurterrazagoa da.
- Mainerrek arrazoi hobeak ematen ditu.

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Mainerrena hobeto idatzita dago. Arazoa puntuz puntu aztertu du, eta, hor oinarrituta, ondorio logikoa atera.
- Garazik, bere iritzia eskutitzaren bukaerara arte gorde duelako. Osasun-aholkuak ere ematen ditu.

9 kodea: Erantzunik ez.


Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %44,7k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 581 puntukoa izan zen.

BIZTANLE AKTIBOAK

Azpian dagoen diagramak herri baten biztanle aktiboen egitura erakusten du, "lan egiteko adinean dagoen populazioa" alegia. Herri honek 1995. urtean 3,4 milioi biztanle zituen.

Biztanle aktiboen egitura 1995ko martxoaren 31n (milakoetan)¹



Oharrak:

1. Kopuruak milakoetan eman dira.
2. Lan egiteko adina duten biztanleen kopuruan 15 eta 65 urteen arteko pertsonak zenbatu dira.
3. Enpleguaren bila ibiltzen ez direnek eta lan egiteko ez daudenean osatzen dute "biztanle ez aktibo"en multzoa.

Aurreko orrian agertzen den herriko biztanle aktiboei buruzko informazioa erabil ezazu aurrerago ageri diren galderei erantzuteko.

1. galdera: BIZTANLE AKTIBOAK

Zein bi talde nagusitan banatzen dira lan egiteko adina duten biztanleak?

- A. Landunen eta langabeen taldeetan.
- B. Lan egiteko adinekoen eta lan egiteko adina ez dutenen taldeetan.
- C. Lanaldi osoko langileen eta lanaldi partzialeko langileen taldeetan.
- D. Biztanle aktiboen eta biztanle ez aktiboen taldeetan.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Grafikoa.
Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Biztanle aktiboen eta biztanle ez aktiboen taldeetan.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %62,8k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 477 puntukoa izan zen.

2. galdera: BIZTANLE AKTIBOAK

Lan egiteko adina zeukaten biztanleen artean, zenbat ziren ez aktiboak? (Idatzi **zenbakia**, ez portzentajea).

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Grafikoa.
Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.
Galderaren formatua: Erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Testua zehaztasunez aipatzen, estiloa helburuarekin Grafikoko kopurua, izenburuko milakoak eta orri-oina kontuan hartu direla adierazten duten erantzunak: 949.900. Onargarriak dira 949.000 eta 950.000 arteko hurbilketak, zenbakiz edo hitzez. Onargarriak dira, halaber, 900.000 edo milioi bat (zenbakiz edo hitzez) eta kualifikatzaileraren bat:

- 949.900
- Bederatziehun eta berrogeita hamar mila baino pixka bat gutxiago
- 950.000
- 949,9 milako
- 1a milioi bat
- 900 mila inguru
- 949,9 x 1.000
- 949.900

Kreditu partziala

1 kodea: Grafikoko kopurua identifikatu arren, izenburuko milakoak eta orri-oina behar bezala kontuan hartu ez direla adierazten duten erantzunak. Zenbakiz edo hitzez 949,9 adierazten duten erantzunak. Onargarriak dira “2 puntu” atalekoen antzeko hurbilketak:

- 949,9
- 94.900
- 1a mila
- Justu 950ez azpitik
- 950 inguru
- 1.000 baino pixka bat gutxiago

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk. Esate baterako:

- %35,8.
- %7,50.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %46,0k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 631 puntukoa izan zen.

3. galdera: BIZTANLE AKTIBOAK

Behean daukazun taulan agertzen zaizkizun pertsonak, non kokatuko zenituzke lehen orriko diagraman (inon kokatzerik posiblea bada)?

Erantzuteko, taulan dauden laukitxoetan “X” jarri ezazu.

Lehen erantzuna emana dago.

	Biztanle aktiboak, landunak	Biztanle aktiboak, langabeak	Biztanle ez aktiboak	Sailkapen guztietatik kanpo daudenak
35 urteko tabernaria, lanaldi partzialekoa.	☒	☐	☐	☐
Astean 60 orduz lan egiten duen 43 urteko. negozio-emakumea.	☐	☐	☐	☐
21 urteko ikaslea.	☐	☐	☐	☐
Orain dela gutxi bere denda saldu duen eta egun lan bila dagoen 28 urteko gizona.	☐	☐	☐	☐
Etiket kanpo inoiz lan egin ez duen, eta lan egiteko asmoa inoiz izan ez duen 55 urteko emakumea.	☐	☐	☐	☐
Bere familiak azokan duen postuan, egunean hainbat orduz lan egiten duen 80 urteko amona.	☐	☐	☐	☐

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Grafikoa.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Aukera konplexua anitzekoa.

ERANTZUN ZUZENA

	Biztanle aktiboak, landunak	Biztanle aktiboak, langabeak	Biztanle ez aktiboak	Sailkapen guztietatik kanpo daudenak
35 urteko tabernaria, lanaldi partzialekoa.	☒	☐	☐	☐
Astean 60 orduz lan egiten duen 43 urteko. negozio-emakumea.	☒	☐	☐	☐
21 urteko ikaslea.	☐	☐	☒	☐
Orain dela gutxi bere denda saldu duen eta egun lan bila dagoen 28 urteko gizona.	☐	☒	☐	☐
Etiket kanpo inoiz lan egin ez duen, eta lan egiteko asmoa inoiz izan ez duen 55 urteko emakumea.	☐	☐	☒	☐
Bere familiak azokan duen postuan, egunean hainbat orduz lan egiten duen 80 urteko amona.	☐	☐	☐	☒

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: 5 erantzunak zuzen.

Kreditu partziala

1 kodea: 3 edo 4 erantzun zuzen.

Punturik ez

0 kodea: 3 erantzun zuzen baino gutxiago.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %39,2k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 727 puntukoa izan zen.

4. galdera: BIZTANLE AKTIBOAK

Demagun biztanle aktiboei buruzko informazioa lehen orrialdekoa bezalako diagrama batean agertzen dela urtero.

Hemen dituzu hasierako diagraman agertzen diren lau elementu. Urtez urte elementu horiek aldatzea esperokoa den ala ez erantzun behar duzu. Horretarako “Aldaketa” edo “Aldaketarik ez” hitzen inguruan borobil bat marraztu behar duzu. Lehena egina dago, adibide gisa.

Eskemaren elementuak	Erantzuna
Koadroen barruko (letrazko) testua (adib. “Biztanle aktiboak”).	Aldaketa / <u>Aldaketarik ez</u>
Portzentajeak (adib. “%64.2”).	Aldaketa / Aldaketarik ez
Zenbakiak (adib. “2656.5”).	Aldaketa / Aldaketarik ez
Orrialdearen behealdean dauden oharak.	Aldaketa / Aldaketarik ez

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Grafikoa.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Bi aukerakoa.

ERANTZUN ZUZENA

Eskemaren elementuak	Erantzuna
Koadroen barruko (letrazko) testua (adib. "Biztanle aktiboak").	Aldaketa / Aldaketarik ez
Portzentajeak (adib. "%64.2").	Aldaketa / Aldaketarik ez
Zenbakiak (adib. "2656.5").	Aldaketa / Aldaketarik ez
Orrialdearen behealdean dauden oharra.	Aldaketa / Aldaketarik ez

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: 3 erantzunak zuzen.

Punturik ez

0 kodea: 3 erantzun zuzen baino gutxiago.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %68,8k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 445 puntukoa izan zen.

5. galdera: BIZTANLE AKTIBOAK

Biztanle aktiboek buruzko informazioa diagrama batean aurkeztu dugu, baina bestelako egituratan ere ager liteke, hala nola taulan adierazita, testu batean idatzirik, grafiko bidez edo ziklograma batean.

Denen artean adarretan banatzen den diagrama aukeratu da. Zure ustez, zertarako da bereziki egokia diagrama mota hau?

- A. Denboran zehar gertatzen diren aldaketak erakusteko.
- B. Herriaren populazio osoaren tamaina erakusteko.
- C. Talde bakoitzaren barruko sailkapenak erakusteko.
- D. Talde bakoitzaren tamaina erakusteko.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Grafikoa.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Talde bakoitzaren barruko sailkapenak erakusteko.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %61,6k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 486 puntukoa izan zen.

PLAN INTERNATIONAL

PLAN International Erakundearen Programaren Emaizak. 1996. urtea.

Ekialde eta Hegoaldeko Afrika

RESA



Osasuna

	EGIPTO	ETIOPIA	KENIA	MALAWI	SUDAN	TANZANIA	UGANDA	ZAMBIA	ZIMBABWE	GUZTIRA
Eraikitako osasun-zentroak (4 ohe edo gutxiago)	1	0	6	0	7	1	2	0	9	26
Egun batez trebatutako osasun-langileak	1.053	0	719	0	425	1.003	20	80	1.085	4.385
Elikagai gehigarriak jaso dituzten umeak (astebete baino luzaroago)	10.195	0	2.240	2.400	0	0	0	0	251.402	266.237
Tratamendu orokorrak / hortzen tratamendua jasotzeko diru laguntza hartu duten umeak	984	0	396	0	305	0	581	0	17	2.283



Hezkuntza

Astebetez trebatutako irakasleak	0	0	367	0	970	115	565	0	303	2.320
Erositako / dohainik jasotako ariketa-liburuak	667	0	0	41.200	0	69.106	0	150	0	111.123
Erositako / dohainik jasotako testuliburuak	0	0	45.650	9.600	1.182	8.769	7.285	150	58.387	131.023
Erositako / egindako / dohainik jasotako uniformeak	8.897	0	5.761	0	2.000	6.040	0	0	434	23.132
Ume bekadunak / eskolako tasak ordaintzeko diru laguntza hartu duten umeak	12.321	0	1.598	0	154	0	0	0	2.014	16.087
Eraikitako / erositako / dohainik jasotako ikasmahaiak	3.200	0	3.689	250	1.564	1.725	1.794	0	4.109	16.331
Eraikitako ikasgela egonkorak	44	0	50	8	93	31	45	0	82	353
Konpondutako ikasgelak	0	0	34	0	0	14	0	0	33	81
Urte honetan irakurtzen eta idazten ikasi duten helduak	1.160	0	3.000	568	3.617	0	0	0	350	8.695



Ingurua

Eraikitako / indusitako komunak	50	0	2.403	0	57	162	23	96	4.311	7.102
Estolderia berriarekin lotutako etxeak	143	0	0	0	0	0	0	0	0	143
Indusitako / hobetutako putzuak (edo kapsular eran babestu diren iturriak)	0	0	15	0	7	13	0	0	159	194
Emaizta positiboa eman duten zundaketa-zulo berriak	0	0	8	93	14	0	27	0	220	362
Edateko uraz hornitzeko sistema eraiki berriak, grabitatearen bidez elikatutakoak	0	0	28	0	1	0	0	0	0	29
Edateko urez hornitzeko konpondu edo hobetu diren sistemak	0	0	392	0	2	0	0	0	31	425
PLAN egitasmoaren bidez hobetutako etxeak	265	0	520	0	0	0	1	0	2	788
Onuradunentzat eraikitako etxe berriak	225	0	596	0	0	2	6	0	313	1.142
Eraikitako edo hobetutako herri-aretoak	2	0	2	0	3	0	3	0	2	12
Egun batez edo egun gehiagoz trebatutako herri-buruak	2.214	95	3.522	232	200	3.575	814	20	2.693	13.365
Hobetutako errepideak (km-ak)	1.2	0	26	0	0	0	0	0	53.4	80.6
Eraikitako zubiak	0	0	4	2	11	0	0	0	1	18
Higadura-kontrolaren onura zuzena jaso duten familiak	0	0	1.092	0	1.500	0	0	0	18.405	20.997
Elektrifikazio-egitasmoaren onuradun berriak (etxeak)	448	0	2	0	0	0	0	0	44	494

Aurreko taula PLAN International erakundeak argitaratutako txosten baten zatia da. Nazioarteko erakunde laguntzaile horrek ekialde eta hegoaldeko Afrikan nolako lanak burutu dituen erakusten da bertan. Erabili taula, aurrerago ageri diren galderei erantzuteko.

1. galdera: PLAN INTERNATIONAL

Taularen arabera, batez ere zein herrialdetan burutu ziren ekintza-motarik ugarienak?

- A. Zambian.
- B. Malawin.
- C. Kenian.
- D. Tanzanian.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Taula.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Kenian.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

2. galdera: PLAN INTERNATIONAL

Beste herrialdeekin konparatuta, PLAN International-ek Ethiopian 1996an ekintza asko ala gutxi burutu ditu?

- A. Beste herrialdeekin konparatuta, ekintza asko burutu zituen.
- B. Beste herrialdeekin konparatuta, ekintza gutxi burutu zituen.
- C. Ethiopian gainontzeko herrialdeetan bezainbeste ekintza burutu zituen, gutxi gorabehera.
- D. “Ingurua” ataleko ekintzak gehiago izan ziren Ethiopian gainontzeko herrialdeetan baino, eta gutxi beste ataletan.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.

Testuaren formatua: Ez-jarraitua.

Testu mota: Taula.

Testuingurua: Erabilera publikoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Beste herrialdeekin konparatuta, ekintza gutxi burutu zituen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

Galdera honek izaera informatzailea baino ez du; beraz, ez du laguntzen ikaslearen puntuazioa osotzen. Erantzuna kontuan hartzen da hurrengo galdera ebaluatzerakoan soilik.

3. galdera: PLAN INTERNATIONAL

1996an Etiopia munduko herrialde pobreenetakoa zen.

Hau eta taulako informazioa kontutan izanik, zerk ulertaraziko lizuke PLAN International-ek eginiko ekintza maila Etiopian, beste lurraldeetakoekin konparatuz?

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.
Testuaren formatua: Ez-jarraitua.
Testu mota: Taula.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Ikasleak behar bezala erantzun dio 2. galderari (B erantzuna). PLANaren jarduera-maila azaltzen duten erantzunak, emandako informazio GUZTIAN oinarrituta, PLANak Etiopian garatutako jarduera-mota era esplizituan edo inplizituan aipatuz. Erantzunak koherentea izan behar du bi ALDERDI hauekin (baina ez dauzka biak aipatu beharrik):

- (1) PLANaren jarduera-maila eskasa Etiopian (taulan agertutako informazioa); ETA
- (2) Etiopiako pobrezia (enuntziatuan agertutako informazioa). Esate baterako:

- Laguntza-erakundeek tokiko jendea prestatuz ekiten diote herrialde jakin batean lan egiteari. Hori horrela izanik, nik esango nuke 1996an PLANA lanean hasi berria zela Etiopian.
- Herri-langileak prestatzea izan daiteke han eman dezaketen laguntza-mota bakarra. Beharbada, ez dago beste laguntza-mota batzuk emateko erietxerik edota eskolarik.
- Agian, atzerriko beste laguntza-talde batzuek osasun-laguntza eta abar ematen dizkiete, eta, beraz, PLANak

herrialdean nola moldatu jakin behar dutela ikusten du. [*Era inplizituan, herri-buruen prestakuntza aipatu du*].

Kreditu partziala

1 kodea: Ikasleak behar bezala erantzun dio 2. galderari (B erantzuna). PLANaren lan-maila azaltzen duten erantzunak, emandako informazio GEHIENEAN oinarrituta. Erantzunak koherentea izan behar du bi ALDERDI hauekin (baina ez dauzka biak aipatu beharrik):

- (1) PLANaren jarduera-maila eskasa Etiopian (taulan agertutako informazioa); ETA
- (2) Etiopiako pobrezia (enuntziatuan agertutako informazioa). Esate baterako:

- Agian, zaila da laguntza banatzea, dena nahaspilatuta baitago.
- Beharbada, gerran daude, eta, hala bada, zaila izango da laguntza banatzea.
- Ez dakite nola lagundu han.
- Beste erakunde batzuk Etiopian laguntzen ari badira, PLANak gauza gutxiago dauzka egiteko.
- Nire ustez, beste herrialde batzuk ere jaso zuten laguntza eta laster lagunduko diote Etiopiari.
- Beharbada, etiopiarren kulturak zaildu egiten ditu atzeritarrekiko harremanak.
- Nire ustez, laguntza handiegia eman diete beste herrialde batzuei, eta Etiopiari ez zaio ezer iristen.
- Litekeena da Nazioarteko PLANA erakundeak ez izatea laguntza behar duten herrialde guztientzako bezainbeste diru eta baliabide.

Punturik ez

0 kodea: Ikasleak gaizki erantzun dio 2. galderari (B ez beste erantzun bat).

EDOTA: ikasleak behar bezala erantzun dio 2. galderari (B erantzuna), baina erantzunak ez du kontuan hartu Etiopiako pobrezia erlatiboaz agertutako informazioa. Esate baterako:

- Beste herrialde batzuek Etiopiak baino gehiago behar dute Nazioarteko PLANaren laguntza. [*Taulako informazioan oinarritu da, baina ez du kontuan hartu Etiopiako pobrezia erlatiboaz enuntziatuan agertutako informazioa*].
- Etiopia ez da beste herrialde batzuk bezain pobrea eta ez du haiek bezainbeste behar PLANaren laguntza. [*Taulako informazioan oinarritu da, baina ez du kontuan hartu Etiopiako pobrezia erlatiboaz galderaren enuntziatuan agertutako informazioa*].
- Baliteke Etiopiak beste herrialde batzuek baino laguntza handiagoa behar izatea herri-buruak prestatzen. [*Taulako informazioaren xehetasun batean oinarritu da, baina ez du*

kontuan hartu Etiopiaren pobrezia erlatiboaz enuntziatuan agertutako informazioa].

EDOTA: ikasleak behar bezala erantzun dio 2. galderari (B erantzuna), baina erantzun zehaztugabea edo desegokia eman du. Esate baterako:

- *Etiopian ez dute lan asko egiten. [2. galderako B erantzunean ageri den informazioa errepikatu du, eta ez da hura azaltzen saiatu].*
- *PLANAK ia ez du ezer egiten Etiopian.*
- *PLANAK laguntza bera ematen die herrialde guztiei. [Ez dator bat 2. galderako B erantzunean ageri den informazioarekin].*

EDOTA: ikasleak behar bezala erantzun dio 2. galderari (B erantzuna), baina erantzun sinesgaitza edota hutsala eman du. Esate baterako:

- *Laguntza handiagoa eman beharko liokete Etiopiar. [Iritzia eman du, eta ez azalpena].*
- *Herri-langileak prestatzera mugatzen dira. Badirudi ez dutela ezer egiten hango jendearen osasunaren edota hezkuntzaren mesedetan. [Ez du azaldu jarduera-maila*

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %10,7k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 822 puntukoa izan zen.

POLIZIAKO ZIENTZIALARIEN ARMAK

Pertsona bat hil dute, baina galdetutako guztia ezeztu du susmagarriak: Hildakoa ez zuela ezagutzen, inoiz ez duela ezagutu, inoiz ez dela berarengana hurbildu, inoiz ez duela ukitu... Polizia eta epailea ziur daude ez dela egia esaten ari. Baina nola frogatu hori?

Ikertzaileek frogagai guzti-guztiak bildu dituzte hilketaren tokian: ehun-zatitxoak, ileak, hatz-aztarnak, zigarro-mutxikinak... Hildakoaren jakan aurkitutako ile batzuk gorriak dira, eta susmagarriarenak ere. Ile horiek susmagarriarenak direla frogatuko balitz, berak eta hildakoak harremanak izan zituztela frogatuko litzateke.

Gizabanako bakoitza desberdina da

Adituak lanean jarri direnean, ile haien sustraiko zelula batzuk aztertu dituzte eta susmagarriaren odoleko beste batzuk. Zelula bakoitzeko nukleoan ADN dago. Hori zer da? Bada, ADN erabat ikustezina da mikroskopioa erabili ezik. Perla-ilara bi dituen lepoko baten itxura dauka. Perla horiek lau kolorekoak dira eta ordena zehatz batean jarrita daude. Eta ordena hori gorputzeko zelula guztietan errepikatzen da: bai ile--sustraietako zeluletan, bai behatz lodikoetan, bai giblekoetan, zein urdailekoetan eta odolekoetan ere.

Baina pertsona bakoitzaren ordena desberdina da. Horrela ordenatutako perlen kopuruagatik, oso urriak dira pertsona bik ADN berbera edukitzeko aukerak, erabat berdinak diren bikiak izan ezik. Pertsona bakoitzak bere ADN daukanez, ADN identitatearen agiri genetikoa da. Genetika-ikertzaileek, beraz, susmagarriaren agiri genetikoa (bere odolean agertzen dena) eta ile gorrien jabearena alderatuko dituzte.

Identitatearen agiri genetikoa kasu bietan berbera bada, frogatutzat emango da susmagarria hildakoaren ondoan egon zela, nahiz eta berak hori ukatu.

Froga-zatitxo bat nahikoa da

Sexu-eraso, hilketa, lapurreta eta beste krimen-mota batzuetan, gero eta ikerketa genetiko gehiago agintzen ditu poliziak. Zergatik? Loturak aurkitu ahal izateko, pertsona biren artean, gauza biren artean, edo pertsona baten eta gauza baten artean. Lotura horiek frogatzea oso baliagarria izan daiteke ikerketarako. Hala ere, hori ez da beti nahikoa izaten krimena frogatzeko. Kontuan izan beharreko datu bat baino ez da.

Anne Versailles



Milioika zelulak osatzen gaituzte

Izaki bizidun guztiok zelula asko eta askoz osatuta gaude. Zelulak oso txikiak dira, izan ere. Mikroskopikoak dira, milioika aldiz tamaina handitzen duen mikroskopioren baten bidez baino ezin direlako ikusi. Zelula bakoitzak kanpoko mintza eta nukleoa dauka. Honen barruan dago ADN.

Identitatearen agiri genetikoa?

ADN gene osatzen dute, bakoitzak ehundaka "perla" dituelarik, eta, guztiek elkarrekin, pertsona baten identitatearen agiri genetikoa osatzen dute.

Nola aurkitu identitatearen agiri genetikoa?

Genetika-ikertzaileak biktimaren jakan aurkitutako ileen sustraiko zelulak hartuko ditu. Zigarro-mutxikinen batean utzitako txistuan daudenak ere erabilgarriak dira. ADN inguratzen duen guztia ezerezteko produktu batean ipiniko ditu zelulak. Gero gauza bera egingo du susmagarriaren odoleko zelula batzuekin. ADN produktu berezi batean ipintzen du, eta ondoren gel berezi batean. Geletik korrante elektrikoa pasaraziko du. Ordu batzuk igarota, marra batzuk agertuko dira, erosten ditugun gauzen barra-kodeen modukoak. Marra ikusteko argi-mota berezi bat behar da. Susmagarriaren barra-kodea eta biktimarengan aurkitutako ileen ADNarena alderatzea da azken urratsa.

Mikroskopioa
poliziaren
laborategian

Irakurri beste aldeko orrialdeako artikulua eta erantzun ondoko galderei.

1. galdera: POLIZIAKO ZIENTZIALARIEN ARMAK

ADNaren egitura deskribatzeko, perla-ilarez egindako lepokoaren adibidea erabiltzen du idazleak. Nola aldatzen dira lepoko horiek pertsonaren arabera?

- A. Beren luzera aldatzen da.
- B. Perlen ordena aldatzen da.
- C. Lepokoen kopurua desberdina da.
- D. Perlen kolorea aldatzen da.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Perlen ordena aldatzen da.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %61,1ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 515 puntukoa izan zen.

2. galdera: POLIZIAKO ZIENTZIALARIEN ARMAK

Testu-zati baten izenburua hau da: “Nola aurkitu identitatearen agiri genetikoa?”. Zein da horren asmoa?

Hau azaltzea:

- A. ADNa zer den.
- B. Barra-kodeak zer diren.
- C. Zelulak nola aztertzen diren ADNeko marratxoak aurkitzearen.
- D. Nola frogatzen den susmagarri bat krimenen baten errudun dela.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Zelulak nola aztertzen diren ADNeko marratxoak aurkitzearen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %58,3k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 518 puntukoa izan zen.

3. galdera: POLIZIAKO ZIENTZIALARIEN ARMAK

Zein da idazlearen asmo nagusia?

- A. Abisatzea.
- B. Entretenitzea.
- C. Informatzea.
- D. Konbentzitzea.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Informatzea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %80,2k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 406 puntukoa izan zen.

4. galdera: POLIZIAKO ZIENTZIALARIEN ARMAK

Sarreraren (grisez dagoen lehen atala) amaierak dio: “Baina nola frogatu hori?”

Pasarte honen arabera, ikertzaileek nola aurkitu nahi diote erantzun bat galdera honi?

- A. Lekukoei galdetuz.
- B. Ikerketa genetikoak burutuz.
- C. Susmagarriari galdeketa sakona eginez.
- D. Ikerketaren emaitza guztiak berriro aztertuz.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Hezkuntza-erabilerarakoa.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Ikerketa genetikoak burutuz.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.


9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %80,7k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 402 puntukoa izan zen.

ZAPATILAK

GUSTURA IBILI ZAITEZ ZURE ZAPATILA BARRUAN



Lyon-go (Frantzia) Kirol Medikuntza Ikastegiak gazte kirolari eta kirolari profesionalen lesioak ikertu izan ditu 14 urtetan zehar. Ikerlanak zehaztu du arazoei aurre egiteko neurririk egokiena prebentzioa... eta kirol zapatila egokiak erabiltzea dela.

Kolpeak, erorketak, jantzia eta lesioak...

8 eta 12 urte arteko jokalarien %18k orpoko lesioak izaten ditu. Futboleko jokalariren orkatilako kartilagoak ez ditu kolpeak ongi jasaten, eta profesionalen %25ek aitortzen duenez, hori da bere berezitateko puntu ahula. Belauneko artikulazioa makala denez, kartilagoak lesio sendaezinak jasan ditzake, eta haurtzarotik (10-12 urte) behar den arretaz zaintzen ez bada, osteoarthritis goiztiarra ager daiteke. Aldakak ere lesioak izan ditzake, bereziki jokalaria nekaturik dagoenean, erorita edo kolpeen ondorioz aldaka hausteko arriskua baitago.

Ikerketek diotenez, hamar urtez edo gehiagoz futboleko aritu diren jokalariek hezur-eskrezentziak izaten dituzte orpoan edo bernezurrean.

Normala ez den horri "futbolariaren oina" esaten zaio. Orkatila-gune eta zolak bigunegiak dituzten zapatilek eragiten dute lesio hori.

Babestu, eutsi, egonkortu, leundu

Zapatak, gogorregia bada, mugimendua galarazten du. Bigunegia bada, lesio eta zaintiratuaren arriskua areagotzen du: Kirol-zapatilek onak izateko, honako lau irizpide bete behar dituzte:

Kanpotik babestu behar dute: baloiaren edo beste jokalariren kolpeetatik babestu behar dute, lurra ukitzen duen aldetik azala irregularra behar dute, eta oina lehor eta bero mantendu behar dute, hotz ikaragarria eta euria ari badu ere.

Oinari eutsi behar diote, bereziki orkatilako artikulazioari; zaintiratuak, hanturak eta belauneraino heda daitezkeen halako arazorik ez izateko.

Jokalaria *egonkortasuna* eman behar diote, bustirik dagoen zelaian labain egin ez dezan, eta lehorregi dagoen zelaian irrist egin ez dezan.

Azkenik, *kolpeak leundu* behar dituzte, bereziki saskibaloia eta boleiboleko jokalariek hartzen dituztenak, etengabe saltoka egoten dira eta.

Oin lehorrak

Arinagoak diren arren, mingarriak diren beste gaitz batzuk saihesteko (ubeldurak edo "atletaren oina" izenez ezagutzen diren onddoen infekzioak), zapatilek izerdiari lurrintzen eta kanpora irteten utzi behar diote. Horrez gainera, ez dute kanpoko hezetasuna sartzen utzi behar. Horretarako materialik aproposena larrua da. Larruari uraren kontrako tratamendua eman dakioke, euria egiten duen lehenengo egunetik blai eginda gera ez dadin.

Beste aldeko orrialdean dagoen artikulua kontuan harturik, erantzun hurrengo galderei.

1. galdera: ZAPATILAK

Zer adierazi nahi du egileak testu horretan?

- A. Kirol askotan erabiltzen diren zapatilen kalitatea izugarri hobetu dela.
- B. Hamabi urtetik beherakoa baldin bazara, hobe duzula futbolean ez jokatzea.
- C. Beren baldintza fisiko eskasen ondorioz, gazteek gero eta lesio gehiago izaten dutela.
- D. Oso dela garrantzitsua futbol jokalaria gazteek kirol-zapatila onak janztea.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Oso dela garrantzitsua futbol jokalaria gazteek kirol-zapatila onak janztea.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %80,3k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 356 puntukoa izan zen.

2. galdera: ZAPATILAK

Artikuluak dioenez, kirol-zapatilak, zergatik ez dira gogorregiak izan behar?

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Mugimendu-murritzeta aipatzen duten erantzunak.
Esate baterako:

- Mugimendua murrizten dutelako.
- Korrika erraz egitea eragozten dutelako.

Punturik ez

0 kodea: Materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Lesiorik ez egiteko.
- Ezingo lioketelako oinari eutsi.
- Oina eta orkatila bermatu behar direlako.

EDOTA: erantzun eskasak edota zehaztugabeak. Esate baterako:

- Bestela ez lirateke-eta egokiak izango.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %78,5ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 392 puntukoa izan zen.

3. galdera: ZAPATILAK

Artikuluaren zati batek dio: “Kirol-zapatilak onak izateko, honako lau irizpide bete behar dituzte”.

Zeintzuk dira irizpide horiek?

.....

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitzeke erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Testuan letra etzanez idatzitako lau irizpideak aipatzen dituzten erantzunak. Erreferentziak hiru motatakoak izan daitezke: aipu zuzenak, parafrasiak edota irizpide-lanketak. Irizpideak edozein ordenatan ager daitezke. Hauek dira lau irizpideak:

- (1) Kanpo-faktoreen aurka babesia ematea.
- (2) Oinari eustea.
- (3) Egonkortasun ona ematea.
- (4) Kolpeak leuntzea.

Esate baterako:

- 1. Kanpo-babesa ematea.
- 2. Oina eustea.
- 3. Egonkortasun ona ematea.
- 4. Kolpeak arintzea.
- Kanpo-faktoreetatik babestu behar dute, oinari eutsi behar diote, jokalaria egonkortasun ona eman behar diote eta kolpeak arindu behar dituzte.
- 1. Labainkadetatik babestu behar dute. [*Egonkortasuna*].

- 2. Oina kolpeetatik babestu behar dute (jauzi egitean, adibidez). [Kolpeak arintzea].
- 3. Lurzoru irregularretik eta hotzetik babestu behar dute. [Kanpoarekiko babesa].
- 4. Oinari eta orkatilari eutsi behar diete. [Eustea].
- Babestu, eutsi, egonkortu, leundu. [Testu-zati honen izenburua aipatu du].

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk. Esate baterako:

- 1. Baloiaren edota oinen kolpeetatik babestea.
- 2. Lurzoruaren gorabehera aurre egitea.
- 3. Oina bero eta lehor edukitzea.
- 4. Oinari eustea. [Erantzun honetako lehen hiru puntuak lehen irizpideari dagozkio (kanpo-babesa ematea)].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %75,9k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 405 puntukoa izan zen.

4. galdera: ZAPATILAK

Irakur ezazu artikulua amaieran agertzen den esaldi hau. Hemen bi zatitan daukazu:

“Arinagoak diren arren, mingarriak diren beste gaitz batzuk) (lehen zatia)
saihesteko (ubeldurak edo “atletaren oina” izenaz ezagutzen diren
onddoen infekzioak)...”

“..., zapatilek izerdiari lurrintzen eta kanpora irteten utzi behar diote. (bigarren zatia)
Horrez gainera, ez dute kanpoko hezetasuna sartzen utzi behar”

Zein da lehenengo eta bigarren zatien artean dagoen harremana?

Bigarren zatiak

- A. lehenengo zatiak dioena ezeztatu egiten du.
- B. lehenengo zatiak dioena errepikatu egiten du.
- C. lehenengo zatiak planteatzen duen arazoa argitu egiten du.
- D. lehenengo zatiak planteatzen duen arazoari irtenbidea ematen dio.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: lehenengo zatiak planteatzen duen arazoari irtenbidea ematen dio.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %77,5ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 402 puntukoa izan zen.

OPARIA

Oparia

Zenbat egunetan egon ote zen horrela, eserita, euri ilun hotzak muinoa nola jaten zuen begira, hori pentsatzen ari zen andrea. Euria nola hasi zen ez zuen oso ondo gogoratzen. Urak, hegoaldetik iritsi, zingira zeharkatu eta etxea gogor jotzeari ekin zion.

- 5 Gero ibaia bera ere hazten hasi zen, lehen apurka-apurka, gero une batez aldatu gabe jarraitu zuen, eta gerotxoago berriro gora egin zuen. Orduak aurrera egin ahala, ura, errekatxoetatik irristatuz, gogotik jausten zen behealdetara. Gabea, andrea lo zegoen bitartean, errepideraino iritsi zen eta emakumea urak inguratuta geratu zen, bakar-bakarrik. Itsasontzia joana zen. Etxea han geratu zen geldi, muino gainean, jalkin pilo baten antzera. Ura zutabeetako ohol bikeztatuak ere ukitzen hasia zen. Eta gora egiten ari zen gainera.

- 15 Zingira itsaso bihurtu zen. Urak estalita zituen lehen ibai-ertzak zirenak eta andrearen begiak ez ziren gauza itsaso itzel hura oso-osorik ikusteko; ibai-ertzetako zuhaitzen adaburuak ikusten ziren, besterik ez. Euri zaparradek itsas-azala etengabe astintzen zuten. Ibaia ur-lautada horretan nonbait galduta zebilen. Etxeak itsasontzi-itxurako behealdea zuen; halakoa egin zioten horrelako uholdea inoiz izanez gero ere, badaezpada, baina zaharra zegoen. Beharbada beheko oholak ustelduta egongo ziren. Etxea haritz sendoari lotua zuen soka apurtuko egingo zen beharbada, eta andrea korrontean behera joango zen, itzulipurdika, galtzen diren itsasontziak bezalaxe.

- 20 Inor ez zen etorriko laguntzera. Oihuka hasteak ez zuen ezertarako balio izango, inork ez baitzion entzungo. Zingira guztian, beste jendea, sakabanatuta, geratzen zitzairen gutxi hura, baita bizitza ere, gorde nahian ahaleginetan ari zen. Etxe oso bat ur-azalean isil-isilik joaten ikusi zuen andreak eta hiletak ekarri zizkion gogora. Etxea norena zen bazekiela pentsatu zuen. Nahigabezkoa zen hala, jitoan, ikustea, baina jabeek seguru asko gorantza ihes egin zuten. Ondoren, euriaz gain iluntasuna ere lekuaz jabetzen hasi zenean, pantera baten orroa entzun zuen ibai gora.

- 30 Bere inguruan etxea dardaraka ari zela iruditu zitzaion, bizirik balego bezala. Ohearen ondoko mahaitxotik lanpara erortzen hasi zen une berean ozta-ozta harrapatu zuen eta oin artean jarri zuen, ondo helduta. Gero, ahaleginagatik marmarka eta karraska, etxea lokatzetatik askatu eta berez ur gainean abian hasi zen, kortxo baten moduan dantzan, korronteak eraginda, zabuka. Andreak ohearen ertzari gogor oratu zion. Alde batetik bestera kulunkaturik, etxea sokak uzten zion heinean mugitzen zen. Astindu bat sumatu zen, gero ohol zaharren marrua eta azkenik geldialdia izan zen. Korronteak etxea pixkanaka-pixkanaka askatu eta atzerantz kulunkatzen utzi zion. Etxeak hasieran zegoen tokia karraskatu zuen. Andreak arnasa hartzeari utzi zion eta luzaroan eserita 35 egon zen kulunkatze geldo hura sentitzen. Etengabeko euriaren tanten artetik iluntasuna sartzen hasi zen eta andrea, burua besoaren gainean jarrita, oheari eutsita lokartu egin zen.

- 40 Gauean, bat-batean, oihu batek esnatu zuen. Oihua hain zen lazgarria, andrea esnatu orduko zutik zegoen. Ilun zen eta ohearen kontra behaztopa egin zuen. Oihua kanpotik

45 zectorren, ibaitik. Zerbait mugitzen entzuten zen, arrastaka mugitzen zen handia zen zerbait. Beste etxe bat izan zitekeen. Zerbait horrek etxea jo zuen, ez zuzenean, zeharka baizik, eta etxeko hormari jarraituz korrontean aurrera egin zuen. Zuhaitz bat zen. Adarrak eta hostoak beren tokietara itzultzen eta zuhaitza aurrera zihoala entzun zen. Azkenean euria eta uholdea baino ez zen entzuten. Etengabeko soinu haiek isiltasunaren osagarri zirela ziruditen. Andrea ohean kuzkurtu eta ia lokartuta zegoen beste oihu bat entzun zuenean. Hurbiletik zectorren oihua, hain hurbiletik ere, gelan bertan sortzen zela ematen zuen. Iluntasunari begira geratu zen eta ohean atzerantz egin zuen rifle hotza eskuratu arte. Orduan, burkoaren gainean kuzkurtuta, arma belaunen gainean jarri zuen. “Nor da?”, galdetu zuen.

55 Erantzuna beste oihu bat izan zen, baina ez hain lazgarria, nekatuagoa baizik. Gero isiltasuna nagusitu zen berriro. Ohean atzerago egin zuen. Norbait edo zerbait zebilen ataripean. Oholek kraska egin zuten eta lurrera botatako gauzen zarata ere entzun zen. Ataripekoan zebilen dena delakoa horman harramazka hasi zen, sartzeko zulo bat egin nahi izango balu bezala. Orduan igarri zion andreak zer zen: katatzar bat, sustraitik ateratako zuhaitzak etxea ukitu zuenean utzitako katatzar bat. Uholdearekin batera etorri zen, oparia zen.

60 Andreak eskua aurpegiaren eta eztarri teinkatuaren kontra jarri zuen, nahi gabe. Erriflea belaunen gainean zeukan. Sekula ez zuen panterarik ikusi. Besteek kontatzen zutena entzuna zuen, bai, eta animalia horien oihuak ere entzunak zituen, urrundik. Sufrimenduzko oihuak ziruditen. Katatzarra horman harramazka egiten ari zen berriro, atearen ondoko leihoan hatzaparrez joaz. Leioa begien bistatik galtzen ez zuen artean, katua hormaren beste aldean, euripean, geratzen zen artean, ez zitzaion ezer gertatuko. Kanpoan, animaliak atsedendalditxo bat hartu zuen hatzaparrak leihoaren 65 beste aldeko sare herdoilduan zorrozteko. Noizbehinka marru eta orro egiten zuen.

70 Argia azkenean euri artetik agertzen hasi eta beste iluntasun-mota bat sortu zenean, andreak ohean eserita jarraitzen zuen, geldi, hoztuta. Besoak, ibaian arraun egiten ohituak, minduta zituen, erriflea eustearren mugitu gabe zeramaten denboraren ondorioz. Geldi-geldi zegoen, mugitzean egingo zuen edozein soinuk katuari indar berria emango ziola beldur baitzen. Zurrin-zurrin zegoen, etxearekin batera zabuka. Euriak etengabe jarraitzen zuen. Azkenean, argi grisaz bestaldean, euriak astintzen zuen uholdea ikusi ahal izan zuen, baita adaburu urperatuen itxura lausoa ere urrunean. Katuaren mugimendurik ez zen sentitzen. Beharbada alde egingo zuen. Andrea, arma albo batera utzita, ohetik inolako zaratarik atera gabe altxa eta leihoraino joan zen. Han zegoen katatzarra, ataripeko ertzean kuzkurtuta, etxea lotuta mantentzen zuen haritz sendoari begira, adar baten gainera salto egiteko aukerak aztertzen ari balitz bezala. Ikusten zuela, ez zitzaion hain beldurgarria iruditzen. Larrua latza zuen, ileek adartxoak osatzen zituzten, gorputz alboetan ia ez zuen mamirik, saihetsak agerian zituen. Zegoen tokian erraza izango zatekeen tiro batez hiltzea, bere buztan luzea aurrera eta 80 atzera mugitzen zuen bitartean. Andrea arma hartzeko atzerantz mugitzen ari zela, bat-batean buelta eman zuen panterak. Abisatu gabe, kuzkurtu gabe, muskuluak teinkatu gabe, animaliak leihora salto egin eta beiretako bat mila zatitan hautsi zuen. Andrea atzerantz erori zen, oihu egiteko gogoari eutsi zion eta, erriflea hartuta, leihotik tiro egin zuen. Pantera ez zuen ikusten, baina bazekien tiroak huts egin zuela. Ibiltzen hasi zen 85 berriro, eta andreak burua eta bizkarra ikusi zizkion, leihopetik pasatzean.

- Dardara batean, andrea ohera itzuli eta etzan egin zen. Ibaiaren eta euriaren etengabeko soinu lasaigarriak alde batetik eta hotz handiak bestetik lo egiteko gogoak kendu zioten. Leihoari begira geratu zen, arma prest izanik. Tarte luze batean itxaron ondoren berriro mugitu egin zen, pantera ikusteko. Pantera loak hartu zuen eta burua hanken gainean zeukan, etxeko katu arrunt baten modura. Euria hasi zenetik lehenengo aldiz negar egiteko gogoak izan zuen, bere buruagatik, jendeagatik, uholdea jasaten ari zen guztiagatik negar egiteko gogoak. Ohean beherantz mugitu zen eta ohe-estalkia sorbalden gainean jarri zuen. Ahal zuenean irten beharko zuen, errepideak erabili zitezkeen bitartean edo, behintzat, bere itsasontzia korronteak eramanez aurretik.
- 90 Etxearekin batera zabuka egitean min bizia nabaritu zuen urdailean. Horrek gogorarazi zion ezer jan gabe zegoela, noiztik ere ez zekiela. Katatzarra bezain gose zegoen. Sukaldean sartu zen eta geratzen zitzaizkion egur-zati urriekin sua piztu zuen. Uholdeak iraunez gero, aulkia ere erre beharko zuen, baita agian mahaia bera ere. Urdaiazpiko keztatu baten azken zatia sabaitik jaitsi zuen, okela marroi-gorriska horren
- 100 xerra lodi batzuk moztu zituen eta zartagin batean jarri zituen. Okela frijituaren usainak zorabioa eman zion. Sukaldean azken aldiz aritu zenetik gailera zahar batzuk geratzen zitzaizkion artean eta kafe apur bat egiteko ere moldatu zen. Izan ere, ur faltarik ez zuen.
- Janaria prestatzen ari zenean, ahaztua zuen katatzarra. Marrua entzun zionean gogoratu zen hartaz. Animalia ere gose zen. “Utzi jaten eta gero zutaz arduratuko naiz,” esan zion, eta ahopeka barre egin zuen. Urdaiazpikoaren hondakinak berriro sabaiko gakotik esekitzean, katuak orro sakona egin zuen, hain sakona, non andrearen eskua dardaraka hasi baitzen.
- 105 Bazkaldu ondoren, andrea berriro oheraino joan zen, erriflea hartzera. Etxea gorago flotatzen ari zen eta, lehen ibaia zegoen aldetik itzulita, ez zuen ukitzen muinoaren tontorra. Janariak gorputza berotu zion. Argiak euria zulatzen zuen bitartean, katatzarrendandik libre geratzerik izango zuen. Leihora hurbildu zen, apurka-apurka. Katua artean han zegoen, miauka, ataripean batera eta bestera berriro. Beldurra galduta, andrea luzaroan egon zen animalari begira. Gero, zer egiten ari zen pentsatu
- 110 gabe, arma albo batera utzi zuen eta, ohearen ertza inguratuta, sukalderantz abiatu zen. Katua bere atzean zebilen alde batetik bestera, urduri. Urdaiazpikoaren hondakinak hartu zituen eta, lurzoru mugikorra zeharkatuta, apurtutako leihotik kanpora bota zituen. Kanpoan gose-orro bat entzun zen eta animaliarengandik andrearengana zerbait pasa zen, zirrara sendo bat sentitu zuen. Egindakoak harrituta,
- 115 andrea ohera itzuli zen. Pantera okela urratzen ari zela entzun zezakeen. Etxeak kulunka egin zuen bere inguruan.
- 120 Esnatu bezain laster, den-dena aldatu zela konturatu zen andrea. Ateri zegoen. Une batez etxea noiz mugituko zain egon zen, baina kulunkarik ez zuen sumatu. Atea ireki zuen eta apurtutako pantailatik beste mundu bat ikusi zuen. Etxea betiko muinoaren gainean zegoen. Pixka bat beherago, ibaia artean ere azkar zihoan, uhar baten moduan, baina etxetik haritzarainoko tartea ez zegoen urpean. Katua ez zen inon ere ikusten. Ataripearen eta haritzaren artean aztarnak zeuden, zingiran sartzen ziren. Ez ziren oso nabariak eta lokatz bigunean galtzen hasiak ziren. Ataripean, hezurreraino janda, urdaiazpikoaren azken hondarrak zeuden.
- 125

Erabili “Oparia” istorioa aurreko orrialdeetako ipuinean oinarrituta, erantzuteko hurrengo galderei (ohartu zaitez lerro-zenbakiak jarrita daudela testuaren ondoan galderetan agertzen den zatia errazago aurkitu dezazun).

1. galdera: OPARIA

Hemen dago “OPARIA” ipuina irakurri duten bi pertsonen arteko elkarrizketa baten zatia:



Atera itzazu probak ipuinetik erakusteko nola justifikatzen duen pertsona hauetako bakoitzak bere ikuspuntua.

1. hizlaria

.....

2. hizlaria

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narraziozkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsonala.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

1. pertsona: “krudela”.

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Emakumea krudela dela adierazteko kontakizunetik elementuak atera dituzten erantzunak. Panterari tiro egiteko asmoa edota benetan panterari tiro egin ziola aipa dezakete. Aipuak edota parafrasiak erabil ditzakete. Esate baterako:

- Panterari tiro egiten saiatu zen.
- Krudela da, hasiera-hasieran panterari tiro egitea bururatu zitzaiole.
- Barre egin zuen felidok akabatzea pentsatu zuenean.
- Jaten ari zela, barre egiten zien felidoaren kexuei.
- Erriflea hartuta, leihotik tiro egin zuen. [Aipua].

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasak edota zehaztugabeak. Esate baterako:

- Pantera ez zuen adeitasunez tratatu.

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Krudela da felidok kanpoan eduki zuelako. [Sinesgaitza da beste ezer egin ahal izatea, kontakizunean felidoak zer-nolako arriskua duen ikusita].
- Mutilaren ustez, emakumeak bihozberagoa izan behar zuen. [Hutsala: mutil gazteak elkarriketan esandakoa azaldu du, kontakizuna aipatu beharrean].

9 kodea: Erantzunik ez.

2. pertsona: “bihozbera”.

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Emakumea bihozbera dela adierazteko kontakizunetik elementuak atera dituzten erantzunak. Esaterako, panterari jaten ematea, panteraz errukia sentitzea edota errukia zentzu zabalean sentitzea aipa dezakete. Aipuak edota parafrasiak erabil ditzakete. Esate baterako:

- Janaria felidoarekin elkarbanatu zuen, eta, beraz, eskuzabala da.

- Urdaiazpikoa eman zion.
- Urdaiazpikoaren hondakinak hartu zituen eta apurtutako leihotik kanpora bota zituen. [Aipua].
- Pantera lehen aldiz entzun zuenean, haren kexua tristea zela pentsatu zuen, ez beldurgarria zenik. [Panteraz errukia sentitzeko gaitasuna adierazten du].
- Hau dio: “negar egiteko gogoia izan zuen, bere buruagatik, jendeagatik, uholdea jasaten ari zen guztiagatik negar egiteko gogoia”. [Erruki globala adierazten duten elementuen aipua].

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasak edota zehaztugabeak. Esate baterako:

- Jokaera bihozbera du.
- Atsegina da.

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Emakumea pertsona atsegina dela uste du. [Hutsala: neska gazteak elkarrizketan esandakoa azaltzen du, kontakizuna aipatu beharrean].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %64,0k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 537 puntukoa izan zen.

2. galdera: OPARIA

Ipuina hastean zein zen andrearen egoera?

- Egunak ezer jan gabe emateagatik, ezin zen etxetik atera.
- Bere burua basapizti baten aurka defendatzen ari zen.
- Bere etxea uholdeak inguratuta zegoen.
- Handitutako ibaiak etxea eraman zuen.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narraziozkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsonala.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Bere etxea uholdeak inguratuta zegoen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %73,5ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 447 puntukoa izan zen.

3. galdera: OPARIA

Hona hemen ipuineko panteraren lehenengoetariko erreferentzia batzuk.

“oihu batek esnatu zuen. Oihua hain zen lazgarria...” (39. lerroa).

“Erantzuna beste oihu bat izan zen, baina ez hain lazgarria, nekatuagoa baizik...” (51. lerroa).

“...entzuna zuen, bai, eta animalia horien oihuak ere entzunak zituen, urrundik. Sufrimenduzko oihuak ziruditen” (60-61. lerroak).

Ipuinaren beste pasarteetan gertatzen dena kontuan hartuta, zergatik uste duzu idazleak aukeratu duela pantera sartzea deskribapen hauekin?

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narraziozkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

2 kodea: Deskribapenek errukia eragin nahi dutela adierazten duten erantzunak. Egileak irakurlearekiko duen asmoa esplizitua nahiz inplizitua izan daiteke. Gainerakoan kontakizunean gertatzen denari buruzko aipamenak ere esplizituak nahiz inplizituak izan daitezke. Erantzunek hau adieraz dezakete:

- (1) Aipatutako deskribapenek pantera eta emakumea (eta, oro har, gizaki guztiak) lotzen dituzte sufrimenduan; EDOTA
- (2) Aipatutako deskribapenek panterarekiko emakumeak izango duen jokaera bihozbera aurreratzen dute; EDOTA
- (3) Pantera erruki-objektu gisa aurkezten da. Esate baterako:
 - Panterak ia gizakiok bezala egiten zuen oihu –emakumeak bezala–, eta horregatik sentitzen dugu biekiko errukia. [Panteraren eta emakumearen/gizakion arteko loturaren aipamen esplizitua. (1) Irakurlearenganako efektuaren aipamen esplizitua].
 - Pantera ere uholdearen biktima bat dela konturazten zaitu. [Emakumearen jokaera bihozberarekin lotzen ditu zatiak (2), asmoari edota efektuari buruzko aipamen espliziturik egin gabe].
 - Panterak triste sentiarazten zaitu. [Deskribapenen ñabarduren ulermen inplizitu egokia. (3) Irakurlearekiko efektuaren aipamen esplizitua].
 - Triste dagoela dirudi, eta zoritxarrekoa dela. [Deskribapenen ñabarduren ulermen inplizitua (3), eta egilearen asmoen aipamen inplizitua].

Puntuazio partziala

1 kodea: Aipatutako deskribapenek izan ditzaketen asmoak (edota efektuak) aipatzen dituzten erantzunak –errukia sortzea izan ezik–. Iruzkina argi erakusten du testua ulertu dela. Egileak irakurlearekiko duen asmoa esplizitua nahiz inplizitua izan daiteke. Gainerakoan kontakizunean gertatzen denari buruzko aipamenak ere esplizituak nahiz inplizituak izan daitezke. Erantzunek hau adieraz dezakete:

- (1) Suspensea edota misterioa sortzeko asmoa edota efektua. (“beldurgarri” edota “kezkgarri” adjektiboek argi adierazten dute aipatutako deskribapenak ez direla ulertu; “interesgarri”, “irakurterraz” edota “argi” adjektiboak, berriz, ez dira behar bezain zehatzak); EDOTA
- (2) Pantera emakumearen ikuspuntutik aurkezten da. Esate baterako:

- Suspensea sortzen duelako. Ez dakizu nor ari den oihuka [1].
- Pixkanaka-pixkanaka aurkezten da pantera [1].
- Zirrargarria da [1].
- Ez dakizu zer den –emakumeak bezalaxe–. [(1) eta (2) *konbinatuta*].
- Emakumeak panterarekiko zer sentitzen duen adierazten du [2].

EDOTA: aipatutako deskribapenetako informazio literalak aipatzen duten erantzunak. Iruzkina argi erakusten du testua ulertu dela. Egilearen asmoa edota egileak irakurlearengan eragin nahi duen efektua esplizituak nahiz inplizituak izan daitezke. Gainerakoan kontakizunean gertatzen denari buruzko aipamenak ere esplizituak nahiz inplizituak izan daitezke. Erantzunek hau adieraz dezakete:

- (1) Pantera karakterizatzean baliatutako errealismoa; EDOTA
- (2) Deskribapenak, batetik, eta agertokia eta egoera, bestetik, bat etortzeko modua. Esate baterako:

- Pantera animalia basatia da, eta animalia basatiek oihu egiten dute [1].
- Pantera gose zen, eta animalia horiek zarata jakin bat egiten dute gose direnean. [1].
- Ilun zegoelako eta pantera ikusi ezin zuelako konturatu zen zarataz [2].
- Panterari entzutean gogoratu zen aurretik noiz entzun zuen halako animalia baten oihua [2].

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasak edota zehaztugabeak. Esate baterako:

- Interesgarriagoa egiten du.
- Deskribapen-hizkuntza eraginkorra da.

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Pantera emakumearen zain dagoela dirudi. [*Sinesgaitza*].
- Deskribapen horien bidez, panterak irakurlea beldurtzea nahi du. [*Gaizki ulertu du*].
- Panteraren ikuspuntutik zer gertatu zen kontatzen du. [*Gaizki ulertu du*].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %42,8k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 645 puntukoa izan zen.

4. galdera: OPARIA

“Gero, ahaleginagatik marmarka eta karraska, etxea lokatzetatik askatu...” (29-30. lerroak).

Zer gertatu zitzaion etxeari ipuinaren zati honetan?

- A. Erori egin zen.
- B. Flotatzen hasi zen.
- C. Haritzaren kontra topo egin zuen.
- D. Ibaian hondoratu zen.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narraziozkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena B aukera: Flotatzen hasi zen.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %85,3k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 367 puntukoa izan zen.

5. galdera: OPARIA

Zein da emakumeak panterari jaten emateko ipuinak sujeritzen duen arrazoia?

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narraziozkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsonala.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Emakumea panterak pena eman ziolako edota harekiko enpatiatatik inplikatu zela adierazten duten erantzunak. Emakumeak bere motibazioa kontzienteki ulertzen ez zuela ere aipa dezakete. Esate baterako:

- Panterak pena eman ziolako.
- Bazekielako zer den gose izatea.
- Pertsona bihozbera delako.
- Bizitzen laguntzeko.

EDOTA: kontakizunean emakumearen motibazioa esplizituki azaltzen ez dela edota hark motibazio hori kontzienteki ulertzen ez duela adierazten duten erantzunak. Esate baterako:

- Ez zekien zertan ari zen.
- Alditxar bat izan zuen.
- Sena.
- Ez zekien.
- Kontakizunean ez da horren berri ematen.

EDOTA: emakumearen motibazioa aipatu gabe, panteraren jateko edota laguntza jasotzeko behar fisikoa adierazten duten erantzunak. Esate baterako:

- Gose zelako.
- Oihu egiten zuelako.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasak edota zehaztugabeak.

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Emakumeak bere burua babestu nahi zuela edota beldur zela adieraz dezakete. Esate baterako:

- Jaten emanez gero joan egingo zela pentsatu zuen.
- Panterak beldurra ematen zion.
- Bere maskota izatea nahi zuelako. [Sinesgaitza].
- Haren laguna izateko. [Sinesgaitza].
- Gustatu egiten zitzaiolako. [Sinesgaitza].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %56,6k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 529 puntukoa izan zen.

6. galdera: OPARIA

Zer esan nahi du andreak “gero zutaz arduratuko naiz” esaldian (106-107. lerroetan)?

- A. Badakiela katuak ez diola ezer egingo.
- B. Hori esanez katua izutzen saiatzen ari da.
- C. Katua tirokatzeko asmoa duela.
- D. Katuari jaten emateko asmoa duela.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narraziozkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsonala.
Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Katua tirokatzeko asmoa duela.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %40,4k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 603 puntukoa izan zen.

7. galdera: OPARIA

“Oparia” ipuineko azken esaldiaren amaiera egokia dela uste al duzu?

Azaldu zure erantzuna, amaiera kontakizunarekin lotzen den modua ulertu duzula demostratuz.

.....

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Edukiaren gaineko hausnarketa.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narraziozkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK**Gehieneko puntuazioa**

2 kodea: Kontakizunaren interpretazio literala gainditu arren, testua behar bezala ulertu dela adierazten duten erantzunak. Bukaera ebaluatu behar dute, eta, horretarako, kontakizuneko metaforekin, erlazioekin eta gaiekin erlazionatu behar dute azken esaldia. Adibidez, hauek aipa ditzakete erantzunek: panteraren eta emakumearen arteko erlazioa, biziraupena edota esker ona adierazteko opari edo ekintza bat. Egoeraren egokitasunari buruzko iritziak esplizituak edota inplizituak izan daitezke. Esate baterako:

- Bai. Kontakizunaren bidez, bizitzan funtsezkoa denarekin harremanetan jarri da emakumea, eta hezur karraskatua horren ikur bat da.
- Bai. Nire ustez, panterak utzitako urdaiazpiko-hezurra ere opari bat izan zen, eta mezu bat zuen: “bizi eta utzi bizitzen”.
- Bai. Hezurra opari bat da, eta hori da kontakizunaren gaia.
- Bai. Emakumeari zer gerta ziezaiokeen gogorarazten digu urdaiazpiko-hezurrak.
- Egokia da, animaliak nolabait eskertu egiten baitio urdaiazpikoa oparitu izana.

EDOTA: kontakizunaren interpretazio literala gainditu arren, testua behar bezala ulertu dela adierazten duten erantzunak. Bukaeraren estiloa edota giroa ebaluatu behar dituzte, eta, horretarako, kontakizunaren gainerako estiloarekin edota klimarekin erlazionatu behar dute azken esaldia. Egoeraren egokitasunari buruzko iritziak esplizituak edota inplizituak izan daitezke. Esate baterako:

- Bai, bat dator kontakizunaren erlazio faktikoaren estiloarekin.
- Bai, kezkarria den zerbaiten efektua luzatzen du.
- Ez, soilgia da, ia gainerako guztia xehetasun osoz kontatzen baita.

Puntuazio partziala

1 kodea: Kontakizuna koherentziaz interpretatu dela adierazten duten erantzun literalak. Bukaerako narrazioa ebaluatu behar dute, eta, horretarako, gertakizun esplizituekin lotu behar dute azken esaldia (esate baterako, felidoak haragia irentsi du, panteraren bisita, uholdeen jaitsiera). Egoeraren egokitasunari buruzko iritziak esplizituak edota inplizituak izan daitezke. Esate baterako:

- Bai, felidoak urdaiazpikoa irentsi zuen ala ez adierazten da.
- Ez. Haragiaren atala bukatuta zegoen jada.
- Bukatuta dago, haragia bukatu delako, eta, haragiarekin batera, baita kontakizuna ere.
- Bai. Urak jaitsi eta animaliak haragia irentsi ondoren, ez dago felidoak hor jarraitzeko arrazoirik.
- Nire ustez, bukaera ona da, emakumearen ataripean pantera bat egon zela frogatzen baitu. [*Kontakizuneko gertakizunak “benetan gertatu zirela” ulertu du, maila literal batean*].
- Ez, ez da bukaera egokia. Ez zen opari bat, eta oso arriskutsua zen. [*Testua literalki interpretatu duela adierazten du*].
- Egokia da, euriteen ondoren hori gertatu zela adierazteko. [*Uholdeen bukaera aipatu du*].

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasak edota zehaztugabeak. Esate baterako:

- Eraginkorra baino gehiago da. Benetan hunkigarria da.
- Ez, opariak ez dauka zerikusirik bukaerarekin.
- Ez. Hobe izango zen bukaeran zerbait zirrargarriagoa jartzea. [*Ez du lotu bukaera gainerakoarekin*].
- Hezurra deskribatu du azkenik.

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Bai, amets bat soilik izan zela erakusten du. [*Sinesgaitza*].
- Ez, irakurleak ez baitaki zergatik desagertu den felidoa. [*Testua ez duela ulertu adierazten du*].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %37,1ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 652 puntukoa izan zen.

AMANDA ETA DUKESA

Hurrengoetan bi testu aurki ditzakezu. 1. testua Jean Anouilhek egindako “Leocadia” antzerki lanaren zati bat da. 2. testuan antzerkiko hainbat lanbideen azalpenak agertzen dira. Erabil itzazu testuak ondorengo galderei erantzuteko.

1. TESTUA

AMANDA ETA DUKESA

Laburpena. Leocadia hil zenetik, berarekin maiteminduta zegoen printzea oso triste dago. Dukesak, printzearen izebak, Reseda Soeurs deitutako denda bateko saltzaile bat ezagutu du, Amanda, Leocadiaren antz harrigarria daukana. Dukesak Amandaren laguntza behar du, printzea oroimenetatik askatzeko.

Bidegurutze bat gazteluaren inguruetan, eserleku biribil bat obelisko txiki baten inguruan... ilunabarra da ...

AMANDA

Oraindik ez dut ulertzen. Zertan lagun diezaioket nik, andrea? Ezin dut sinistu horrelako zerbait bururatu zaizunik... Eta zergatik ni? Ez naiz bereziki polita. Dena dela, nor sar liteke printzearen eta bere oroimenen artean, polita izanda ere?

DUKESA

Zu zeu, beste inor ez.

AMANDA, *benetan harrituta*

Ni?

DUKESA

Gizartea hutsala da, laztana. Desfileak, gestuak, lanbideen adierazgarriak... Hori besterik ez du ikusten. Hala ere, zuk ez zenuke inoiz horrelakorik entzun beharko. Baina nire bihotzak ez dit gezurrik esan. Réseda Soeurs--en lehenengo aldiz ikusi zintudanean, ia-ia oihu egin nuen. Zu Léocadia bezalakoa, berdin--berdina izango zara, ezagutzen zuten guztientzat.

Isilaldi bat. Ilunabarreko txoriek arratsaldekoak ordezkatu dituzte. Dena itzalez eta txorrotxioz bete da.

AMANDA, *oso samurki*

Hala ere, ez dut uste gauza naizenik, andrea. Ez daukat ezer, ez naiz ezer, nire maitaleak izan ezik... Zer, **nire** irudimena martxan berriro, ezta?

Neska altxatu da. Bere maletatxoa hartu du, irtengo balitz bezala.

DUKESA, *ere oso samurki, baina gogaituta*

Jakina, maitea. Barka nazazu.

Bera ere altxatzen da, baina nekez, emakume zahar bat bailitzan. Txirringa baten txirrina entzuten da ilunabarreko airean eta dukesa aztoratu egiten da.

Entzun... Printzea da! Jar zaitez bere begien bistan, obelisko honen kontra, hark eta Léocadiak lehen aldiz elkar ikusi zutenean bezala. Ikus zaitzala, behin baino ez bada ere, ea zerbait dioen, ea zure itxurak erakartzen duen, ea bihar aitortuko diodan iruzur honek interesa pizten dion, aitortzean gorrotatzen banau ere. Hildako neskak mutila ere berarekin eramatea jasan beharra baino nahiago nuke beste edozein ezbehar. Seguru nago horixe gertatuko dela hemendik gutxira... (*neskari besotik heldu dio*). Egingo duzu, ezta? Arren eskatzen dizut, andereño. (*Neskari begira geratzen da, erreguka bezala, eta honela jarraitzen du*): Horrela, gainera, zuk ere mutila ikusiko duzu. Eta... Ai ene, lotsatuta nago hori esateagatik! Bizitza zoramen hutsa da! Hirurogei urtetan hiru bider baino ez naiz horrela lotsatu, eta azken biak hamar minutu hauetan izan dira. Orain ikusiko duzu printzea eta beharbada... Tira, zergatik

ez, beste mutil asko baino ederrago eta atseginago izanda? Bere onerako izango litzateke une batez zure kuttun bihurtuko balitz, baita neure onerako ere... *Txirrina berriro, ilunpetan, baina oso hurbiletik oraingoan.*

AMANDA, *ahopean*
Zer esan behar diot?

LA DUQUESA, *neskari besoari helduta*
Hau besterik ez: "Mesedez, jauna, nondik joaten da itsasora?"

Neska zuhaitzen itzal ilunen artean sartu da. Oso garaiz, sartu ere. Irudi lauso, kolore argiko bat dator. Printzea da, bere txirringaren gainean. Amandak obeliskoaren kontra osatzen duen iruditik hurbil igarotzen da. Neska xuxurlatzen hasten da.

AMANDA
Mesedez, jauna...

Printzea gelditu egiten da eta txirringatik jaisten. Kapela erantzten du eta neskari begiratzen dio.

PRINTZEA
Bai, andereño, zer?

AMANDA
Nondik joaten da itsasora?

PRINTZEA
Hartu zure ezkerreko bigarren bidetik, andereño.

Mutilak agur egiten dio, triste, adeitsu. Gero bere txirringara igotzen da berriro eta badoa. Txirrina entzuten da atzera ere, urrundik. Dukesa ilunpetik ateratzen da eta oso, oso zaharra dela ikusten da.

AMANDA, *samurki, une batez itxaron ondoren*
Ez nau ezagutu...

DUKESA
Ilunegi zegoen... Dena dela, auskalo nolako itxura eman dion mutil horrek neskari bere ametsetan! (*la lotsaz*): Azken trena joan da, andereño. Gazteluan lo egin nahi al duzu?

AMANDA, *ahots arraro batez*
Bai, andrea.

Guztiz ilun dago. Bi emakumeak ikusezinak dira itzalpean. Haizea da entzun daitekeen bakarra, gazteluko lurraldeko zuhaitz itzelak jotzen.

GORTINA BEHERA

2. TESTUA

ANTZERKIKO HAINBAT LANBIDE

Aktorea: Antzezlan batean paper bat egiten duena.

Zuzendaria: Antzezlan bat nola antzeztu agintzen duena. Aktoreei non jarri esaten die, nor noiz sartu edo aterako den erabakitzen du, antzezteko moduak zuzentzen ditu eta gidioa nola ulertu behar den esaten du.

Jostunak, jantzi-diseinatzaileak: Ereduei jarraituz, aktoreen jantziak egiten dituztenak.

Eszenografoa: Dekoratuak eta jantziak egiteko ereduak diseinatzen dituena. Eredu horiek oinarritzat hartuta, lantegietan tamaina naturaleko gauzak egiten dira.

Altzarien arduraduna: Eszenatokian jarri behar diren altzariak aurkitzeaz arduratzen dena. "Altzariak" gauza mugikor guztiak dira: besaulkiak, eskutitzak, lanparak, lore-sortak etab. Dena dela, dekoratuak eta jantziak ez dira altzariak.

Soinu-teknikaria: Antzerki-lanak eskatzen dituen soinu-efektu guztiez arduratzen dena. Ikuskizuna bukatu arte soinu-kontrolen aurrean egon behar du.

Argi-teknikaria: Argiez arduratzen dena. Argiak oso gauza sofistikatuak dira eta antzoki onetan gutxi gorabehera hamar argi teknikarik lan egiten dute. Ikuskizuna bukatu arte argi-kontrolen aurrean egon behar du argi-teknikariak.

1. galdera: AMANDA ETA DUKESA

Zeri buruzkoa da testua?

Hau da, zergatik egin nahi du dukesak iruzurra?

- A Printzea bisitan maizago etortzea nahi duelako.
- B Printzea ezkontzea nahi duelako.
- C Amandak printzeari tristezia ahaztaraziko diola uste duelako.
- D Amanda berarekin gazteluan bizi izatea nahi duelako.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazio-azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena C aukera: Amandak printzeari tristezia ahaztaraziko diola uste duelako.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %73,5ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 423 puntukoa izan zen.

2. galdera: AMANDA ETA DUKESA

Idazleak testuan, esan behar denaren ezezik, aktoreek eta teknikariek bete beharreko “agindu” batzuk ere eman ditu.

Nola adierazten dira “agindu” horiek, nola ezagutzen dira testuan?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazio-azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa

1 kodea: Letra etzanez idatzitako testua aipatzen duten erantzunak. Onargarriak dira oso teknikoak ez diren deskribapenak ere. Parentesi arteko testua eta letra etzanez idatzitako testua aipa ditzakete. Esate baterako:

- Letra etzanez (idatzita daude).
- Testu inklinatua.
- Hau bezala: [*Letra etzana imitatu du*].
- Eskuz idatzita.
- Letra etzana eta parentesiak.
- Letra finez idatzita daude.

Punturik ez

0 kodea: Erantzun eskasak edota zehaztugabeak.

- Agertokiko aginduak parentesi artean daude. [*Parentesien aipamena zuzena da, baina erantzunean ez da aipatu letra etzanez idatzitako testua*].
- Beste estilo batean idatzita daude.
- Beste letra-tipo batean idatzita daude.

EDOTA: materiala gaizki ulertu dela adierazten duten erantzunak edota erantzun sinesgaitzak edo hutsalak. Esate baterako:

- Letra lodiz. [*Okerra*].
- Txikiz. [*Okerra*].
- Zuzendariak esanda. [*Hutsala*].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %44,2k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 561 puntukoa izan zen.

3. galdera: AMANDA ETA DUKESA

Hona LEHEN TESTUA antzezteko behar diren teknikariak. Bete ondoko taula, testu horretako “aginduetan” agertzen dena erabiliz. Teknikari bakoitzak duen zeregin bat idatzi behar duzu.

Lehena adibidea da.

Antzerki teknikariak	Eginkizuna
Eszenografoa	Eserleku zirkularra obelisko txiki baten inguruan
Altzarien arduraduna	
Soinu-teknikaria	
Argi-teknikaria	

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narrazio-azalpenezkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsonala.
Galderaren formatua: Eraikitzeke erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: (Altzarien arduraduna) Maleta bat edota bizikleta bat aipatzen dituzten erantzunak. Agertokiko aginduetako esaldiren bat aipa dezakete. Esate baterako:

- Haren maleta txikia.
- Bizikleta.

ETA: (soinu-teknikaria) hauetakoren bat aipatzen duten erantzunak: txorien txorrotxioa, (gaueko) txoriak, bizikletaren txirrina, haizea edo isiltasuna. Agertokiko aginduetako esaldiren bat aipa dezakete. Esate baterako:

- Bizikleta baten txirrina entzun da gauean.
- Haizea baino ez da entzuten.
- Gaueko txoriak.
- Gaueko txorien txanda heldu da.

ETA: (argi-teknikaria) hauetakoren bat aipatzen duten erantzunak: itzalak, orban argi lauso bat, iluntasuna [iluntasun osoa] edo gaua. Esate baterako:

- Patioak itzalez bete dira.
- Zuhaitzen itzalak.
- Gaua sartu da.
- Gaueko airean.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.


Analisis

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %43,9k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 567 puntukoa izan zen.

4. galdera: AMANDA ETA DUKESA

Zuzendariak aktoreak non jarri behar diren erabakitzen du. Marrazki honetan Amanda A letraz adieraziko du. Dukesa, D letraz.

Jarri A eta D marrazkian, printzea heltzean Amanda eta Dukea non zeuden adierazteko.




GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Narrazio-azalpenezkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsonala.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK


Gehieneko puntuazioa

1 kodea: Hauek aipatzen dituzten erantzunak: A obeliskotik gertu eta D zuhaitzen atzean edo zuhaitzetatik gertu. Esate baterako:



Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.



9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %36,6k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 608 puntukoa izan zen.

5. galdera: AMANDA ETA DUKESA

Antzerkiaren amaieran, Amandak dio: "Ez nau ezagutu..."

Zer esan nahi du?

- A. Printzeak ez diola begiratu Amandari.
- B. Printzea ez dela konturatu Amanda saltzaile zuela.
- C. Printzea ez dela konturatu Amanda lehendik ezagutzen zuela.
- D. Printzea ez dela konturatu Amandak Leocadiaren antz handia duela.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Narrazio-azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Erantzun anitzekoa.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Erantzun zuzena D aukera: Printzea ez dela konturatu Amandak Leocadiaren antz handia duela.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %67,1ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 455 puntukoa izan zen.

LANGILEAK



CANCO Industria
Pertsonaleko Saila

LANPOSTU ALDAKETEN BULEGO NAGUSIA

Zer da LABN?

LABN inizialen esanahia Lanpostu Aldaketen Bulego Nagusia da. Pertsonaleko Sailak sortu zuen eta, bertako langileez gain, beste sail batzuetako langileak eta kanpoko erakundeetako lan-aholkulariak ere aritzen dira bertan.

LABNek beste lan bat bilatzen dutenei laguntzen die, bai CANCO enpresan bertan bai hortik kanpo.

Zein da LABNaren eginkizuna?

LABNek beste lan baten bila dihardutenei laguntzen die. Hona eskaintzen dituen baliabideak:

• Lanpostuen datu bankua

Langilearekin hitz egindakoan, datu bankuan sartzen dira haren datuak. Lan bila dabiltzanak eta CANCON eta beste enpresa batzuetan sortutako lanpostuak lotzeko aukerak aztertzen ditu Bankuak.

• Aholkularitza zerbitzua

Laneko aholkulariek langilearekin hitz egiten dute, nolako lana egokitzen zaion komentatzeko.

• Ikastaroak

Informazio eta Prestakuntza Sailarekin batera, lana nola bilatu eta lanbidea nola garatu ikasteko ikastaroak antolatzen ari dira.

• Lanbidez aldatzeko egitasmoak

Egitasmoak sustatu eta- koordinatzen dira LABNen, langileei lanbide eta ikuspuntu berriak ezagutzera emateko.

• Bitartekaritza zerbitzua

Enpresa eraberritzeagatik lanpostua galtzeko arriskuan daudenei ere laguntzen die LABNek. Beharrezkoa bada, lanpostu berriak aurkitzen laguntzen die.

Zenbat kobratzen du LABNek?

Hori langilearen sailarekin adosten da. LABNeko zerbitzu batzuk doakoak dira. Kobratzen direnak dirutan edo lan-orduetan ordaintzeko aukera ere badago.

Nola funtzionatzen du LABNek?

Esan dugunez, LABNek beste lan bat bilatzen dutenei laguntzen die, bai gure enpresan bertan bai beste batean.

Hasteko, eskabidea bidali behar duzu. Bidali aurretik, pertsonaleko aholkulariarekin hitz egin dezakezu. Hori da komenigarriena, ezer egin aurretik zure nahiak eta zure lanbidea garatzeko aukerak argi edukitzeko. Aholkulariak badu zure gaitasunaren berri, baita zure sailak hazteko dituen aukeren berri ere.

LABNekin harremanetan jartzeko, hitz egin pertsonaleko aholkulariarekin. Bera izango da zure eskabideaz arduratuko dena. Ondoren, LABNeko ordezkari batekin hitz egingo duzu.

Informazio gehiago

Informazio gehiago behar baduzu, galdetu Pertsonal Sailean.

Erabili aurreko orriko iragarkia, Pertsonal Sail batek sortutakoa, datozen galderei erantzuteko.

1. galdera: LANGILEAK

Iragarkiaren arabera, non eskura daiteke LABNi buruzko informazio gehiago?

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Azalpenezkoa.
Testuingurua: Erabilera pertsonala.
Galderaren formatua: Erantzun laburra.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Gutxienez hauetako iturri BAT aipatzen duten erantzunak:

- (1) Pertsonaleko Saila.
- (2) Pertsonaleko aholkularia.

Esate baterako:

- Pertsonaleko Saila.
- Pertsonaleko aholkulariak informazio gehiago eman diezaioke.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk. Adibidez:

- CANCO Industria.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %85,1ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 363 puntukoa izan zen.

2. galdera: LANGILEAK

Enpresa eraberritzeagatik lanpostua galtzen dutenei bi modutan laguntzen die LABNek. Zeintzuk dira bi modu horiek?

1

.....

2

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Informazioa berreskuratzea.

Testuaren formatua: Jarraitua.

Testu mota: Azalpenezkoa.

Testuingurua: Erabilera pertsonala.

Galderaren formatua: Eraikitzeo erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: BI elementu hauek aipatzen dituzten erantzunak:

(1) Bitartekari-lanak egiten dituzte langileentzat edo bitartekaritza egiten dute.

(2) Lanpostua aurkitzen laguntzen dute. [Ez dira onargarriak “Lanpostuen datu-bankua”, “Aholkularitza-zerbitzua”, “Ikastaroak” edota “Lanbidez aldatzeko egitasmoak”].

(1) Pertsonaleko Saila.

(2) Pertsonaleko aholkularia.

Esate baterako:

- Bitartekaria. Beharrezkoa bada, lanpostua aurkitzen laguntzen du.
- Bitartekari-lanak egiten ditu. Beste lanpostu bat aurkitzen laguntzen du.

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk. Esate baterako:

(a) Bitartekaritza-zerbitzua, (b) Lanbidez aldatzeko egitasmoak.

- Lanbidez aldatzeko egitasmoak. Ikastaroak.
- Lan-aukeren eta -eskatzaileen segimendua. Bitartekaritza-zerbitzua.
- Eskaera edota trukea pertsonal aholkulariarekin.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %31,8k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 655 puntukoa izan zen.

EDITORIALA

Teknologia berriak arau berriak ere behar ditu

ZIENTZIA batzuetan azkarrago doa legea eta etika baino. Hori horrela, bizitzaren alde suntsitzailea nagusitu zen 1945ean: urte hartan lehen bonba atomikoa bota zuten. Orain bizitzaren alde emankorrean ere gauza arriskutsuak gertatzen ari dira, giza antzutasuna menperatzeko tekniken eremuan alegia.

Gehienok poztu ginen Ingalaterrako Brown familiarekin batera, Louise jaio zitzairenean, hura lehen probeta-umea izan zen eta. Beste aitzindari txiki batzuk ere miretsi ditugu: azkenaldi honetan ume osasuntsu batzuk jaio dira, amaren umetokian jartzeko unea iritsi arte enbrioi izoztuak izan zirenak.

Izoztutako bi enbrioi direla-eta, Australian istilu handia sortu da, lege eta etikaren eremuetan. Enbrioi horiek Mario Ríos-en emazteak, Elsa Ríos-ek, bere gorputzean jaso nahi zituen. Lehenago jasotako enbrioi bat ezin izan zen aurrera atera, baina Ríos senar-emazteek berriro saiatzeko asmoa zuten. Zoritxarrez ez zuten horretarako astirik izan, hegazkin-istripu batean hil ziren eta.

Zer egin behar zuen Australiako ospitaleak enbrioi izoztuekin? Beste norbaiten gorputzean jarri? Horretarako boluntario asko aurkeztu ziren. Enbrioiak Ríos bikoteak utzitako herentziaren zatia ote ziren? Edo suntsitu beharreko gauzak ziren? Ulergarria denez, Ríos bikoteak ez zeukan ezer erabakita enbrioiaren etorkizunari buruz.

Australiarrek arazoa aztertzeke batzorde bat sortu zuten. Orain dela aste bete, horrek bere erabakia ezagutzera eman zuen: Enbrioiak desizoztu behar ziren, norbaiten gorputzean sartzeko “ekoizleen” baimena beharrezkoa baitzen. Jakina, inork ezin zuen horrelako baimenik

eman. Bestalde, batzordeak enbrioiak bizitza eta eskubiderik gabeko gauzatzen jo zituen; beraz, ez zegoen suntsitzeko oztoporik.

Batzordekideek bazekiten lege eta etikako gune labainkor batean zebiltzala. Hori zela-eta, herritarren iritzia eskatu zuten, hori adierazteko hiru hilabeteko epea emanda. Gizartea zalantzarik gabe enbrioiak suntsitzearen aurka bazegoen, batzordeak gaia berriro hausnartu eta erabaki beharko luke.

Orain Sydneyko Queen Victoria ospitaleak baldintza bat jarri die in vitro ugalketarako programetan parte hartu nahi duten bikoteei: haiek hilko balira enbrioiarekin zer egin beharko litzatekeen esan behar dute.

Horrela Ríos senar-emazteei gertatutakoa ez da errepikatuko. Baina beste arazo batzuk ere korapilatsuagoak dira. Frantziako emakume batek epailetara joan behar izan du, hildako senarraren hazi izoztua haurdun geratzeko erabili ahal izateko. Zer erabaki? Beste arazo bat: emakume batek bere umetokian beste baten enbrioia hazteko kontratua sinatzen badu eta gero hori bertan behera utzi nahi badu, zer gertatzen da?

Gure gizarteak ez du lortu energia atomikoaren potentzial suntsitzailea murrizteko araurik egitea. Porrot horren ondorio latzak ordaintzen ari gara. Zientzialariek ugalketa bizkortu edo atzeratzeko boterea daukate eta botere hori gaizki erabiltzeko aukerak asko dira. Urrunegi joan baino lehen, etika eta legeko mugak zehaztu beharko genituzke.

“Teknologia berriak arau berriak ere behar ditu” editoriala oinarritzat hartuta, erantzun ondorengo galderei.

1. galdera: ARAU BERRIAK

Australiarrek zerbait egin zuten hegazkin-istripuan hildako bikotearen enbrioiekin zer egin erabakitzeke. Azpimarratu hori azaltzen duen esaldia.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Argudiozkoa.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitzeke erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Gutxienez elementu hauetako BAT duen esaldia edota esaldi-zatia azpimarratzen edota biribilean sartzen duten erantzunak:

- (1) “Batzorde bat sortu zuten”;
- (2) “herritarren iritzia eskatu zuten, hori adierazteko hiru hilabeteko epea emanda...”

Esate baterako:

- [Azpimarratuta]... Australiarrek arazoa aztertzeko batzorde bat sortu zuten... [Ikasleak esaldi garrantzitsuetako bat azpimarratu du].
- [Azpimarratuta]... Australiarrek arazoa aztertzeko batzorde bat sortu zuten... eta ... herritarren iritzia eskatu zuten, hori adierazteko hiru hilabeteko epea emanda... [Ikasleak testuko bi zatirik garrantzitsuenak azpimarratu ditu].
- [Azpimarratuta] ... Australiarrek arazoa aztertzeko batzorde bat sortu zuten... eta ... Frantziako emakume batek epaiketara joan behar izan du, hildako senarraren hazi izoztua haurdun geratzeko erabili ahal izateko... [Ikasleak ongi azpimarratu du testuko zati garrantzitsu bat; bestea, berriz, hurrengo galderarekin lotuta dago, eta horregatik onartu da].

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk. Esate baterako:

- [Azpimarratuta] ... horrek bere erabakia ezagutzera eman zuen: Enbrioak desizoztu behar ziren, norbaiten gorputzean sartzeko

“ekoizleen” baimena beharrezkoa baitzen... [Ikasleak testuko zati hutsal bat azpimarratu du].

- [Azpimarratuta] ... Australiarrek arazoa aztertzeko batzorde bat sortu zuten... eta ... Zientzialariek ugalketa bizkortu edo atzeratzeko boterea daukate eta botere hori gaizki erabiltzeko aukerak asko dira... [Ikasleak ongi azpimarratu du testuko zati garrantzitsu bat; bestea, berriz, ezin da hurrengo galderarekin lotu, eta, beraz, ezin da onartu].

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %47,9k erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 558 puntukoa izan zen.

2. galdera: ARAU BERRIAK

Enbrioi izoztuen kasuan gertatu zen bezala, teknologia berriek arau berrien beharra dakarte. Editorialean fenomeno horren adibide batzuk eman dira. Aukeratu eta idatzi horietako bi.

.....

.....

GALDERAREN EZAUGARRIAK

Gaitasuna: Testua interpretatzea.
Testuaren formatua: Jarraitua.
Testu mota: Argudiozkoa.
Testuingurua: Erabilera publikoa.
Galderaren formatua: Eraikitze erantzun irekia.

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Gehienezko puntuazioa

1 kodea: Gutxienez hauetako BI adibide aipatzen dituzten erantzunak:

(1) Ríos senar-emazteak hil zirenean, enbrioiekin zer egin behar zen eztabaidatzen hasi ziren. [Ez dira onargarriak 4. paragrafoko galderak (esate baterako, “Zer egin behar zuen ospitaleak enbrioi izoztuekin?”, “Enbrioia Ríos bikoteak utzitako herentziaren zatia ote ziren?”), horiek

enbrioi-emaileen (Ríos senar-emazteen) heriotzarekin esplizituki lotzen ez badira behintzat].

(2) Frantziako emakume batek auzitara joan behar izan zuen, hildako senarraren hazia erabili ahal izateko.

(3) Zer egin behar da akurako amak erditutako haurra eman nahi ez badu?

Esate baterako:

- Ekoizleek zehaztu egin beharko lukete zerbait gertatuz gero zer egin behar den enbrioiekin. Horrez gain, legeak egon beharko lukete, akurako amak haurra eman nahi ez badu zer egin behar den ezartzeko.

EDOTA: bioteknologiarekin eta energia atomikoarekin (haren potentzial suntsitzailearekin) lotuta goian aipatutako adibide BAT aipatzen duten erantzunak [(1), (2) edo (3)].

Punturik ez

0 kodea: Beste erantzun batzuk. Esate baterako:

- Hazia izoztu dute, eta hala egon behar du erabiltzeko unea heldu arte. *[Hutsala]*.
- Enbrioiak herentziaren zati dira, // beste norbaiten gorputzean jar daitezke *[Ez dago argi artikuluko zer zati aipatu duen. Bi kasuetan Ríos senar-emazteei buruz ari bada, ez ditu BI adibide eman, eskatu bezala. Bigarren puntuan Frantziako kasuari buruz ari bada, ez du ongi ulertu, emaztea ez baita "beste pertsona bat"]*.

9 kodea: Erantzunik ez.

Analisia

PISA proiektuaren proban parte hartu zuten ELGAko herrialdeetako ikasleen %25,5ek erantzun zion ongi galdera horri. Zailtasun-indizea 669 puntukoa izan zen.